



\* toki  
garapen  
jasangarria



**Nahi dugun  
Astigarragarantz**

Herri gogoetak

**2024**

**PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA**

**ASTIGARRAGAKO UDALA**

Toki-Garapeneko Saila

Ingurumen Saila

**LAGUNTZA TEKNIKOA**

**ados MARAKA**

# AURKIBIDEA

1. A* NAHI DUGUN ASTIGARRAGARANTZ PROZESUA .....	5
2. ASTIGARRAGAREN IBILBIDEA TOKIKO GARAPEN JASANGARRIAN .....	6
3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA .....	7
4. NOLA DAGO ASTIGARRAGA GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEN AURREAN? .....	13



5. IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK .....	901
6. TOKIKO GARAPEN JASANGARRIKO EKINTZA-PLANA.....	934
7. PLANAREN EBALUAZIO ETA JARRAIPEN SISTEMA.....	102

**SARRERA**

# 1. A\* NAHI DUGUN ASTIGARRAGARANTZ PROZESUA



Nahi dugun  
Astigarragarantz  
Herri gogoetak

**Astigarragako Udalak** 2023-2027 legegintzaldiaren hasiera baliatu du hainbat gairen inguruko herri gogoeta estrategikoak egiteko, datozen urteetan udalak eta udalerrriak jarraituko duten bidea eta pausoak definituko dituzten hausnarketa prozesuak abiaraziz. Horretarako, "**A\* Nahi dugun Astigarragarantz**" markapean, lau lan-lerro zehaztu dira, lau arlo desberdinetan udal-plangintza integral eta estrategikoak osatzeko helburuz, herritarren eta herriko eragileen partaidetzarekin.

Nahi dugun  
Astigarragarantz  
Herri gogoetak



Lau prozesuak, ezberdinak izanik ere, **zeharkakoak dira eta sinergiak** eta lotura agerikoak dituzte. Guztietan, herritarren ahotsa entzunez etorkizuneko erronkak identifikatu eta lan-ildoak ezartzea da xedea. Horretarako, herritarren partaidetza saioak, galdetegia, eragileekin elkarrizketak, eta udaleko zein eskualdeko pertsonal teknikoarekin, talde politikoarekin etab. antolatu dira.

Dokumentu honetan, **Tokiko Garapen Jasangarria** prozesuaren baitan burutu den lehen diagnostikoa aurkezten da, tokiko jasangarritasuneko plangintzan azken urteetan erabiltzen den **2030 Agendaren eta Garapen Jasangarriko Helburuen** aterkia eta metodologia jarraituz.

## 2. ASTIGARRAGAREN IBILBIDEA TOKIKO GARAPEN JASANGARRIAN

Astigarragako Udalak urteak daramatza tokiko jasangarritasunaren arloan lan eginez. 2005. urtean sartu zen **Udalsarea 21 - Euskadiko Jasangarritasunaren Aldeko Udalerrien Sarean** (orain, Udalsarea 2030 deitua), eta hurrengo urtean, **2006ean**, burutu zen Astigarragako lehenengo **Tokiko 21 Agenda Plana**. Plana indarraldian sartu zenetik, urtero egin da ekintza planaren ebaluazioa, eta iraunkortasun adierazleen kalkulua. Lehenengo plan honen epealdia amaituta, **2013an plan berri bat definitu zen, 2020ko epemugarekin**. Bertan, hainbat helburu estrategiko eta ekintza zehatz definitu ziren, gaur egun arte Udalaren jasangarritasun-politika gidatu dutenak. Zentzu horretan, lorpen handiak lortu dira jasangarritasun politikei dagokionez, urte luzeetako lanaren emaitzak bistaratuz.

Bestalde, azken urteetan ingurumen, gizarte eta arlo ekonomia arloetan lanketa sakona egin du Udalak, gizartearen eta herritarren beharretara egokitutako udal-politika publikoak sustatuz. Gainera, eskualde mailan, **Beterri Buruntzako** gainontzeko Udalekin (Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) elkarlanean dabil, berriki sortu den Mankomunitatearen bidez.

2015. urteaz geroztik, mundu mailan, tokiko jasangarritasunaren inguruko planak **2030 Agendaren eta Garapen Jasangarriko Helburuetan** oinarritzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoan zehazki, Udalsarea 2030-ek argitaratu zuen, euskal udalerriei zuzendutako [gida metodologikoa](#) da erreferentzia nagusia, eta prozesu honetan ere, gida honen lan lerroak jarraitu dira..



# PROZESUA

**Nolakoa izan da diagnostiko eta plan hau garatzeko prozesua? Nola uztartu dira herritar eta eragileen beharrak, behar tekniko eta politikoekin?**

### 3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Dokumentu honek jasotzen dituen edukiak hainbat eragile barne hartu dituen prozesu baten bidez landu dira, era parte-hartzailean eta ko-sorkuntzan oinarrituta.

Horretarako, **bi fasetan** banatutako prozesua eraman da aurrera: diagnostikoa burutzea eta ekintza planaren diseinua. Ondorengo ataletan fase bakoitza deskribatzen da, hauen helburuak eta garatutako ekintzak aurkeztuz.

#### 3.1. DIAGNOSTIKOA BURUTZEA.

Fase honen helburua Astigarragako **egungo egoera ezagutzea** izan da, indarrean dauden plan eta programak identifikatuz eta aztertuz eta baita teknikari, herritar eta eragileekin egungo eta etorkizuneko kezka eta erronkak identifikatuz.

Horretarako, ondoren deskribatzen den ekintza sorta eraman da aurrera:


**Prozesuaren diseinua.** Proiektua martxan jartzeko beharrezkoak ziren hainbat ekintza burutzean datza, hala nola, Talde Eragilearen sorrera, udal eta eskualdeko teknikarien identifikazioa, eragileen mapatzea, etab.

Nabarmendu beharra dago, ondorengo faseetan detailean deskribatuko ez den arren, Talde Eragileak zeharkako lanketa izan duela prozesu osoan zehar.

**Udaleko eta udalaz gaindiko informazio iturriak bildu eta aztertzea.** Udalean indarrean dauden plan eta programen

identifikazio eta azterketa, baita, eskualde mailako plan eta ekimenen azterketa ere. Kasu honetan, Udalsarea 2030en Garapen Jasangarriko Adierazleen Sistema oinarri hartuta Astigarraga Garapen Jasangarriko Helburuen ikuspegitik aztertu da, hauei ekarpena egiten dieten esparruetako adierazleak bilduz.

**Eskualdeko eta udaleko teknikariek lan-saio eta elkarrizketak.** Lehen fase honetan, udaleko eta eskualdeko hainbat teknikariek lan-saio bat burutu da, bi helburu izan dituen. Alde batetik, teknikari hauei Agenda 2030ean eta GJH-etan testuingurua eta formakuntza eskaintzea. Bestetik, beraiekin batera, egungo egoeraren analisisa egitea, arlo desberdinetan aurrera eramaten ari diren ekimen eta programak zeintzuk diren jasoz eta baita kezka eta erronkak identifikatuz. Honekin batera, hainbat teknikariek ere elkarrizketak burutu dira beharrezkoak identifikatu diren alorretan sakontzeko





**Safaria eta galdetegia.** Safaria etnografiatik eratorritako behaketa teknika bat da testuingurutik eta herritarren ikuspegitik behatu eta lehen pertsonan informazio kualitatiboa jasotzeko balio duena eta gainera, prozesu parte-hartzailea kanpora ateratzea eta ikusgarri egitea ahalbidetzen duena.

Horrela, Safaria Astigarragako kaleetan ibili diren pertsona desberdinekin elkarrizketak edukitzean oinarritu da, ondorengo galdera aitzakia hartuta: *Astigarragako herritar bezala, zerk kezkatzen edo beldurtzen zaitu?*

Safariaren bidez, antolatuta ez dauden eta normalean parte hartzen ez duten herritarrekin konektatzeko aukera egon da, proiektua hurbildu baita eurengana. Safariarekin batera online zein paperean betetzeko aukera egon den galdetegia jarri da martxan, herritarren kezka eta erronka nagusiak identifikatzeko helburua izan duena.



**Herritar eta eragileekin lan-saio eta elkarrizketak.** Diagnostiko fasean hainbat lan-saio burutu dira herritar eta eragile desberdinekin. Alde batetik, **herritar eta eragileei bideratutako saio irekia** burutu da, proiektua aurkeztu eta kezka eta erronkak identifikatzea helburu izan duena.

Bestalde, lan-saio zehatza burutu da **merkatariekin** ere, tokiko garapen jasangarrian eragile esanguratsua diren heinean dituzten kezka, erronka eta proposamenak lehen pertsonan jasotzeko. Honetaz gain, hainbat elkarrizketa burutu dira identifikatutako eragile desberdinekin, identifikatutako hainbat kezka eta erronketan sakontzeko helburuarekin.



## 3.2. EKINTZA PLANAREN DISEINUA.

Egungo egoera ezagutzerakoan hainbat erronka identifikatu dira eta ondoren, erronka hauei erantzuna emango dion formulazio estrategikoa, ekintzen sorrera eta Ekintza Planaren diseinua egitea izan dira fase honen helburuak.

Horrela, helburu horietara iristeko barne-lan teknikoaz gain, ondorengo ekintzak ere burutu dira:

**Herritar eta eragileekin lan-saio eta elkarrizketak.** Fase honetan bi lan-saio ireki eraman dira aurrera herritar eta eragile desberdinekin. Lehenengo lan-saioaren helburua identifikatutako erronken aurkezpen, errepaso eta sakontzea izan da, ideien sorrera ariketa batekin konbinatuz. Honetaz gain, identifikatutako erronketan sakondu eta proposamenak jasotzeko garrantzitsutzat hartu diren hainbat eragilerekin ere elkarrizketak burutu dira. Horrela, saio eta elkarrizketa hauen amaieran, identifikatutako erronkak herritar eta eragileen ikuspegitik lehenetsi dira.

**Politikariekin lan-saioa.** Egindako lana eta bertan identifikatutako kezka eta erronkak

aurkeztea eta erronka hauek lehenetsia izan da lan-saio honen helburua.

### **Herritar eta eragileekin lan-saioak.**

Erronkak lehenetsi ondoren eta teknikoki formulazio estrategikoa definitu ondoren, azken saio ireki bat burutu da herritar eta eragileekin. Saio honen helburua, proposatutako lan-lerroak aurkeztu eta hauen baitan proposamen zehatzak definitzea izan da.

Kasu honetan, bigarren lan-saio bat burutu da udalerriko merkatariarekin ere, hauen proposamen zehatzak jaso eta hainbat ideiarekin kontrastea egiteko helburuarekin.

**Teknikariekin elkarrizketak.** Behin identifikatutako erronketan oinarritutako formulazio estrategikoa definituta eta ekintza plana osatzeko herritar eta eragileen proposamenak jasota, hainbat teknikariarekin elkarrizketak burutu dira proposamen horiek eta beste batzuk teknikoki baloratu eta ekintza plana elikatzeke asmoarekin.

### **Barne-lan teknikoa, talde eragilearekin.**

Amaitzeko, prozesu osoan egindako lanketa aztertu eta ekintza planaren diseinu zehatza burutu da talde eragilearekin batera.



### 3.3. PARTE-HARTZEAREN LABURPENA

Ondorengo taulan prozesuan zehar eman den parte-hartzearen laburpena jasotzen da.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Saio parte-hartzaileak			<b>5*</b>
Herritarrak	18	15	<b>33</b>
Elkarrizketak	5	7	<b>12</b>
Galdetegiak	30	13	<b>43</b>
Safari kale galdetegiak	46	21	<b>67</b>
Udal eta eskualdeko teknikariak	9	7	<b>16</b>
Ordezkarri politikoak	5	4	<b>9</b>
<b>Guztira</b>	<b>113</b>	<b>67</b>	<b>180</b>
	<b>%63</b>	<b>%37</b>	

\* 3 lan-saio ireki orokor egin dira eta 2 lan-saio zehatz merkatariekin.

# **EGUNGO EGOERAREN ANALISIA**

**Nola dago Astigarraga Garapen  
Jasanqarriko Helburuen aurrean?**

## 4. NOLA DAGO ASTIGARRAGA GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEN AURREAN?

2030 Agenda 2015. urteko irailean onartu zuen **Nazio Batuen** Batzar Nagusiak, eta 193 herrialdek **Garapen Jasangarrirako 17 Helburuekin** (GJH) -Euskadin 18. GJH bat garatu da, *hizkuntza eta kultur aniztasunari* dagokiona- konpromisoa hartu zuten. Agenda hau aurrekaririk gabeko akordioa da, besteak beste, estatu eta nazioei, lurralde-mailako organismoei eta tokiko gobernuei, zein, erakunde pribatu, sozial

eta ekonomiko **bere egiteko** eskatzen dielako.

Lelo sendo batekin, hau da, **inor atzean ez uztearekin**, krisi sozial eta energetikoaren egungo testuinguruan, 2030 Agenda pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza globaleko esparru orokor bat da, eragile ezberdinen artean **hizkuntza amankomuna** hitz egitea baimentzen duena.

### **GARAPEN JASANGARRIRAKO** **HELBURUAK**



Ilido horretan, nabarmendu behar da 2030 Agendak **bere egiten dituela nazioarteko beste konpromiso batzuk**, hala nola klima-aldaketaren arloko **Parisko Akordioa**, 2015ean ere onartua, helburu nagusia munduko beroketa 2 °C-tik behera mugatzea duena, ahal dela 1,5 °C-ra, industria aurreko mailekin alderatuta.

Gainera, udal-eremuko **beste erreferente batzuekin koherentea den Agenda** bat da, hala nola Hiri Agenda Berriarekin, edo tokiko mailako garapeneko plangintzekin.

***Azken batean, esan liteke 2030 Agenda koherentzia ematen duen tresna dela, politika publikoen zeharkakotasuna errazten duena eta mota guztietako erakundeek partekatzen duten ibilbide-orria eskaintzen duena, lankidetzeta eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko aliantza eraginkorrek sortzea bultzatuz.***

Tokiko eskalan, lan handia egin da mundu mailan definitutako agenda hau Euskadi

mailara lurreratzeko, eta zehazki, **Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia** sortu da. Beste hainbat eragilek ere, esate baterako, **Udalsarea 2030** sareak, udalerrri eta eskualdeei bideratutako baliabide eta erraminta sorta argitaratu ditu, betiere tokiko mailako errealitatea eta eskumenak kontutan edukiz. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan, Garapen Jasangarriko Helburuei **18. helburu** bat gehitu zaio: **Hizkuntza eta kultur aniztasuna**.

18 helburu hauek guztiak, lan-esparru berri bat ahalbidetzen dute, **udal-ekintza helburu amankomun batzuetan eta erreferentzia-urte berean** oinarrituta bideratzea ahalbidetzen duena.

Jarraian, Garapen Jasangarriko Helburu bakoitzaren aurrean, **Astigarragak egindako ibilbidea eta egungo egoera** zein den aztertzen da.

# 1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA



# 1. POBREZIAREN AMAIERA

**Erreferentziazko helmugak: 1.1., 1.2., 1.3., 1.4., 1.5.**

## Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH honetan kolektibo jakin batzuen kalteberatasunari aurre egin eta gizarte-babesa eta oinarrizko beharrak asetzeko baliabideak eskaintzea eta bermatzea da helburu nagusia, baita herritarren eta herriaren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea ere.

Horretarako, ondorengo arloak lantzen dira:

- Herritarren egoera sozio-ekonomikoa
- Egoera zaurgarrian dauden pertsonen laguntzeko eskaintzen diren baliabide, programa eta zerbitzuak

## Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Pertsonen batez besteko errenta</b>	€	22.609	23.457	25.380	25.362	25.840	
Emakumeen batez besteko errenta	€	17.954	18.413	20.325	20.350	20.921	
Gizonen batez besteko errenta	€	27.276	28.528	30.374	30.227	30.612	
<b>Familiaren batez besteko errenta</b>	€	44.985	46.493	49.937	49.992	50.659	
<b>Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak</b>	%	15,35	13,17	12,62	10,64	11,34	9,47
<b>Gizarte-larrialdietarako laguntzen bizikidetzaren unitate onuradunak</b>	% bizt.	8,7	7,29	8,26	7,32	7,6	7,81
<b>Etxebizitza babestuen parkea</b>	%					7,75	
Alokairu sozialeko etxebizitzak	Kop.				26		
Babes ofizialeko etxebizitzak	Kop.				183		
Etxebizitza tasatuak	Kop.				120		
Larrialdietarako Udalaren etxebizitzak	Kop.				5		
<b>50 urte baino gehiago dituzten etxebizitzak</b>	%		14,6	13,8	14,1		



## Zein da udalerrriaren ibilbidea?

Astigarragako Udalak aspalditik dihardu lanean **bizi-ongizatea bermatzeko eta bizi-kalitatea sustatzeko**. Konkrétuki, Gizarte Zerbitzuen sailetik hainbat lan-ildo jorratzen dira:

- Gizarte prestazioen eta baliabideen berri ematea.
- Gizabanakoen edota familien desegituraketa arazoak aurreikusi eta tratatzea.
- Larrialdi, tratu txarrak, abusu... egoeretan laguntza eskaintzea
- Elkar bizitzeko aukeren zerbitzuak kudeatzea: etxe tutelatuak, zahar egoitzak, familia babesa etab.
- Familiaren laguntza zerbitzuak kudeatzea: etxez etxeko laguntza, eguneko zentroa etab.

- Droga-mendekotasunaren prebentzioa eta tratamendua kudeatzea.


Gainera, udal hobari sistemaren bitartez, zerbitzu desberdinetatik **behar egoeran dauden pertsona edo familiak** laguntzea sustatzen da.

Herriko egoera zein den aztertzen badugu, Astigarragako biztanleen **batez-besteko errenta pertsonala** eskualdekoa baino altuagoa da, zehazki 2021. urtean **25.840€**-koa izan zen, baina, gizon eta emakumeen arteko arrakala oso nabarmena da (10.000€ ingurukoa). Bestalde, **familiaren errenta erabilgarria**, bataz-beste, **50.659€**-koa da. Datu hauek eskualdeko datuen eta Gipuzkoako batez-bestekoaren ginetik kokatzen dira.


Pertsonen batez besteko errenta	2017	2018	2019	2020	2021
Gipuzkoa	22.086	22.605	23.756	23.512	24.341
Beterri-Buruntza Udalak	20.443	21.007	22.134	22.238	22.712
Astigarraga	22.609	23.457	25.380	25.362	25.840
Gizonen batez besteko errenta pertsonala	2017	2018	2019	2020	2021
Gipuzkoa	27.554	28.100	29.091	28.672	29.511
Astigarraga	27.276	28.528	30.374	30.227	30.612
Emakumeen batez besteko errenta pertsonala	2017	2018	2019	2020	2021
Gipuzkoa	16.972	17.459	18.761	18.687	19.497
Astigarraga	17.954	18.413	20.325	20.350	20.921
Familien batez besteko errenta	2017	2018	2019	2020	2021
Gipuzkoa	44.943	46.017	48.368	47.734	49.144
Beterri-Buruntza Udalak	41.859	42.896	45.090	45.238	46.050
Astigarraga	44.985	46.493	49.937	49.992	50.659

Taula 1 Errenta datuen alderaketa udalerrri, eskualde eta lurralde historiko mailan Iturria: Garapen

### Batez-besteko errenta pertsonala



### Familiaren errenta erabilgarria batez-beste



Azken urteetan, udalerrian **diru-sarrerak bermatzeko errentaren** (DBE edo RGI, erdaraz) onuradunak diren herritarren portzentaiak beheranzko joera izan du, **2022an %9,47** izan zelarik. Beherakada honen arrazoia izan daiteke, 2021-ean EAEn estatu mailan kudeatzen den IMV (*Ingreso Mínimo Vital*) laguntza sartzea, eta beraz, lehen DSBE jasotzen zutenek IMV jasotzera pasa izatea. Bestalde, **gizarte-larrialdietarako laguntzak** (GLL) jasotzen dituzten bizikidetzak unitateak gorabehera handirik gabe mantendu dira azken urteetan; **2022 urtean 1.000 biztanleko 7,81 bizikidetzak-unitate** izan ziren onuradun.

Hala ere, badaude **adierazleetan islatzen ez diren errealitateak**. Esate baterako, herrian bizi baina erroldarik ez duten etorkinak; ez dute inongo laguntza edo zerbitzuetarako eskubiderik. Izan ere, DSBE-n onuraduna izateko **3 urtez herrian**

**erroldatuta** egotea eskatzen da, eta GLL eskatzeko 6 hilabetez.

Horri gehituaz, orain arte existitzen ez ziren bestelako zaugarritasun egoera batzuk agertu dira azken urteetan: etxegabeak eta poligonoetako *loft*-etan bizi diren pertsonak, besteak beste.

Egoera horri aurre egiteko asmoz, Astigarragako Udalak azken promozioetan (2010-2023) **26 alokairu sozialeko etxebizitza, 183 babes ofizialekoak eta 120 tasatu** sustatu ditu. Eta, gizatalde zaugarriarentzat, **larrialdi egoerei aurre egiteko, eta, denbora mugatuan erabiltzeko 2 etxebizitza eta apaiz etxea** eskaintzen ditu, erretore etxearekin egindako hitzarmenari esker. Bertan, egun 3 etxebizitza daude, eta 4. egitea espero da. Horretaz gainera, **adineko pertsonentzat** babespeko 9 etxebizitza ditu.

# 2 GOSERIK EZ



## 2. GOSERIK EZ

Erreferentziako helmugak: 2.3., 2.4.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GHJ honek bilatzen duen helburua, guztiontzat elikagai nahikoak, osasuntsuak eta seguruak daudela bermatzea da, herritaren elikadura hobetzea eta elikagaiak eskala txikian eta tokiko ekoizpena sustatzea. Gainera, nekazaritza eta abeltzaintza produktibitatea hobetzea, eta jarduera horiek jasangarriagoak izan daitezen eta ekimen ekologikoetarantz bultzatzea.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Landa eremuen garapena.
- Ekoizpen ekologikoa Astigarragan.
- Bertako produktuen kontsumoaren sustapena.
- Elikadura osasuntsua, elikagarria eta nahikoa izan daitezen burutzen diren ekimenak.

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Lehen sektorearen BEGa	%	0,2	0,2	0,2	0,3		
Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria	ha				317		
Nekazaritzako azalera ekologikoa	ha	22,8	22,8	21,1	14,9	23,13	23,36
Abeltzaintzako azalera ekologikoa	ha	4,6	2,98	0	2,69	4,09	4,24

### Zein da udalerriaren ibilbidea?

Datuak erreparatuz, udalerriaren **lehen sektorearen Balio Erantsi Gordina %0,3-koa** zen 2020. urtean. Datu hau Beterrir-Buruntzako beste udalen antzekoa da (%0,29), baina Gipuzkoako Lurralde Historikoaren datua baina nabarmen

txikiagoa (%0,57). Astigarragako **enpresen %1,4 aritzen dira nekazaritzan**; eskualde mailan, berriz, eskualdeko **enpresen %1,1-ak**, (%13,8 industrian, %8,3 eraikuntzan eta %76,9 zerbitzuetan), eta lurraldearen

izaeran oso presente dago **sagardoaren mundua**.

**Ekologikoan** diharduten **nekazaritza eta abeltzaintza ustiategien** lur azalerari erreparatuz, nekazaritza ekologikoan azalera handitzen joan da, eta abeltzaintzan mantentzen ari da. Udalerriko **Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria 317 ha**-koa dela kontsideratuz (2020), eta, **23,36ha-ko** azalera dihardute **nekazaritza ekologikoan (%8,39a)**, eta 4,24ha abeltzaintza ekologikoan (%1,33).

**Jarduera ekologikoa**, ekoizpen sistema mota bat da, ustiapena ingurumena errespetatuz eta lurraren emankortasuna kontserbatuz egiten duena, sintesiko produktu kimikorik erabili gabe eta animalien ongizatea errespetatuta. Sistema honetan jarduteko, **hainbat baldintza bete behar dira**, eta kasu batzuetan, batez ere familia baserrietan, zaila izan daiteke ziurtagiri zehatzak lortzeko prozesua burutzea.

Udalerriko lehen sektorearen eta baserrien irudi erreala zein zen diagnostikatzea helburu, 2021. urtean Astigarragako **Baserritarren Txosten Sozioekonomikoa** burutu zuen Udalak. Bertan, **109 baserri** aztertu ziren, hauetatik 61-k baserri jarduera duten, eta 48 landetxeak diren. Jardunean ari direnak, **nekazaritza dute jarduera nagusi** (baratza 35 baserrietan eta sagastia 33tan), **26 baserrik abeltzaintzan** dihardute, **20 sagardotegiak** dira edo sagardoa egiten dute, **2 nekazalturismo** bilakatu dira eta, azkenik, **5 ostalaritza** guneak dira. Azpimarratzekoa da, **baserri-sagardotegiek** udalerriko **lehen sektorean eragin garrantzitsua** dutela, bai duten pisu ekonomikoagatik (egitura ekonomiko

handiena dute) baita inguruko baserriengan duten eraginagatik.

Jardunean dauden baserrien **%44ak autokontsumorako** ekoizten du, **%31a zuzeneko salmentan** aritzen da, **%15ak supermerkatu edo harakinei** saltzen dizkiete beraien produktuak, **%8ak bitartekarien bitartez** saltzen du eta **%2ak kontsumo taldeak** ditu salmenta kanal. **Salmenta kanalak** ondoen landuta eta bideratuta sagardogileek dituzte: zuzenekoa, bitartekari handi zein txiki, sare sozial, sagardo-etxe etab. Dibertsifikazio honek, kanal zehatz batekiko menpekotasuna ekidin eta salmenten kontrola areagotzen du.

Udalerrian, baserri jardunean dabilzan baserrien **%37ak soilik du jarraipena bermatua** (gehiengoak baserri-sagardotegiak dira), **%44ak**, berriz, **ez du ondorengotza ziurtasunik** eta **%19ak ez du jarraipenik**. **Nekazaritza ekologikoan** diharduten 5 baserrietatik, adibidez, **bakarrak du ondorengotza ziurtatua**, gainontzekoen jarraipena aldiz ez dago bermatzerik. Gainera, baserrietan bizi diren biztanleen **batez besteko adina 52** urtetan kokatzen da, eta kezagarria da gazteen kopuru eskasia, **belaunaldien arteko ondorengotza** da, beraz, erronka nagusienetako bat. Gainera, sektoreak orokorrean eraldaketa nabarmena behar du, teknologia berriak txertatzea, azpiegiturak hobetzea, langileak formatzea... **sektorearen profesionalizazioa** da gako nagusietako bat. Azkenik, nekazal lurretan **presio urbanistikoa** dago, lur emankorrenak erribera ondoan kokatzen dira, eta bertan, etxebizitzak eraiki dira.

Bestelakoa da **sagardotegietako** egoera, hauetatik **%90ak jarraipena** aurreikusten baitu. **Autokontsumorako nekazaritza** eta abeltzaintzaren dagokionez, epe labur eta ertainera begiratzuz, jarraipena ziurtatuta legoke.

Azkenik, tokiko ekoizpen jasangarria errespetatzen duten produktuen eskaria egon badago udalerrian, azken urteetan, sorturiko **kontsumo taldeak** edota astean hirutan egiten den bertako baserritarren produktuen **azoka** horren erakusle.

Honek argi uzten du, **nekazaritza eta abeltzantza** lan aukera **erakargarri** bihurtzearen eta **baserri bizitza duina** bermatzea ezinbestekoa dela **erreleboa ziurta dadin**. Honi erantzuteko asmoz,

**Astigarragako Udalak** herriko baserritarrei laguntzeko hainbat bide ditu. Alde batetik, 2014. urtean, **"Baserritarren Mahaia"** izeneko batzordea sortu zuen, eta bertan, herriko baserritarrak, Goldea eta Baratze elkarteak eta hainbat eragile elkartzen dira lehen sektoreari eta baserritarrei bultzada emateko asmoz.

Bestalde, **Behemendi** (*Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkarte*), eskualdeko Udaletxeetako ordezkariak, nekazal sindikatuetaoek eta kooperatiba eta baserritarren elkarteetako ordezkariak osaturiko elkarte da, eta bailarako nekazal eremuko zerbitzuak eskaintzen ditu, landa inguruko biztanleen beharrei erantzuna emanez.

2018. urtean Astigarragako Udalak, Behemendi Elkartearekin elkarlanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren **"Enplegu Berdea"** ekimenaren aterkipean, **baratzegintza profesional**ean jardun nahi zutenentzako deialdia zabaldu zuen. Ekimen honen bidez, udalaren lursail bat eskaintzen zen sektorean hasi nahi zutenentzat alokairu sinboliko baten truk. Horrez gain, Astigarragako udalak **lehen sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzak** ere ematen ditu: inbertsioetarako eta ustiategiaren hobekuntzarako, nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko, abereen bazka erosteko, albaitaritza zerbitzuetarako, eta nekazal produktuen kontsumoa bultzatzeko, hain zuzen.

Azkenik, Astigarragako udalak 2015. urtean 30 m<sup>2</sup>-ko **40 baratza** jarri zituen herritaren eskura, lau urteko kontzesioan. **Herri-baratza** hauek **nekazaritza ekologikoari bultzada emateaz gain**, herritaren arteko elkarbizitzarako, harremanak sustatzeko eta elkartrukerako **topagune ere badira**.

Ondorioz, lehenengo sektoreari dagokionez, **erronka nagusiak** honakoak dira: gazteak sektorerara erakartzea, lurren disonibilitatearen beharra, profesionalizazioa, produktuen merkatu balioa areagotu eta salmenta bide berriak ezartzea eta baserrien beharrei erantzungo dien zerbitzuak eskaintzea.

# 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA



## 3. OSASUNA ETA ONGIZATEA

Erreferentziazko helmugak: 3.4., 3.6., 3.7., 3.9.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH-ak pertsona guztien osasunean eta ongizatean eragin nahi du, horretarako zerbitzu egokiak eskainiz, bizi-ohitura eta bizi-estilo osasungarriak sustatuz eta osasunean inpaktua izan dezaketen eraginak kontrolatuz. Udalerrian behar desberdinak daude eta horren arabera edo egokitutako eskaintza ematea da helburua.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Gaixotasunak eta hauen prebentzio eta hobekuntzarako zerbitzu eta ekipamenduak.
- Bizi-estilo eta -ohitura osasuntsuak: osasunaren sustapena, adikzioen prebentzioa, jarduera fisikoa eta kirola, mugikortasun ohiturak.
- Mugikortasunaren hiri antolamendua.
- Ingurumen osasunak pertsonen osasunean duen eragina: airearen kalitatea eta zarata

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Emakumeen bizi-itxaropena	urte					86,2	
Gizonen bizi-itxaropena	urte					80,6	
Heriotza kopurua	Kop.	27	35	29	46	39	
Istripu kopurua	% bizt.	8,86	4,84	6,78	4,36		
Bidegorrien sarea	Km					3,8	4,1
Ibilgailu-parkea	Kop.	5.194	5.404	5.814	6.174	6.260	6.550
Automobil-parkea	Kop.	2.998	3.127	3.360	3.592	3.646	3.747
Moto-parkea	Kop.	840	892	1.019	1.097	1.104	1.203
Kamioi-parkea	Kop.	1.022	1.036	1.047	1.099	1.106	1.129
Autobus-parkea	Kop.	2	2	2	1	1	1
Traktore-industrial parkea	Kop.	27	30	49	39	38	43
Ibilgailu elektrikoen parkea	Kop./1000 bizt.	2,22	3,38	4,05	4,5	4,82	6,31

### Zein da udalerriaren ibilbidea?



**Osasuna eta ongizateari** dagokionez, hainbat faktore eta ikuspuntu hartu behar dira kontutan. Alde batetik, Astigarragako biztanleen **bizi-itxaropenaren** datua (**86,2** urte emakumeentzat eta **80,6 urte** gizonentzat) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren batz-bestekoaren oso antzekoa da (86,4 eta 81,1, hurrenez hurren).

Hiri-inguruneko osasunari dagokionez, **airearen kalitatea** da faktore garrantzitsuetako bat, baldintza meteorologiko konkretu batzuk kutsadura-iturriekin konbinatuz gero, airearen kalitatean eta ondorioz, giza-osasunean eragin zuzenak baititu. EAE-ko airearen kalitatearen neurketarako kontrol-sare bat dago, konkretuki, SO<sup>2</sup>, NO<sub>x</sub>, CO, PM<sub>10</sub>, PM<sub>2,5</sub> eta O<sub>3</sub> kutsatzaileak neurtzen dituen, lurraldean zehar banatutako estazioetan. Astigarragaren kasuan, gertuen kokatzen den estazioa Hernanikoa da. 2020. urtean argitaratutako azken txostenaren arabera, **kutsatzaileak baimendutako mugen barruan** mantendu dira. Beraz, udalerriko **airearen kalitatea egokia** dela ondorioztatu daiteke, eta honek giza-osasunean kalterik eragiten ez duela.

Bestalde, Astigarragako udalerria **Hernaniko Kanpoko Larrialdi plan bereziaren** barnean sartzen da, zeinak larrialdi egoeran martxan jarri beharreko neurriak definitzen dituen, besteak beste, Astigarragako bide konkretu batzuen mozketak.

Herritarren osasunean eragin zuzena duen beste faktore bat, **bizitza-estilo osasuntsu** eta aktiboa izatea da. Zentzu honetan, Astigarragako Udalak, "**Astigarraga aktiBATUZ**" sarea sortu zuen, non, herrian jarduera fisiko sustatzen duten eragile

guztiek parte-hartzen duten. Honen baitan, 2023. urteko martxotik, **Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Orientazio Zerbitzua (KOZ)** jarri da herritaren eskura: herritar inaktiboak edota ariketa fisiko gutxi egiten dutenak aktibatzeke eta jarduera fisikoa sustatzen laguntzeko, aditu baten laguntza eta aholkularitzaren bitartez. Gainera, adineko pertsoneri begira, **Ttipi-ttapa** ekimena ere eskaintzen da, astean behin begirale baten gidaritzapean taldean paseoak antolatzen dituztelarik.

**Kirol-instalakuntzei** eta zerbitzuei dagokionez, udalak hainbat **ekipamendu eta zerbitzu kudeatzen** ditu, besteak beste, kiroldegiko ikastaroak, erabilera libreko kaleko kirol ekipamenduak, kultur-etxeke eta Emakumeon Etxeko jarduera fisikoko ikastaroak, gimnasia pasiboa etab. Gaur egun, kiroldegiak **1955** pertsona ditu **abonatuta**, 54 ikastaro desberdin eskaintzen dira, 628 pertsona jasotzen dituztelarik (2023). Horrez gain, bestelako erabiltzaileak ere baditu: alde batetik, **eskola orduetan** adin desberdinetako ikasleek ariketa fisikoa egiten dute bertan, eta Lehen Hezkuntzako haurrek **eskola kirolaren** baitan ere (276 hour). Gainera, **kirol federatua** ere burutzen da bertan, Mundarro Kirol Elkartean (saskibaloia, eskubaloia, judoa...) guztira 500 pertsona inguru izanik.

**Herriko kirol-taldeekin** honako lana egiten da: lankidetzak hitzarmenak sinatu, diru-laguntzetarako irizpideak finkatu, kirol eskaintza bideratu eta gauzatzen lagundu, eta kiroldegia kudeatzen duten enpresen lana koordinatu. Gainera, **bestelako kirol-instalakuntzak** Txomiñenea eta Auzolan pilotalekuak, Zarkumendegiko futbol zelaia, eta idi-probetarako homologatutako probalekua dira.

Mugikortasunari dagokionez, **Astigarragako Hiri-Mugikortasun Jasangarriaren Plana** (HMJP) onartu zen 2021. urtean. Plan honen arabera, herri barruko mugimendu gehienak oinez egiten badira ere (bereziki Tranbia ibilbidea, Kale nagusia eta Santio Zeharra kaleetan), **lanarekin lotutako mugimenduen %5,3 eta %10,4 artean soilik** egiten dira **oinez**.

**Bizikletaz** egiten diren joan-etorriak **%1,1 eta %5,9** artean daude. Astigarragako etxebizitzan eta lanpostuen gehiengoa Santiagomendi eta Urumea arteko eremua lauan bizi da, eta apenas aldaparik gabe iris daiteke Donostia eta Hernanira. Udalerriko **bidegorri sarea** bide bereizian dago nagusiki, eta ongi konektatuta dago Donostiara eta Hernanira doazen bidegorriekin (Donostia-Beasain ardatz nagusia). Gainera, gaur egun, Donostiako Udalaren DBizi bizikleta-alokairu zerbitzuarekin bateragarria den sistema lantzen ari da Astigarragako Udala.


Bestalde, lanagatik egiten diren joan-etorrien **%7,8 eta %13,9 artean dira garraio publikoz**, Donostiara batez ere, gutxiago Hernanira, eta gehienak **autobus** bidez egiten dira. Gaur egun, ez dago tren zerbitzurik, nahiz eta Renferen aldiriak udalerritik pasatzen diren. 2026. urterako aurreikusita dago herrian geltokia eraikitzea.

Azkenik, 2018. urtean egin zen **Mugikortasun Diagnosiak**, eta 2021eko **HMJP**-aren arabera, ondorengoak dira Astigarragan mugikortasun arloko ondorio nagusiak:

- **Herri barruko** mugimenduetan gehiengoa **oinez** mugitzen da (batez ere, erdigunera eta polikiroldegira) eta herritik **kanporakoetan kotxez**. Emakumeek gizonak baino sarriago erabiltzen dute garraio publikoa, eta gehiago joaten dira osasun zentrorra eta erdigunera. Beraz, hemen ere, **generoen arteko bereizketa** nabarmena ikusten da.
- Herriko **poligonoetara** joateko ohiturei dagokionez, HMJP-aren arabera, Astigarragako poligonoetako langileen joan-etorrien **hiru laurden egiten dira kotxez**.
- Mugikortasunaren esparruan herritarren artean asko nabarmentzen da **garraio publikoa hobetzearen** beharra. Zehazki, maiztasuna areagotzea, tren geltokia egitea eta zerbitzu gehiago eskaintzea.



Irudia 1. Joan-etorrien bisualizazioa Iturria: HMJP, 2021



Azken urteetan Astigarragak jasan duen biztanleen gorakadarekin, **egungo osasun-zentroa txiki geratzea** ekarri du, eta herritarrek bereziki nabarmentzen duten erronketako bat da. Hori dela eta, Osakidetzarekin lankidetzan **osasun-zentro berri** bat eraikitzeko proiektua gauzatzen ari dira, 2027-2028 urterako eginda egotea espero dena.

# 4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



## 4. KALITATEZKO HEZKUNTZA

Erreferentziazko helmugak: 4.2., 4.3., 4.4., 4.5., 4.6., 4.7.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH honetan pertsona guztiei doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa den hezkuntza formala eta ez-formalerako aukerak bermatzea da helburu nagusia.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Udalerrian dagoen hezkuntza eskaintza orokorra eta mailaren araberako eskaintza.
- Herritarren hezkuntza-maila
- Hezkuntza ez formaleko udal baliabide eta zerbitzuak

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Haur Hezkuntzako ikasleak</b>	<i>Kop.</i>	262	273	301	303	298	302
HH 2	<i>Kop</i>	65	83	90	65	64	78
HH 3	<i>Kop</i>	63	66	78	91	67	67
HH 4	<i>Kop</i>	65	62	68	79	88	65
HH 5	<i>Kop</i>	69	62	65	68	79	92
<b>Lehen Hezkuntzako ikasleak</b>	<i>Kop.</i>	315	334	337	355	383	404
LH 1	<i>Kop</i>	55	67	62	64	68	78
LH 2	<i>Kop</i>	62	53	69	63	67	71
LH 3	<i>Kop</i>	52	64	54	68	64	68
LH 4	<i>Kop</i>	49	49	62	54	67	66
LH 5	<i>Kop</i>	52	47	47	60	55	66
LH 6	<i>Kop</i>	45	54	43	46	62	55
<b>Bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonak</b>	%	67,67	64,65	67,37	69,61	70,93	
BH ikasketak gainditu dituzten emakumeak	%	68,46	65,75	68,33	70,2		
BH ikasketak gainditu dituzten gizonak	%	66,89	63,55	66,4	69,02		

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten pertsonak</b>	%	23,17	22,6	23,88	25,43	25,66	
Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten emakumeak	%	28,05	27,44	28,71	30,75		
Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten gizonak	%	18,28	17,74	19,07	20,22		

## Zein da udalerrriaren ibilbidea?

Azken urteetako **biztanleriaren bilakaerak** eta egitura demografikoak, eta Donostiarekin historikoki izandako harremanak eta hurbiltasunak eragindako testuinguruak neurri handi batean udalerriko **hezkuntza behar eta eskaintza baldintzatu** du.

Hezkuntza azpiegitura eta ekipamenduen eskumena Udalarena ez bada ere, zeresan handia dauka ekipamendu horiek gauzatzeko bidean. Hori dela eta, Hezkuntza Sailarekin batera Udalak **Herri eskola handitzeko proiektua** landu du. Lanketa horren ondorioz, 2023 urteko abuztuan Herri Eskola handitzeko 1. faseko obrak burutzen hasi da Hezkuntza Saila, gaur egungo eremuan bertan. Proiektuak bi fase ditu. Lehendabiziko fasearen exekuzio proiektua Udalak idatzi du eta bigarrena Hezkuntza Sailak. Ondorioz, legegintzaldi honetan Udalaren helburua da 1. fasea amaitu eta bigarrena bideratzea.

Gainera, 2022. urtean 0-2 urte arteko **Haur Hezkuntzako plaza kopurua** handitu du (herriaren hazkunderari eta jaiotza-tasaren bilakaerari erantzuna emateko), eta Kiriketa Haurreskola egun duen **lokalera lekualdatu** zen, zentroko hezitzaileekin

batera Haurreskola berriaren diseinua lantzeko egindako prozesu baten ondoren.

Gaur egun, **ez dago bigarren hezkuntzako ikastetxerik** herrian (Astigarraga da 5.000 biztanlez gorako udalerrian artean, DBH eskaintzen duen ikastetxerik ez duen Gipuzkoako udalerririk bakarra). Udalak 2019. urtean **Astigarragako diagnostiko demografikoa eta Herri-Eskolaren eskariaren proiektioaren** inguruko ikerketa burutu zuen. **2019-2020** ikasturtean Herri Eskolak guztira **635 ikasle** izan zituen, 301 haur hezkuntzan, eta 334 lehen hezkuntzan, 2014 urtetik 2020 urtera **%17,8ko igoera** izan duelarik. Gainera, bertan azaltzen da ere Astigarragako biztanlegoaren **%20 inguru 15 urtetik beherakoa** dela. Eta horrek, zalantzarik gabe, DBH-ko eraikin berri baten beharra islatzen du.

Horretaz gainera, **2030 ikusmugan jaiotze prospekzio** bat burutzen da eta horretan oinarrituaz arrazoitzen da hezkuntza eskaintza hori bideratzearen beharra. Ildo horretan, 2019-2023 epealdian urrats erabakigarriak egin dira Udalaren aldetik (hiritartze lanak eta orubearen lagapena) eta datozen urteetan hori guztia burutzea da helburua, hala nola, DBH-ko ikastetxearen proiektuari behin betiko

bultzada ematea eta ikastetxea eraikitzea. Aurreikuspenen arabera, exekuzio proiektua 2024 urteko lehen seihilekoan idatzita egongo da, ondoren obrak esleitzeko lehiaketa egingo da eta obrak 2025. urtean zehar has daitezke. Horren arabera, **ikastetxea 2027 urtean amaituko** litzateke.

Bestalde, Astigartarren **hezkuntza-mailari** eta herrian eskuragarri dauden **hezkuntza baliabideei erreparatzen** badiegu, ikusi dezakegu, orokorrean Astigarraga ikasketak maila altuko herria dela. 2021. urtean herritarren %70 inguruk **bigarren hezkuntzako** ikasketak zituen, eta %25 inguruk **unibertsitate**-ikasketak.

Hezkuntza **ez formaleko baliabideei** dagokionez, Norberto Almandoz Musika eskola eta AEK daude. Astigarragako **Norberto Almandoz Musika Eskola** 1994. urtean jarri zen martxan herriko talde baten ekimenez eta Udalaren parte-hartze eta laguntzarekin, eta irabazi asmorik gabeko elkarte batek eratuta eta kudeatuta. Bere hastapenetan NAME-k 48 ikasle eta 4 irakasle zituen. Urteen poderioz, eskolak hazkunde nabarmena izan du ikasle, irakasle eta irakasgai-kopuruari dagokionez, eta gaur egun 360 bat ikasle, 13 irakasle eta musika-tresna eta irakasgai-aukera handia izatera heldu da (kitarra klasiko eta elektrikoa, baxua, , pianoa, biolina...) eta adin tarte desberdinetarako musika ikastaroak eskaintzen ditu.

Bestalde, **AEK-k**, euskaren normalizazio eta irakaskuntzan dihardu Astigarragan.

Helburu horrekin, hainbat taldekako eta autoikaskuntzako ikastaro ditu. Orotara, 2023-2024 ikasturtean 96 ikaslerekin ari da lanean.

Gaibera, **hezkuntza eragile pribatuak** ere badaude herrian, besteak beste, Ametsa Haur Eskola, Hautzendegia, London School of English, Eingou Akademia etab.

Hezkuntza formalaz gain, Udalak **hezkuntza programa** desberdinak sustatzen ditu herriko ikastetxeetan, besteak beste, **Eskolako 2030 Agenda**, ikasleek garapen jasangarriaren inguruan sentsibilizatzeko programa.

Azkenik, **Santiagomendiko Natur Eskola eta Aterpetxea** ere badago udalerrian, kultur aurrerapenaren adierazpen gisa sortu zen, gizarteak ingurugiroaren arazoarekiko, eta aisialdirako alternatiba gisa natura ezagutze eta gozatzearekiko duen sentsibilizazioan erantzuna eta laguntza izan nahirik. XIII. mendeko Santiago basilizaren ondoan dago kokatuta, izen bereko mendiaren gailurrean, hirigunetik 2,5 km-tara. **Natur eskola gisa**, ikasturteko astegunetan LH zein DBHko ikasleei zuzenduta dago, bertako hezitzaileen zuzendaritzapean hainbat tailer eta ikastaro egiteko aukera dute. **Aterpetxe** gisa, bereziki asteburuetan eta oporraldietan erabil liteke, kirol bilkurak, barnetegiak, ikastaroak, jardunaldiak eta abar egiteko, baina edozein jardueretarako aloka liteke, baita lagun-taldeek ere.

**5** GENERO  
BERDINTASUNA



## 5. GENERO BERDINTASUNA

Erreferentziazko helmugak: 5.1., 5.2., 5.4., 5.5.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH honek emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria mota guztien amaiera lortzeko lan eginez emakume guztiak maila pertsonal eta kolektiboan ahalduntzea du helburu nagusi, berdintasun politiken garapena eta baita eragile guztien inplikazioa sustatuz.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Gobernu ona: udal barrura begirako jarduerak. Genero ikuspegia txertatzea lan prozedura, kontratu eta dirulaguntzetan.
- Emakumeen ahalduntzea
- Gizarte antolaketa berdinzalea: Emakumeen egoera sozioekonomikoaren azterketa, abiapuntua zein den ezagutzeko, zaintza erdigunean jarriko duen gizarte erantzunkidea sustatzea, hezkidetzaren balioak zabaltzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria eta udalak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Emakumeen eta gizonen arteko errenta pertsonalaren arrakala	€	9.322	10.115	10.049	9.877	9.888	-
Emakumeen eta gizonen arteko langabezia tasaren arrakala	[%giz. - %emak.]	3,31	3,34	3,08	2,32	2,87	2,51
Emakumeen eta gizonen arteko jarduera tasaren arrakala	[%giz. - %emak.]	-	-	-	1,32	2,58	-
Emakume eta gizon gazteen (<25 urte) arteko langabeen arteko arrakala	[%giz. - %emak.]	-0,74	-4,1	-5,42	-6,31	-1,09	-3,23
Bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten emakume eta gizonen arteko arrakala	[%giz. - %emak.]	-1,57	-2,2	-1,93	-1,18	-	-
Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten emakume eta gizonen arteko arrakala	[%giz. - %emak.]	-9,77	-9,7	-9,64	-10,53	-	-



## Zein da udalerraren ibilbidea?

Herriko emakumeen **egoera sozioekonomikoa aztertzeko**, hainbat daturi erreparatu behar diegu.

Lehenik eta behin, emakume eta gizonen arteko **errenta pertsonalaren arrakala** nabarmena da, **2020 urtean 9.877€-ko** aldean kokatzen zelarik, nahiz eta azken urteetan beheranzko joera duela ematen duen. **Langabeziaren ehunekoei** dagokionez, beheko taulan ikusi daitekeen bezala, 2023. urtean emakume langabeen portzentaia ( %66,08), gizonezkoenaren ( % 33,98 ) **ia bikoitza** da.

Bestalde, **jarduera-tasari** erreparatzen badiogu, hau da, lan egiteko ezaugarriak betetzen dituen biztanlegoaren ehunekoari, emakume eta gizonen arteko **arrakala 2020 urtean 2,58 puntutan** kokatzen da. Gainera, adinaren arabera langabetu kopuruari dagokionez, argi ikusi dezakegu urteko hazkunde altuena 25-44 urte arteko emakumeek pairatzen dutela, hain justu, amatasuna eta hazkuntzarekin bat datorren adin tartea.

	Balioa	Urteko hazkundera (%)
<b>Langabetuak guztira</b>	<b>227</b>	<b>1,8</b>
Gizonak	77	-12,5
Emakumeak	150	11,1
<b>Adinaren arabera langabezia</b>		
<b>25 urtetik behera</b>	<b>12</b>	<b>-20</b>
Gizonak	5	-28,6
Emakumeak	7	-12,5
<b>25-44 urte</b>	<b>93</b>	<b>8,1</b>
Gizonak	33	-2,9
Emakumeak	60	15,4
<b>45 urtetik gora</b>	<b>122</b>	<b>0</b>
Gizonak	39	-17
Emakumeak	83	10,7

Taula 2 Langabetuen banaketa adin eta generoaren arabera Iturria: Garapen

Hala eta guztiz ere, EAE eta Gipuzkoa osoan gertatzen den bezala, emakume eta gizonak daukaten **hezkuntza-maila** behatzen badugu, **bigarren hezkuntzako ikasketak** burutu dituzten eta **unibertsitate-ikasketak** dituzten emakume kopurua betiere **altuagoa** da, batez ere unibertsitatearen kasuan, 2020. urtean **10,53 puntuko** aldearekin. Beraz, Astigarragan ere, orokorrean emakumeak formatuagoak daude baina, orokorrean, lan-baldintza prekarioagoak dituzte.

Bestalde, Astigarragako datu zehatzak ez dauden arren, Gipuzkoa mailan, 2018. urtean, emakumeek gizonak baino 1h11min gehiago ematen zituzten egunean **etxeko lanetan**, eta 38 minutu gehiago **zaintza lanetan** (Eustat, 2018).

Honi aurre egiteko, Astigarragako Udala, Berdintasun Saitetik bereziki eta beste sailekin zehar-lerrokatuta, **berdintasun politiketan lanean** dabil azken urteotan. Ibilbide horretan lau printzipio gidari nagusi hartu ditu aintzat Udalak: **paradigma feminista** (emakumeen eta gizonen berdintasun ezak eta diskriminazioak nola eta zergatik sortzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politiko modura), **genero ikuspegia** (sistematikoki kontuan izatea gizonak eta emakumeak behar eta interes ezberdinak dituztela), **interseksionalitatea** (beren aniztasunean, emakumeak ere desberdinak dira beren artean, generoa eta beste desberdinkeria- eta diskriminazio-iturri batzuekin - hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazio eta genero-identitatea, adina, dibertsitate funtzionala eta abar elkarrekotasunean erlazionatzeko duten

moduaren arabera) eta **emakumeen ahalduntzea** (indibidualki eta kolektibo gisa).

2019ko maiatzaren 8an Udalak **"Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimodua izan behar duten berdintasunerako Europako Gutuna"** sinatu zuen. Urte berean, **Berdintasunerako II. planaren** ebaluazioa eta diagnostikoaren berritzea burutu zen, eta **Berdintasunerako III. plana** (2020-2023) diseinatu.

**A** \*berdintasuna

Une honetan, **A\* Nahi dugun Astigarragarantz** prozesuaren baitan, Berdintasunerako III.

planaren ebaluazioa, egungo diagnostikoa eta aurrera begirako erronkak identifikatu dira eta **Berdintasunerako Plana 2030 diseinatu da.**

Berdintasunerako politikak **lau ardatz nagusiren bueltan landu** dira azken urteotan eta ardatz horiek erabili dira aipatutako **Berdintasunerako Plana 2030** diseinatzean, erronkak eta ekintzak antolatzeko:

**Lehen ardatza: Gobernu ona**

**Genero-ikuspegia jarduketa publikoan** txertatzea da xedea (emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan). **Udal barrura begirako jarduketa** da, lan-prozeduretan, dirulaguntza edo kontratuetan genero-ikuspegia txertatzea da gakoa.

Ardatz honetan landu den ekintza esanguratsuetako bat izan da, **dirulaguntzen ordenantza berritzea** eta

lehia bidezko dirulaguntzetan **%10eko pisua hartu dute berdintasun irizpideek.** Bestalde, **hizkuntzaren erabilera ez sexistan lanean** dihardute. 2017. urtean hizkuntzaren erabilerari buruzko berriazko lanketa egin zen, zera ulertuta: desberdintasun harremanak hizkuntzaren erabileran islatzen badira, hizkuntzaren erabilera aldatuta, hau da, hizkuntza era inklusiboan erabilia, harreman mota hauek eta horiei lotutako imajinarioa aldatuko dugula. Hizkuntzan aldaketak egitea errealitateaz dugun kontzepzioan eragin dezake eta, ondorioz, errealitatea bera aldatu. Astigarragako Udalean **hizkuntzaren erabilera ez sexista sustatzeko prozesu formatibo-partehartzailea** egin zen langile guztiekin erabilgarriak izango ziren materialak denon artean sortuta.

**Bigarren ardatza: Emakumeen ahalduntzea**

Emakumeen ahalduntze **pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa** sustatzea eta emakumeek egindako ekarpenak aitortzea eta horiei ikusgarritasuna ematea da helburua.

Arlo honetan hainbat ekintza gauzatu dira: adibidez, 2018. urtean **herritarrekin partaidetza** prozesua egin zen **Emakumeon plaza** eraberritzeko proiektu urbanistikoa eztabaidatu eta plazaren ezaugarriak erabakitzeko, eta mural bat margotu zen modu kolektiboan. 2021. urtean ireki zen **Emakumeon Etxea**. Egun, herriko elkarte batek Udalarekin kogestioan kudeatzen du eta bertan, emakumeen ahalduntzerako ekimenak, tailerrak, erakusketak, proiektuak, eta abar antolatzen dira. 2018. eta 2019. urteko greba feministek herrian mugimendu feminista aktibatu zuten arren, une honetan **mugimendu feministak**

**beherakada** izan du eta Emakumeon Etxea, emakumeen topagune izanik, emakumeak **saretzeko eta mugimendua indartzeko baliabide egokia** izan daiteke.

Bestalde, **Harituz Elkarrekin**, 2012. urtean sortua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean diharduena; beste ekimen batzuen artean, **“Matzak”** proiektua burutu du eta indarkeria sexistari buruz sentsibilizatzeko jardunaldiak edo josteko topaketak antolatzen ditu.

Astigarragako **emakumeen memoria historikoa** berreskuratu, balioan jarri eta herritarren eskura jartzeko xedearekin Udalak 2020. urtetik **hiru ikerketa-beka deialdi** argiratu ditu. Astigarragako emakumeek herriko bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta politikoari eginiko ekarpenak jaso eta balioan jarri nahi dira. Aurten argitaratu da lehen beka deialdiaren emaitza den liburua, **“Astigarragako emakumeen historia hurbila, gorputz-praktiken bidez azaldua”** izenburupean eta Amets Castrejana bekadunak idatzia.

#### **Hirugarren ardatza: Gizarte antolaketa berdinzalea eta jasangarria**

Ardatz honetako helburu nagusiak dira: **emakumeen langabezia-tasa murriztea** eta **enplegu duina** sustatzea, **zaintza erdigunean** jarriko duen gizarte erantzunkidea sustatzea eta herritarrak hezten jarraitzea, hezkidetzaren balioak biztanleriaren artean zabalduz.

Arlo honetan **zaintzari buruzko ikerketa** egin zen Covid garaian eta paraleloan **herriko komertzioetan emakumeen egoera** aztertzeke beste ikerketa bat ere.

Gizarte berdinzaleago bat eraikitzeke haur eta nerabeentzat **sexu heziketa saioak eman ohi dira ikasturtero**, Astigarragako Herri Eskolako ikasleei eta Arantzazuko Ama Institutoko, tutoreei eta gurasoei zuzendutako berdinen arteko bizikidetzak eta harreman afektibo-sexual osasuntsu eta parekideak lantzeko. Horrez gain, Gaztelekuan 12-16 urteko erabiltzaileei zuzendutako tailerrak izaten dituzte eta nerabeek harreman afektibo sexualei buruzko zalantzak eta kezkek argitu ditzakete bertan. Azken urteotan 16 urtetik gorako herritarrei zuzendutako **sexu aholkularitza doako zerbitzua** eskaini izan da ikasturtean zehar.

Gainera, urtero **Emakumeak eta Kirola** kanpaina antolatzen dute Kirol Sailak eta Berdintasun Sailak elkarlanean, herriko emakume kirolariei ikusgarritasuna emateko eta emakumeen artean kirola sustatzeko asmoz.

#### **Laugarren ardatza: Indarkeria matxista gabeko herria**


**Indarkeriaren prebentziorako eta sentsibilizaziorako** hainbat ekintza antolatu izan dira. Esate baterako, **Santio Jaietan** eta **Txotx garaian indarkeria matxisten aurkako kanpainak** antolatu ohi dira herriko eragileekin elkarlanean: herritarren esku jartzen dira karpa morea (erasoak artatzeko sentsibilizaziorako gunegurua) edo brigada morea (elkarrekin etxera itzultzeko brigada) eta tabernariekin eta udaltzainekin erasoen aurrean nola jokatu behar den landu izan da.

Espazio seguruei dagokienez, 2016. urtean **Astigarragan Mapa Morea** prozesu parte-hartzaile eta formatiboa egin zen herria genero ikuspegitik aztertzeke eta

indarguneak eta ahulguneak herritarrekin batera ezagutzeko. Mapa batean islatu ziren jasotakoak, leku bakoitzaren ezaugarriak zehaztuta eta Udalak horiek konpontzeko edo hobetzeko neurriak hartuz doa urtez-urte. Proiektuarekin egindako lanari jarraituz Astigarragako Udalak hirigintza genero ikuspegitik lantzeko konpromisoa indartu du eta, Hirigintza, Obrak eta zerbitzuak eta Berdintasun sailek lan komun bat abiatu zuten 2019. urtean, **hirigintza ordenantza genero ikuspegitik** lantzeko, ondoren, Plan Orokorrean txertatuko dena. Prozesuan talde teknikoaz gain, ordezkari politikoez eta herritarrek ere parte hartu zuten, izaera parte-hartzailea izateaz gain, izaera formatiboa ere izan zuelarik.

2019. urtean **eraso matxisten aurrean jarduteko eta erantzuteko tokiko protokoloa** onartu zen, eraso baten aurrean inplikaturakoen arteko

koordinazioa eta arreta hobetzeko asmoz. Euskal Herrian erailketaren bat edo herrian erasoren bat dagoenean Astigarragak egoera horri erantzun publikoa emateko, Udalak eraso edo erailketa gaitzesteko adierazpen instituzionala argitaratzen du eta Emakumeon Etxeak elkarretaratzea antolatzen du.



*Irudia 2. Astigarragako Mapa More  
Iturria: Astigarragako Udala*

**6** UR GARBIA ETA  
SANEAMENDUA



## 6. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Erreferentziazko helmugak: 6.1., 6.2., 6.3., 6.4., 6.5., 6.6.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJHk ur horniduran (eskuragarritasun unibertsala eta bidezkoa) eta saneamenduan eragin nahi du, kutsadura eta tratatu gabeko hondakin-uren ehunekoa murriztuz; kudeaketa integratua; ekosistema urtarrak babestea; eta tokiko komunitateek uraren kudeaketa eta saneamendua hobetzen parte hartzea.

Horretarako ondorengo alorrak lantzen dira:

- Ur hornidura eta ur edangarria
- Ur kontsumoa
- Ur saneamendua eta higiene zerbitzuak
- Ur ekosistemak

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Etxeko ur kontsumoa, biztanle eta egun bakoitzeko	litro/bizt /egun	172,7	159,5	167,8	113,6	166,4	118,9	118
Kontrolik gabeko ur kontsumoak eta galerak	%	%40	%46	%38	%33	%19	%43	%34
Kontsumorako uraren osasun arloko kalifikazioa (1etik 3ra)	-	3	3	3	3	3	3	

### Zein da udalerraren ibilbidea?

Astigarragako udala **Añarbeko Uren Mankomunitatearen** barne kokatzen da, eta beraz, uraren goi-hornikuntza eta banatze zerbitzua mankomunitateari dagokio. Ur edangarria Astigarragatik 20 km ingurura kokatutako **Añarbe** urtegitik dator, eta azken urteetako kontsumorako **uren kalifikazioa ona** izan da beti.

Kontsumoari dagokionez, **biztanleko 118 litro kontsumitzen dira egunero**, azken urteetan beheranzko joera duen datua da, eta Beterri Buruntzako Udalen batz bestekoaren bat azpitik (170,91 L/biztanle/egun).

Alde batetik, **ur-hornikuntzari** (beheko sarea) dagokionez, **kudeaketa aktiboa** egiten da. Funtsean, ur kontsumoa eta ur

galeren murrizketa ditu helburu Udalak. Horretarako, besteak beste, , ur- **kontagailuak berritu eta digitalizatu** dira. Hurrengo pausoa alor honetan kontadore horietako datuak udaletik denbora errealean jaso ahal izateko teknologia txertatzea izango da.

Bestetik, **ur-saneamenduari** dagokionez, saneamendu sarearen kontsumoaren kudeaketa aktiboa egiten da. Horretarako, sareen inbentarioa egin, eta sare bereizlea eta unitarioen azterketak egiten dira, akatsak zuzenean atzeman eta konponketak bideratu ahal izateko. Horretaz gainera, urtean behin **estolderiaren garbiketa** kanpaina bat egiten da.

Bestalde, gaur egun, udalerriko sarearen %80 inguruk ditu **euri-urak eta ur-beltzak bereizita**, eta oraindik falta diren eremuak pixkanaka egokitzen ari da Udala.

Gainera, Añarberekin batera, landa-eremuan kokatutako etxebizitza zein jarduera ekonomikoen saneamendua aldatzen ari dira, gaur egun, gehienek *fosa septikoak* baitituzte, eta hauen kontrola egiteko eskumen mugatuak ditu udalak. Konkretuki, datozen urteetan (2023-2025) **sagardotegi zeharreko saneamenduko** obrak burutzeko aurreikuspena dago.

Zentzu honetan, Astigarraga eta Hernaniko udalek **hitzarmen bat dute sinatuta** ur-saneamendurako egokitzapenen obrak bi administrazioen artean egiteko.

Horrez gain, *Next Generation* funtsekin lagundutako **PERTE** egitasmoan parte hartzen ari da Astigarragako Udala, 2024. urtean hasiko dena. Honi esker, alde batetik, **estolderia, argiteria eta uraren**

**inbentarioan sakondu eta GIS batean ikusi** ahal izango da. Bestetik, ur-hornidura , estolderia eta argiteriaren inguruan simulazioak egitea ahalbidetuko da. Azkenik, kaudimetroek ematen dituzten datuak etxeetako kontsumo datuekin alderatzea ahalbidetuko da.

Gainera, **Urumea ibaiaren garbiketa** periodikoak egiten dira ere, bi hilabetero, 2023. urteko 6 garbiketetan guztira **3.019,61 kg hondakin bildu** zirelarik (2022 urtean 3.831,93 kg). Gainera, noizean behin herriko **biztanleekin auzolanak** egiten dira, sentsibilizazioa eta ingurumen hezkuntzan sakonduz. Azken urtean, ibai-ertzetan *maila* bat ezarri da alboetan geratzen diren hondakinak harrapatu eta jasotzeko.

Urumea Ibaian erreka bisoi europarra eta ur satorrarentzako **interes bereziko eremuak** daude, eta beraz, ezinbestekoa da ibai bazterreko haltzadiak eta ekosistemen kontserbazioa bermatzea.

# 7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZKUTSAGARRIA





## 7. ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSAGARRIA

Erreferentziazko helmugak: 7.1., 7.2., 7.3.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH honek egungo energia eredua aldatu nahi du, pertsona guztien energia eskuragarri, fidagarri, modernoa eta efizientea izan dezaten, baita energia berriztagarrien bidezko energia ere.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Energia kontsumoa sektore desberdinetan
- Eraginkortasun energetikoa
- Energia berriztagarriak
- Pobrezia energetikoa eta energiarako sarbidea


### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Udalerriko energia-kontsumo osoa</b>	<i>mWh</i>	101.878	100.824	102.468	100.464	109.209	
<b>Energia elektrikoaren etxeko kontsumoa, biztanle eta urte bakoitzeko</b>	<i>kWh/bizt /urte</i>	1177,06	1182,08	1191,48	1170,26	1113,98	1049,09
<b>Etxeko sektoreko energia-kontsumoa</b>	%	17,67	17,31	16,98	16,59	16,92	
<b>Industria sektoreko energia-kontsumoa</b>	<i>Kwh/bizt.</i>	669,65	667,13	655,43	597,64		661,89
<b>Zerbitzuen sektoreko energia-kontsumoa</b>	%	23,1	23,6	22,4	21,31	19,98	
<b>Tokiko administrazioaren energia-kontsumo osoa</b>	<i>MWh</i>	1.495	1.565	1.524	1.554	1.772	
<b>Energia-kontsumoa argiteria publikoan</b>	<i>kWh/bizt /urte</i>	250	260	250	230	240	

## Zein da udalerrriaren ibilbidea?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Udalaren ibilgailuen energia-kontsumoa</b>	kWh/bizt /urte						
<b>Energia berriztagarrien ekoizpena</b>	kWh/bizt /urte	359,06	357,18	352,9	327,6	359,14	357,05
<b>Eraginkortasun energetikoa etxebizitza eta eraikinetan</b>	%	43,39	48,29	53,71	55,54	55,45	51,37
<b>Instalatutako potentzia fotovoltaikoa (kw/10.000 biztanle)</b>	kw/10.000 bizt.	73,94	155,93	159,91	156,85	594,81	80,99
<b>Instalatutako potentzia eolikoa (kw/10.000 biztanle)</b>	kw/10.000 bizt.	15,31	14,23	14,23	13,92	13,72	15,94
<b>Instalatutako eguzki-azalera termikoa (m<sup>2</sup>/10.000 biztanle)</b>	kw/10.000 bizt.	339,87	315,83	315,83	308,98	304,61	862,56

Astigarragako energia kontsumo totalaren bilakaera sektoreka



Irudia 3. Energia kontsumoa sektoreka  
Iturria: Klima eta Energia Plana, 2022

Aprobatu berri den **Klima eta Energia Planean** jasotzen dira udaleko energiari dagozkion diagnostiko eta etorkizuneko lan-ildo nagusiak, 4/2019 Legeari eta aprobatazke dagoen Klima-Aldaketaren Aurkako Legeari erantzuna emanez.

Alde batetik, udalerriko **energiaren kontsumoaren** gorakada ikusi dezakegu azken urteetan. Aipatzekoa da **garraio sektoreak kontsumoen erdia** baino gehiago suposatzen duela urtero (%57, 2019an), ondoren zerbitzuen sektorea, bizitegiarena eta azkenik industriarena. Gipuzkoa zein EAE mailan, orokorrean, datu antzekoak egon ohi dira.

Energia iturriei erreparatzen badiegu, **erregai likidoak** dira gehien kontsumitzen direnak (%57), ondoren, elektrizitatea (kontsumoaren %28) eta gas naturala (%15). Energia egitura honek **erregai fosiletako erabilera handia** ekartzen du, baita energia hornikuntzarako kanpoko menpekotasun handia ere.

**Bizitegi-tako elektrizitatearen kontsumoari** erreparatuz, 2020 urterako 1,17 MWh-koa izan zen biztanleko. Astigartar bakoitzak kontsumitzen duen energia elektrikoak **beheranzko joera** erakusten du eta Erkidegoko batez bestekoaren azpitik kokatzen dela azpimarratu behar da, nahiz eta urtero udalerriko etxebizitzetan kontsumitzen den zenbateko absolutuak gora egin.

Astigarragan **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria 1.570 etxebizitzek** dute (2020), beraz, udalerrian dauden etxebizitzek % **47ak** gutxi gorabehera. Ziurtagiria duten etxebizitza horien %56ak A, B edo C kalifikaziodun ziurtagiria dauka, zeina erkidegoko 2019ko batez besteko datuaren (%8) oso gainetik kokatzen den. Aipatu behar da, urte hauetan zehar herrian etxebizitza asko eraiki direla, eta etxebizitza horiek baldintza termikoak arautzen dituen araudiaren arabera egin direla.

Udalerriak **energia berriztagarrietatik** eratorritako **ekoizpen** txiki bat badauka, 2.186 MWh-koa (2020), nahiz eta udalerriko bizitegi, zerbitu eta industriak kontsumitzen duen energiaren %5,2a soilik suposatzen duen azken urteetan, goranzko joera erakusten du. Energia honen %**87a biomasatik dator, %8a eguzki-energia termikotik, %5 fotovoltaiкотik eta %1a mini-eolikotik** (2020). Instalazio hauen bidez sortutako energia berriztagarria biztanleko aztertuz, EAEko batez bestekoaren oso azpitik kokatzen da, izan ere Astigartar bakoitzeko 0,36 MWh izan ziren 2018an eta urte bererako Erkidegoko biztanle bakoitzeko 2,45 MWh.

**Udalaren kasuan**, energiaren kontsumoen kudeaketa eta analisis software espezifiko baten bitartez egiten da, 2019. urtean instalatutakoa. Udalaren kontsumoa udalerriko kontsumo osoaren %**1a da soilik** (2019), baina garrantzitsua da

kontsumo hau baxu mantentzea, **administrazioa eredugarria** izan behar delako eta gastu publikoa aurrezteko suposatu dezakeelako, udal eraikinen eta argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetuz gero. Udaletxean 2021. urtean kontsumitutako energia (udal argiteria eta eraikinak kontutan izanik) **1.772 MWh** izan da, azken urteetan gorakada atzematen delarik (gehienbat, biztanleriaren igoeraren eraginez).

Udalak azken urteetan argiteria publikoan egindako aldaketek eraginez, (urte amaierarako %75 inguruk dagoeneko kontsumo baxuko LED bonbilak izatea espero da), **kale-argiteriaren kontsumoa nabarmenki murriztea** lortu da azken urteetan. Bestalde, **udal eraikinen kontsumoak goranzko** joera erakusten du, seguraski, Erriberako Kulturgunea irekieraren (nahiz eta eraikin honetan energia kudeaketa adimendua ezarri den), Herri Eskolako handitze lanen, eta pandemia egoeratik eskoletan hartu beharreko neurrien eraginez.

Azkenik, udal eraikinetan instalakuntza fotovoltaikoa sustatzea helburu du Udalak. Dagoeneko Kultur Etxe zaharra, Erribera Kultur-gunean eta Kiroldegian ezarrita daude, eta datozen urteetan beste udal eraikin batzuetan ere instalakuntza fotovoltaikoa egitea aurreikusten da: Herri Eskolan, Santiagomendi Aterpean Udaletxean eta Zakurmendegin.

# 8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



## 8. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Erreferentziazko helmugak: 8.1., 8.2., 8.3., 8.4., 8.5., 8.6., 8.9.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH-ak lehenasunezko gai hauek biltzen ditu: enplegu osoa eta produktiboa, eta lan duina sustatzea emakume eta gizon guztientzat, gazte, heldu, etorkin eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta sendotzea bultzatzea, eta, jarduera ekonomiko jasangarriak erakarri, sustatu eta mantentzea.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Langabezia tasa
- Astigarragako establezimendu eta enpresak
- Sektore ekonomikoak: Sagardogintza, txikizkako merkataritza...
- Biztanleriaren baliabide ekonomikoak
- Enpresak eta kalitatezko enpleguak sustatzeko programak eta zerbitzuak

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?


ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Per capita BPG</b>	€/bizt.	53.571	56.405	53.413	41.977			
<b>Jarduera-tasa</b>	%				73,08	72,58		
Emakumeen jarduera-tasa	%				72,41	71,27		
Gizonezkoen jarduera-tasa	%				73,73	73,85		
<b>Biztanleria orokorraren langabezia</b>	Kop.	261	235	247	263	251	246	227
	Tasa	7,7	6,8	7	7,8	6	5,5	5
Emakumeen langabezia	Kop.	154	144	149	150	151	148	150
	%				57,03	60,16	60,16	66,08
Gizonezkoen langabezia	Kop.	106	91	98	113	100	98	77
	%				42,97	39,84	39,84	33,92
<b>Gazteen (&lt;25 urte) langabetuak</b>	Kop.				23	18	11	12
	%				8,75	7,17	4,47	5,29
Emakume gazte langabetuak	Kop.				10	10	5	7
	%				3,80	3,98	2,03	3,08
	Kop.				13	8	6	5

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Gizonezko gazte langabetuak	%				4,94	3,19	2,44	2,20
<b>25-44 urte tarteko langabetuak</b>	Kop.				115	92	101	93
	%				43,73	36,65	41,06	40,97
25-44 urteko emakume langabetuak	Kop.				59	48	60	60
	%				22,43	19,12	24,39	26,43
25-44 urteko gizon langabetuak	Kop.				56	44	41	33
	%				21,29	17,53	16,67	14,54
<b>&gt; 45 urteko langabetuak</b>	Kop.				125	141	134	122
	%				47,53	56,18	54,47	53,74
> 45 urteko emakume langabetuak	Kop.				81	93	83	83
	%				30,80	37,05	33,74	36,56
> 45 urteko gizon langabetuak	Kop.				44	48	51	39
	%				16,73	19,12	20,73	17,18
<b>Iraupen luzeko langabeak</b>			104	104				106
Iraupen luzeko langabe emakumeak			68	68				74
Iraupen luzeko langabe gizonak			35	35				32
<b>BEG-a: Zerbitzuak</b>	%	57,41	57,52	60,28	64,4			
<b>Udalerriko establezimenduak</b>	Kop.	829	829	847	847	863	865	
<b>Udalerriko establezimenduetan lan egiten duten pertsonak, (langile kopurua lanaldi osoan)</b>	Kop.	4008	3905	4034	4021	4081	4176	
<b>Establezimendu berriak sortzeko tasa</b>	% bizt.	8,03	8,29	11,72	8,41	8,44	7,81	
<b>Txikizkako komertzioen azalera (m<sup>2</sup> 1.000 biztanleko)</b>	m <sup>2</sup>	1,04	0,96	0,93	0,94	0,93	1	

## Zein da udalerrriaren ibilbidea?


Astigarragako udalerrriak **aldaketa nabarmenak** jasan ditu azken urteetan, eta honek biztanleen **baldintza ekonomikoetan, lan-merkatuan eta bertako enpresetan** eragina izan du.

Alde batetik, udalerriko **per capita barne-produktu gordina 53.413€-koa izan zen 2019.** urtean (2020 urteko datuan nabarmenki egiten du behera, baina Covid-19aren eragin zuzenagatik zian daiteke). Datu hau, **Gipuzkoako datuaren oso gaintik** kokatzen da, **37.188€** (2019), beraz, **baliabide ekonomiko esanguratsuak dituen** udalerrria da Astigarraga. Bestalde, aitzinean aztertu den bezala, **langabezia-tasak** beheranzko joera erakusten duen bitartean, **jarduerata** gorantz doa, datu onak dira, beraz, bi kasuetan Gipuzko zein eskualdeko datuak baino hobek. Ondorengo grafikan azken **urteetako langabezia-tasa orokorraren eboluzioa** ikusten da, Astigarragan eta eskualde mailan:



Irudia 4. Langabezia-tasaren bilakaera Astigarragan eta eskualdean Iturria: Garapen

Gainera, azken urteetan **langabetu kopuruak** (urdiraz) eta **kontratu kopuruak** (grisez) izandako bilakaera adierazten da:



Irudia 5. Langabetu eta kontratu kopuruaren bilakaera Astigarragan Iturria: Garapen

Bestalde, ondorengo taulan, **langabeziaren bilakaera** eta banaketa aztertu daiteke, **sexuaren, adinaren eta sektorearen** arabera, eta Beterri-Buruntza Udaleko batez-bestekoarekin alderatuta:

Erregistratutako langabeziaren lurralde konparazioa

Sexuaren, adinaren eta sektorearen portzentajeak langabezi osoa kontuan hartuta	Astigarraga	Beterri-Buruntza Udalak
Langabeziaren urteko hazkundera (%)	-2,0	-3,2
Langabeziaren hileko hazkundera (%)	4,2	2,4
Langabetuak 16-64 urte bitarteko biztanleria kontuan hartuta (%)	4,9	6,4
Gizon langabetuak (%)	39,8	42,2
Emakume langabetuak (%)	60,2	57,8
25 urte beherako langabetuak (%)	4,5	8,0
25-44 urte bitarteko langabetuak (%)	41,1	40,4
45 urte eta gehiago dituzten langabetuak (%)	54,5	51,7
Nekazaritza arloan langabetuak (%)	0,0	1,7
Industria arloan langabetuak (%)	11,4	11,4
Eraikuntza arloan langabetuak (%)	5,3	5,0
Zerbitzuetan langabetuak (%)	76,0	72,2
Langabetuak aurreko lanik gabe (%)	7,3	9,6

Taula 3 Langabeziaren banaketa. Iturria: Garapen

Datuei erreparatzen badiegu, **genero eta adin arrakala** dagoela ikusi dezakegu izan ere, langabeen %60,2 emakumea da, eta adinean aurrera joan ahala, langabezia-tasa altuagoa, eta genero arrakala nabariagoa da.

Gainera, **langabeziaren kronifikazio arriskua** atzematen da: Astigarragako Langabeen **%46,5 iraupen luzeko langabea** da (Lanbide, 2023), hau da, langabe bezala izena eman eta 18 hilabeteetan gutxienez 360 egunez enplegua bilatzen aritu diren langabeak. Astigarragako emakume langabeen %49,7 iraupen luzeko da eta gizon langabeen %40,5. Baina, Astigarragako iraupen luzeko langabeetatik % 30,18 gizonezkoak dira eta %69,81 emakumezkoak. Hortaz ,


esan dezakegu **iraupen luzeko langabeek emakume aurpegia** dutela. Jatorriari dagokionez, %84,6 bertako herritartasuna du, eta %15,4 atzerritarra da. Azkenik, langabeen %42,-ek oinarrizko prestakuntza du.

Azkenik, ondorengo mapan Beterri Buruntza Udalak eskualdearen **udalerrri desberdinetan lanean dauden biztanleen portzentaia** ageri da (16 eta 64 urte bitartekoak). **Astigarragaren kasuan %75etik gorakoa** da, zehazki **%75,2-koa** (berde ilunez adierazita), Hernani, Urnieta eta Usurbilen bezala. Bestalde, Andoainen %50-75 artean kokatzen da, eta Lasarte-Orian %35-50 tartean.



Irudia 6. Beterri Buruntza Udaletako lanean dauden biztanleen portzentaia Iturria: Garapen

**Udalerriko Balio Erantsi Gordinari** erreparatzen badiogu, hein handi batean, ia **%65-a zerbitzu sektoreak** hartzen duela ikusi dezakegu, ondoren, %20 inguru industria eta energia, %14 inguru eraikuntzak, eta azkenik, %0,3 lehen sektoreak.



- Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza
- Industria eta energia
- Eraikuntza
- Zerbitzuak

Irudia 7. Balio Erantsi Gordina (BEG) jardueraren sektorearen arabera 2020 Iturria: Eustat

Enpresa edo establezimendu kopuruari dagokionez, 2022 urtean gutira **865 establezimendu** edo saltoki zituen Astigarragak, eta **723 enpresa** (enpresa horietatik %63,2a udalerriko 3 industria poligonoetan kokatzen dira), eta **4.176 lanpostu**. **Turismoari** dagokionez, Astigarragako jarduera turistikoaren sagardoarekin lotua dago, hori baita udalerraren bereizgarria, eta oso urtarokoa da. Orotara, sektore turistikoan diharduten **46 enpresa** daude: 8 ostatu, 17 jatetxeak eta 21 sagardotegi.

Ondorengo tauletan **establezimendu hauek tipologia arabera** sailkatzen dira, eta bakoitzaren langile kopurua adierazten dira:



#### Saltokiak jardueraren arabera

	kopurua	%
Industria eta energia	146	16,9
Eraikuntza	128	14,8
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	344	39,8
Informazioa eta komunikazioak	18	2,1
Finantza jarduerak eta aseguruak	19	2,2
Higiezin jarduerak	8	0,9
Jarduera profesionalak	95	11,0
Admin. publikoa, Hezkuntza eta osasuna	33	3,8
Zerbitzuetako bestelako jarduerak	50	5,8
<b>Saltokiak guztira</b>	<b>865</b>	<b>100</b>
Enplegua saltokietan	4.176	

Taula 4. Jarduera motaren araberako saltoki kopurua. Iturria: Garapen

#### Saltokiak langile kopuruaren arabera

	kopurua	%
0-2 langileen artean	546	63,1
3-5 langileen artean	150	17,3
6-9 langileen artean	80	9,3
10-19 langileen artean	57	6,6
20-49 langileen artean	29	3,4
0-249 langileen artean	864	99,9
250 langile edo gehiago	1	0,1

Taula 5. Saltokiak langile kopuruaren arabera. Iturria: Garapen.

Taulan ageri den bezala, **enpresa eta establezimendu txikiak** kokatzen dira udalerrian, eta saltokien %89,7ak 10 langile baino gutxiago ditu. **Pisu gehien handizkako merkataritzak, garraioak ostalaritzak** (jaketxe eta sagardotegiak batez ere) hartzen du.

Herri-eremuan, **zerbitzuen sektorean** pertsonen zuzendutako zerbitzuak, eta ostalaritza -establezimenduak gailentzen dira (ile-apaindegiak, fisioterapeutak etab.) txikizkako saltokien aldean. Zehazki, **118 establezimenduetatik** %23a merkataritza saltoki txikiak dira, %34a zerbitzuak, %28a ostalariatza eta %15a sagardotegiak, hurrenez hurren. HAPOan adierazten denez, azken **hamarkadan (2011-2020) txikizkako merkataritzak 14 puntu egin du behera**. Aipatzekoa da merkataritza-gune

oso lehiakorak eta gertukoak dituela Astigarragak, eta biztanleriaren **ihes-fluxuak atzematen** dira gure horietara, batez ere, Garbera, Urbil edota Txingudi merkatal-zentroetara edo Hernaniko edo Donostiako dendetara. Batez ere, **arropa eta oinetakoak**, eta **bestelako produktuak** (informatika, kirola, liburuak...) erosteko mugitzen dira astigartarrak bertara.

Orokorrean, **Donostiak**, batez ere, **erakrpen indar handia** dauka astigartarren, historikoki Donostiarekin izan duen loturagatik eta hurbiltasunagatik, bai **aisialdiari** dagokionez eta baita **produktu zein zerbitzuak kontsumitzerako** orduan. Nahiz eta udalerrian hazkunde demografiko garrantzitsua egon den, ez da txikizkako merkataritza azalera islatu, ez baita herriko saltokien ia hazkunderik izan. Hauen artean gehien hazi direnak **pertsonen bideratutako zerbitzuak** eskaintzen dituzten jarduera ekonomikoak izan dira txikizkako merkataritza baino.

2015. urtean burutu zen PERCO-aren arabera, astigartar bakoitzaren urteko batez-besteko merkataritza gastua 3.619,95€-koa da, eta **biztanleria osoarena 19,3 milioi eurokoa**, hain zuzen. Horietatik, 5,8 milioi herrian bertan gastatzen dira, **13 milioi herritik kanpo**, eta 0,5 milioi inguru internet bidez. **Internet bidezko salmentak** ere gora egin du azken urteetan, batez ere pandemiaren geroztik, gainontzeko udalerrietan bezala, eta honek ere txikizkako merkataritzan **eragin negatibo zuzena** izan du.

Bertako merkataritza sustatzeko, **Guztion: merkataritza ekintzailatza sustatzeko programa** burutu du Udalak. Funtsean, helburua du merkatal gune nagusia

izandako eremuan -kaxkoan- dauden lokal hutsetan **jarduera ekonomiko berriak** jartzea, bereziki txikizkako merkataritza. Programa 2017. urtean abiatu zen eta bereziki zerbitzu establezimenduak jarri dira abian urte hauetan. Gainera, Udalak Astiko merkatarik elkartearekin lankidetzan, **herriko komertzioetan kontsumitzeko bonoak** jarri izan dira martxan, eta herriko elkarteetara bideratzen diren diru-laguntzetan, herriko komertzioetan erosi eta kontsumitzea sustatzen eta saritzen da.

Gainera, **Beterri Buruntza eskualdeko udalek** (Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbilek osatuta) **BBU mankomunitatea** sortu berri dute. Bertatik, tokiko-garapenerako lanketa eta akonpainamendua egiten da, enplegarritasunaren sustapenerako eta ekintzailatzarako zerbitzuak eta programak eskainiz.

**Turismoari** dagokionez, Udalak herriko **Sustapen Turistikoaren inguruko Diagnostika** burutu zuen 2020. urtean, bertan **baliabide turistikoaren katalogoa** burutuz (kulturalak, naturalak, eta gastronomikoak). Gainera, jomuga turistikoaren kudeaketan lan egiten duten **agente publiko eta publiko-pribatuen identifikazioa** egiten da: Astigarragako Udala, Donostialdea Turismo, Behemendi, Euskal Sagardoa, Sagardun-Sagardoaren Lurralde, Sagardogile Elkartea, etab. Orokorrean, **garai konkretu bati loturiko turismo eskaintza** dauka udalerriak, **sagarraren munduaren eta sagardotegiei** oso lotuta. Eskaintza hau oso garai zehatzetan ematen da (urtariletik apirilera, eta ateburuetan) eta beraz, **desestazionalizatzeko beharra** azpimarratzen da.

**Udallerri** mailan, sagarraren eta sagardoaren kulturarekin, eta bere sustapenean, **eragile publiko zein pribatuek jardun** dute (Udala, Sagardun Elkartea, sagardogileak eta Sagardogile Elkartea, kultur elkarteak, etab.).

Alde batetik, **Sagardun** Euskal Herriko **sagardoaren kulturaren sustapen soziokulturala** egiten duen Partzuergo publiko-pribatua da, bertan daude: Astigarragako Udala, Garlia eta Gipuzkoako Sagardogile Elkartea, eta kultur elkarteak. Bere jardunean, Sagardoetxea museoaren kudeaketa, **“Sagardoaren Lurraldea”** markaren baitan sagarra eta sagardoaren munduarekin lortutako produktu turistikoak sortu eta kudeatzen ditu, besteak beste: Nazioarteko Sagardo Lehiaketa, sagarrari, sagardoari eta turismoari buruzko jardunaldi teknikoak (Sagardo Forum) eta Nazioarteko Sagardo Azoka antolatzen ditu. Horrez gain, udalarekin lankidetzan, Sagardo berriaren irekiera, sagar uzta, etab) ere antolatzen ditu.

Bestetik, sagardoaren munduarekin turismo alorra garatzen ari den beste eragile garrantzitsuenetakoa bat **Sagardogile Elkartea** da. **“Sagardoa Route-Sagardoaren ibilbidea”** markaren baitan hainbat produktu turistiko sortu eta merkaturatzen ditu, eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu enpresa, elkarteko bazkide nahiz eskolentzat ere (sagardotegia erreserbatzeko aukera, sagardoa erosteko denda, etab.)

**Eskualde** mailan, **Behemendi Elkartea** 2012. urtez geroztik, Turismo Lankidetzarako erakunde gisa elkarlanean aritu da **Beterri Buruntza** eskualdea osatzen duten udalekin. Bestalde,

**Basquetour** - Euskal Turismo Agentziak, **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** hitzarmenak adostu ditu Beterri Buruntza eskualdean jarduera turistikoa sustatu eta dinamizatzeko, modu bateratu eta koordinatuan. **"Donostialdea"** eskualdeko markaren baitan natura turismoa, sagardoaren lurraldea eta familia turismoa bultzatu ditu, baita sektoreko eragileen profesionalizazioa eta berrikuntza txertatzeko programetarako sarbidea erraztu.

Hemendik aurrera, **Mankomunitatearen** sorrerarekin, berau izango da eskualde mailan turismoa lantzeko erreferentziazko eragilea eta beste eragileekin lankidetzan turismoaren alorra lantzen jarraitzeko asmoa dago.



*Irudia 8 Astigarragako sagardoa  
Iturria: Sagardoaren Lurraldea*

# 9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



## 9. INDUSTRIA BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK

Erreferentziako helmugak: 9.3., 9.4.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH erronkatzat hartzen ditu azpiegiturak modernizatzea (fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak izan daitezen.) Eta, industrialdeetako enpresa egituraren berrikuntza sustatzea; eraldaketa digitala, trantsizio energetikoa eta eredu ekonomiko zirkular eta deskarbonizatu baterantz aurrera egitea.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Astigarragako industria-poligonoak eta bestelako azpiegiturak
- Establezimenduen karakterizazioa
- Ingurumen kudeaketa, energia kudeaketa, eta digitalizazioa enpresetan

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz ?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Industria sektorearen BEGa</b>	%	17,3	15,9	18,1	14,6		
<i>Industria sektorearen BEGa (Gipuzkoan)</i>	%	27,4	27,8	28,2	27,8		
<b>Eraikuntza sektorearen BEGa</b>	%	25,17	26,36	21,43	14,6		
<i>Eraikuntza sektorearen BEGa (Gipuzkoan)</i>	%	5,9	6,2	6,2	5,9		
<b>Enpresa kopuru totala</b>		677	680	678	692	692	723
<b>Industria eta energiarekin lotutako establezimenduak</b>	<i>Kop.</i>	161	159	159	154	148	146
<b>Eraikuntzarekin lotutako establezimenduak</b>	<i>Kop</i>	120	116	123	129	132	128

### Zein da udalerriaren ibilbidea?


Azpiegiturei dagokionez, Astigarraga, historikoki, **Hernani-Oiartzun ardatzean** kokatu izan da, baina azken mendeen **Hernani-Donostia hiri-ardatzaren** parte bihurtu da. Ardatz aldaketa hori da, seguruenik, Astigarragaren lurralde eta hiri-analisiaren ezaugarri bereizgarriena

eta azken urteotan jasan dituen aldaketen zergatia.

Udalerria Gipuzkoako **errepideen sare nagusiaren** erdian dago kokatuta (Urumeako autobidea eta Donostiako bigarren saihesbideak bat egiten dute

bertan), eta beraz, auto bidezko irisgarritasun ona du herriak. Bestalde, garraio publikoari dagokionez, Donostia-Hernani autobusen ibilbidean kokatzen da, baina gaur egun ez du trenetako konexiorik. Honek, **mugikortasun jasangarriagoko alternatibak sustatzea ez du erraza** egiten.

**Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak** (LPP, 2016) aipatzen du «izaera estrategikoko eremua» dela Urumeako korridorea. Trenari dagokionez, Trenak Aurreratzeko eta Aparkatzeko Postua (PAET-TAAP) eraikitzea eta Renfeko aldirien geltoki berri bat sortzea aurreikusten du, ibilgailu-bide bat eta oinezkoentzako pasagune bat eraikiz Astigarragatik sartzeko. Astigarraga eta Gaintzurizketa arteko *by-pass* trenbidea ere aipatzen du dokumentuak; ez, ordea, Astigarragako AHT-aren geltokia.



Irudia 9. Renferen aldirien geltoki berriaren kokapena  
Iturria: Astigarragako Hiri-Mugikortasun  
Jasangarriaren Plana

Herriko **industria sektoreari** dagokionez, **Balio Erantsi Gordinak beherantzko** joera adierazten du azken urteetan, 2020. urtean **%14,6** puntutan kokatzen delarik, Gipuzkoako batez-bestekoaren oso azpitik (%27,6). Bestalde, **eraikuntzaren BEG-a oso altu mantendu** da azken urteetan,

**2022. urtean** nabarmenki beherantz eginez eta **%14,6** puntutan kokatuz. Hala ere, Gipuzkoako batez-bestekoaren oso gainetik kokatzen da (%5,9), seguraski egin berri diren **etxebizitza kopuru altuaren** eraginez.

Astigarragan **biztanleria egoiliarrena baino lan eskaintza handiagoa** dago, eta udaleko **hiru poligonotan** banatzen da eskaintza hau gehienbat. Bestetik, 2018. urteko diagnosiaren arabera, **245.000 m<sup>2</sup>** ingurukoa da **pabiloi guztien azalera totala**, eta **4.008 beharginek egiten dute lan herrian**, gehienek industrialdeetan. Eskaintza honek **beste udalerrietako 2800 langile inguru erakartzen** ditu, (horietatik %90 autoz iristen dira).

Esan bezala, herriko **lanpostu gehienak** Astigarragako **3 industria guneetan** kokatzen dira, herriko 865 establezimenduetatik 750 inguru kokatzen dira bertan Poligonoetan. Guztira 723 (2022) enpresa kokatzen dira herrian, gehienak **enpresa txikiak** dira, (establezimenduen %89,7-k 10 langile baino gutxiago dituzte, eta horietatik %63 2 langile baino gutxiago) eta **hirugarren sektoreak** dauka garrantzi gehien. HAPOan aztertzen denaren arabera, Astigarragako **enpresa-parkearen hazkundea negatiboa** izan da 2008-2020 epealdian, **%6,7-koa** hain zuzen, (61 enpresa gutxiago), eta **enpleguei erreparatuz %8,4** puntuko **murrizketa** izan du (371 enplegu inguru galdu dira). Sektoreka, jarduera ekonomikoen banaketa hau da: lehen sektoreak %2,8, industria %18,2, eraikuntza %15,2 eta zerbitzuak %63,8.

Zehazki, udalerriko poligono eta industrialdeak ondorengoak dira:

## Ubarburu Poligonoa

27 Poligono bezala ere ezagutzen da, eta udalerrriaren iparraldean, Ubarburu ibilbidean dago kokatua, **Donostia eta Astigarraga artean** (azaleraren laurdena inguru dago Astigarragan) 1987. urteaz geroztik, Astigarraga Donostiatik desanexionatu zenetik, alegia.

**70. hamarkadan** sortutako industria-poligonoa da, **340.000 m<sup>2</sup>-ko azalera** du guztira eta **170 enpresa** inguru daude bertan kokatuta. **3500 langilek** egiten dute lan poligonoan, **800 inguruk Astigarragako** zatian. Hasiera batean, Astigarraga Donostiaren parte zenean, industriara eta eraikuntzara bideratua zegoen, izan ere, hiriguneko auzoetan zeuden tailerrak atera eta bertan kokatu bati ziren. Azken urteetan **zerbitzuen sektorea garrantzia hartuz** joan da, zerbitzu enpresa txiki asko kokatzen dira bertan, lehen tailerrak ziren lokaletan. Lanbide heziketako zenbait eskola ere badira.

Poligono nahiko **zaharkitua** da, eta **mugikortasun arazoak** nabarmentzen dira: garraio publiko eskasia dago eta kotxea da garraio bide nagusia. Bestalde, Donostiako Udalak poligonoaren handitzea aurreikusten du (Donostiari dagokion zatian).

Aipatzekoa da **enpresa elkartea** duen udalerriko industria-poligono bakarra dela. Honek, bi udalekin interlokuzioa eta koordinazioa errazten du, eta kudeaketa erraztu.

## Bidebitarte Poligonoa

Astigarragako **herrigunetik gertuen** kokatzen den industrialdea da, mendebalean kokatua, herrigunearen eta

Urumea ibaiaren artean, eta Erribera auzo berria eraiki da ondoan.

**70. hamarkadan** sortutakoa da, **170.000 m<sup>2</sup>-ko azalera** du eta **160 enpresa** inguru daude bertan, **1000 langile** ingururekin, industria eta eraikuntzara bideratuta sortu bazen ere, gaur egun oso **jarduera tertziarioa** dauka, gehienak zerbitzu establezimenduak eta tailer txikiak. **Jabego pribatukoa** da gehiena, eta gaur gaurkoz ez dauka kudeaketarako enpresa elkarterik.

HAPOk Bidebitarte ingurua «*hiri-berrikuntzarako*» gako moduan ulertzen du eta lurzoru industrialdea zena guneko misto bezala aurreikusten du, jarduera ekonomikoetarako eta etxebizitzak kokatuz, eta hiri-berrikuntzarako gidalerro batzuk proposatuz. Gaur egun, Erribera auzoaren eraikuntzarekin eta udalerrriaren zabalkuntzarekin, **industrialdea ia herrigunearan geratu da**, eta datozen urteetan espero zaizkion aldaketekin, garrantzitsua izango da bertan guneko bizigarri eta ingurunearekin adeitsua izango diren jarduerak erakartzea.

## Txalaka-Zamoka Poligonoa

**Ergobia** auzoaren ondoan kokatuta dagoen industrialdea da eta **Hernaniko udalerriarekin muga** egiten du ditu.

Zamoka **70. Hamarkadakoa** da, Txalaka eremua aldiz, berriagoa. Guztira **215.000 m<sup>2</sup>** ditu, **210 enpresa** jasoaz eta **1500 pertsona** inguruk egiten dute lan bertan. Jabego pribatua gailentzen da, eta ez dauka kudeaketarako enpresa elkarterik. Herriko beste industrialdeekin konparatuz, hirugarren sektorearen garrantzia nabarmenagoa da.

Azkenik, **beste industria poligono bat eraikitzea aurreikusten** da, Zakurmendiegi eremuan. Hiritartze lanak 2025. Urterako amaituak egotea aurreikusten da.

Astigarragako Udalak hainbat baliabide ditu artikulatuta **ingurumenaren, trantsizio energetikoaren eta digitalizazioaren inguruan laguntza eta gida** eskaintzeko. Industria gune hauetan hondakinen


kudeaketa egokirako, eta **ingurumen jarduera egokiak sustatzeko programak** daude martxan Garbitaniarekin lankidetzan, bertako enpresei akonpainamendua eta lege-aholkularitza eskaintzen zaizkie. Bestalde, digitalizazioa eta trantsizio energetikoa jorratzeko Beterri Buruntza Mankomunitatearen laguntzarekin lantzeko asmoa dago.



*Irudia 10. Astigarragako industria guneak. Iturria: Wikicommon*



# 10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



## 10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Erreferentziazko helmugak: 10.2., 10.3., 10.4., 10.7.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH honen helburu nagusia pertsona guztien inklusioa da; ekonomikoa, soziala eta politikoa. Eta, aukera-berdintasuna sustatzea da.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Talde desberdinen ongizatea sustatu eta eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuak (adineko pertsonak, haur gazte eta nerabeak, atzerrian jaiotako pertsonak, etab.)
- Etxebizitza eskubidea eta etxebizitza babestu parkea.

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz ?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Dependentzia indizea</b>	%	46,96	47,47	47,08	45,5	45,74	46,55
<b>Zahartze indizea</b>	%	11,7	11,9	11,8	11,8	12	12,4
<b>Gain-zahartze indizea</b>	%	44,02	43,72	42,88	41,67	47,11	
<b>Amatasun indizea</b>	%	31,17	32,06	32,11	29,98	30,56	29,08
<b>Ezgaitasuna aitortuta duten herritarrak</b>	Kop.	318	319	330	329	344	378
Ezgaitasuna duten emakumeak	Kop.	144	146	157	155	166	184
Ezgaitasuna duten gizonak	Kop.	174	173	173	174	178	194
<b>Mugikortasun murriztu aitortua duten herritarrak (&gt;=7 puntu)</b>	Kop.	108	103	107	98	98	112
Mugikortasun murriztua duten emakumeak	Kop.	55	53	56	50	54	59
Mugikortasun murriztua duten gizonak	Kop.	53	50	51	48	44	53
<b>Adineko pertsonentzako egoitzetan* dagoen plaza kopurua</b> (*Babespeko etxebizitzetan)	% bizt.> 65 urte	24,06	23,32	21,74			

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Eguneko zentroetan adineko pertsonentzat dagoen plaza kopurua</b>	‰ bizt.> 65 urte	29,41	28,5	26,57			
<b>Eguneko zentroetako okupazio maila</b> (adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonentzat)	%	50	44,44	54,55			
<b>Etxez-etxeko zerbitzuaren erabiltzaile kopurua</b>	Kop.	16	17	22	19	24	28
Etxez-etxeko zerbitzuko erabiltzaile emakumezkoak	Kop.	10	10	14	16	18	20
Etxez-etxeko zerbitzuko erabiltzaile gizonezkoak	Kop.	6	7	8	3	6	8
<b>Atzerriko populazioa guztira</b>	Kop.	287	263	279	312	305	324
Europatik	Kop.	158	119	128	124	128	137
Afrikatik	Kop.	38	46	37	51	49	45
Amerikatik	Kop.	72	86	98	120	111	118
Asiatik	Kop.	19	12	16	17	17	22
<b>Atzerriko populazioaren portzentaia</b>	%	4,7	4,2	4,3	4,4	4,2	4,4
Atzerriko emakumeak	Kop.	150	128	133	146	149	155
Atzerriko gizonak	Kop.	137	135	146	166	156	169

## Zein da udalerraren ibilbidea?

Astigarragako azken urteetako biztanleriaren gorakadaren eraginez, orokorrean, jende berria iritsi da udalerrira, eta nahiz eta orokorrean, EAE guztian bezala, biztanleriak zahartzera jotzen duen, Astigarragan orokorrean **biztanleria nahiko gaztea** dela esan daiteke. Ondorengo irudian, 2023 urteko demografia adierazleak aurkezten dira, udalerrian eta eskualdearekin (Beterri Buruntza Udalak) alderatuta.

Demografia adierazleak	Udalerrria	Agentzia
Menpekotasuna	47,3 %	54,7 %
Zahartzea	12,6 %	21,4 %
Hurtzaroa	19,5 %	13,9 %
Amatasuna	28,1 %	18,5 %
Joera	92,1 %	82,3 %
Ordezkapena	71,8 %	69,0 %

Irudia 11 Demografia adierazleak (2023) Iturria: Garapen

Datuei erreparatuz, ikusi dezakegu, azken urteetan **dependentzia indizea** (hau da, 15 urtetik beherako eta 64 urtetik gorako

biztanleen portzentaia) nahiko egonkor mantendu dela, konkretuki 2023 urtean **%47,3**-an kokatuz, Beterrri Buruntza Udalak eskualdeko datua baina dezente baxuagoa (%54, 7).

Azpimarragarria da, nahiz eta **zahartze indizeak** (64 urtetik gorako biztanleen portzentaia) gora egin duen azken urteetan, 2022-an soilik **12,4**-koa zela, eskualdeko datua baina nabarmen txikiagoa, **21,2**. Bestalde, **gain-zahartze** (75 urtetik gorako biztanleen portzentaia) indizeari dagokionez, goranzko joera hatzematen da, baina eskualdeko datuarekin ez du horrenbesteko alderik: Astigarragak **47,11** eta eskualdeak **52,35**, 2021 urtean. Udalerrian gaur egun **ez dago adineko pertsonentzako egoitzarik**. Badago **eguneko zentro** bat. Bertan, adineko pertsonen eguneko arreta eta elkarbizitza sustatzeko zerbitzua kudeatzen da: garraio zerbitzua, arreta pertsonalerako zerbitzuak, psikogieria zerbitzua, gizarte arreta zerbitzua, ariketa fisikoa, eskulan-terapia, ariketa kognitiboak eta denbora libre eta normalizazio sozialerako zerbitzuak. Horretaz gainera, Udalak baditu adinekoentzako **babespeko etxebizitza** eta **apartamentuak**.

Udalak 2024-2025 urteetan, Urumea kalean, **Adinekoen Espazioa sortzeko prozesua** burutuko du adineko pertsonak, elkarte eta eragileekin batera. Eta, eguneko arretarako zerbitzu berri bat jarri nahi du abian, **mendekotasun arriskuan edo mendekotasun egoeran** (I. gradua) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea helburu duena. **Galtzaur** da herriko

pertsona erretiratuak eta pentsionistak biltzen dituen **Elkartea**.

**Etxez-etxeko zaintza zerbitzuari** dagokionez, oinarrizko udal prestazioa da, eta bizimodu autonomoa izateko zailtasunak dituzten pertsona eta familien beharrianak asetzen laguntzea du helburu. Etxeko laguntza zerbitzuak zailtasun horiek konpentsatzen laguntzen du, pertsonak bere etxean eta ingurunean bizitzen jarraitu ahal izateko. 2017. urtetik 2023-ra asko handitu da erabiltzaile kopurua, ia bikoiztuz. Erabiltzaileen **gehiengoa emakumeak** dira (%78,13-a 2023an) eta erdiek baino gehiago **0 eta 1 arteko dependentzia** dute.

Datu hauek kontutan hartu behar dira, udaleko gizarte-zerbitzu publikoen kudeaketa egiterako orduan, herriko pertsona guztiei baliabideei sarrera bermatu eta ziurtatzeko. Gainera, nahiz eta Astigarragako **zahartze indize baxuagoa** den, joera orokorra aintzat hartu beharko da gizarte zerbitzu publikoen plangintzarako. Izan ere, ez da berriro aurreikusten zahartze indize hori mantendu ala jaitsi dezakeen populazio hazkunderik.

**Atzerriko populazioari** dagokionez, guztira 2022 urtean **324 pertsona** zeuden herrian, biztanleria osoaren %4,4an suposatzen duelarik, 155 emakume eta 169 gizon. Atzerriko pertsona hauen jatorriari erreparatuz, gehienak Europatik datozela ikusi dezakegu, eta ondoren, Amerikatik. Kontutan hartu beharko da hemen, egoera irregularrean udalerrian bizi diren pertsonen egoera ez dagoela erregistratuta.



▶ Europa	137	42,3 %
▶ Afrika	45	13,9 %
▶ Amerika	118	36,4 %
▶ Asia	22	6,8 %
▶ Ozeania	2	0,6 %

Irudia 12. Atzerriko populazioaren jatorria.  
Iturria: Garapen

**Etxebizitzari dagokionez**, arestian aipatu bezala, biztanleriaren gorakada handia eman da azken urteetan, batez ere, Erribera auzoan eraikitako etxebizitza kopuru handia dela eta. Bertan, babes-ofizialeko etxebizitzak zein libreak kokatzen dira, baina, orokorrean, udalerriko **etxebizitzaren prezioak igotzea** ekarri du, kasu batzuetan familien bizi egoera zailduz.

Gazteriari dagokionez, Udalak Gazteria Sail propioa dauka, eta udalerrian **Gazte Lekuaren** ekipamendua kudeatzen du, 12-18 urte bitarteko nerabeek erabili dezaketen zerbitzua. Hala ere, 2019. urtean burututako **Gazte Planeko diagnostikoan** ondorioztatu zen gazte adindun edo **seme-alabak dituen perfilarentzat herriak baldintza onak** eskaintzen dituen arren, **nerabe edo gazteentzat** (12-25 urte), Astigarragak ez duela eskaintzen **aisialdia asebetetzeko aukera nahikorik**.

Bestalde, 18-24 urte arteko gazteek **prekarietate egoera bizi dutela** aztertu zen diagnostikoan, lan egonkorrik ez, eta lan aukerak ia beti zerbitzu sektorean, baldintza zailekin ematen direla. Gainera, **etxebizitzaren prezio** altua ere erronka handia da 24 urte inguruko gazteentzat, gurasoen etxetik **emantzipatu nahi eta ezin** dutelako alegia. Dena den, etxebizitzaren prezio altuak dakarren arazoa ez da soilik gazteen kolektibora mugatzen,

izan ere, gizarte zerbitzuetatik atzematen dutenez, gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen arazo nagusienetakoa **etxebizitzetarako sarbidea** da. Izan ere, lana izateak ez du bermatzen etxebizitzetarako sarbidea, eta, gaur egun, zaurgarritasunerako arrazoi nagusienetako bat da.

2019. urtean ere, Gizarte Zerbitzuetatik, **"Astigarragako hirugarren eta laugarren adineko herritarren inguruko ikerketa lana"** burutu zen. Bertan, **65 urtetik gorako 279 astigarrarekin egindako elkarrizketen** emaitzak plazaratzen dira. Besteak beste, Gizarte Zerbitzuen inguruko **ezagutza maila oso baxua** da, eta hurbiltzearen arazoi nagusia dependentzia edo/eta ezgaitasunari lotutako informazioa lortu edo tramiteak egitea dela ondorioztatzen da. Bestalde, elkarrizketatutako **%40ak herriko kanpo zerbitzuekiko** (osasun zentroa, jubilatuen elkarteak, kultur ekipamenduak...) **irrisgarritasun murrizta** dutela adierazten dute, baina, orokorrean, horietara hurbiltzeko baliabideak dituztela.

Adineko pertsonen **diru-sarrerei dagokionez, genero arrakala** nabarmena dagoela ikusten da ikerketan. Elkarrizketatutako emakumeen **%64ak hilean 735,90€ baino gutxiagoko diru-sarrera** du. Gizonezkoen kasuan **%15a** da soilik.

Elkarrizketatu ziren 279 pertsonetatik **54-k** Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Mendekotasun Graduaren Balorazioa** egiteko eskaera egin dute (pertsonen autonomia maila neurtzen duen parametroa), eta horietatik **%26-a** (hau da, 14 pertsona) **autonomo gisa identifikatu** da, baina gehienak **ez daude konforme** emaitzarekin. Gainera, egunerokoan

laguntza **formala edo informala** jasotzen dutenak **%43** dira, eta informalaren kasuan seme-alabak izaten dira gehienetan zaintzaileak. Orokorrean, zaintzaileen generoari dagokionez, kasuen **%72an emakumezkoak** dira.



Desgaitasun funtzionalen bat izan dezaketen pertsonen dagokionez, gaur

egun, Udala aurrera eramaten ari den herri-gogoeten baitan, **aniztasun funtzionala duten** pertsonak edota **zaintza-lanetan dihardutenek** herrian oztoporik gabeko espazioez gozatu ahal izateko helburuarekin, gogoeta eta **partehartze prozesua, eta ekintza plan** bat garatu da.

Bertan, irisgarritasunari dagokionez, 2024-2027 bitartean, egunerokotasunean eragin zuzena eta berehalakoa izango duten esku-hartzeak lehenetsi dira, hiru jarduketa esparru bereiziz:

1. **Espazio publikoan** egingo direnak
2. **Eraikin publikoei** dagozkionak,
3. **Udalaren jarduerak** irisgarriagoak izatera bideratuta daudenak.

2024. urteari dagokionez, aurreikusten diren ekintzetako batzuk hauek dira: bidegurutze eta oinezko pasabide irisgarriak eta seguruak, merkataritza-eta ostalaritza-establezimenduen

egokitzapena, Udal-arreta zerbitzu irisgarria etab.

Gainera, 2023. urte amaieran **Irisgarritasun Unibertsala Sustatzeko Plan Integrala** (PIAU) egiteko dirulaguntza eskatu da, eta bere garapenerako aipatutako partehartze prozesuan jasotakoak abiapuntutzat hartuko dira.

Honez gain, Behemendik **landa-eremuan bizi diren adineko pertsonen azterketa** burutu zuen. Bertan, hainbat ondorio plazaratzen dira. Alde batetik, herrigunetik gertuen bizi direnak, herrira joateko ohitura gehiago dute, eta urrutiago bizi direnak, baserri bizimodua dute barneratuta, nekazaritza eta abeltzantza lanekin lotuta.

Landa-eremuan ere, orokorrean, Gizarte Zerbitzuen **inguruko informazio gutxi** dute, eta eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuak "arrotzak" ikusten dira, konnotazio negatiboa dute batzuetan. Garraioa eta mugikortasunari dagokionez, **landa-eremuko bideen mantenu egokia** egitearen garrantzia ere azpimarratzen da.

# 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



# 11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

Erreferentziazko helmugak: 11.1, 11.2., 11.3., 11.4., 11.5., 11.6., 11.7.

## Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH honek guztiontzako herri-eredua lortu nahi du, bertako azpiegitura, zerbitzu eta espazioak inklusiboak, seguruak eta jasangarriak eginez.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Udalerriaren egitura orokorra eta hirigintza inklusiboa (HAPOa)
- Lurzorua eta lurzoru artifizializatua
- Etxebizitza sarea eta populazio dentsitatea
- Bestelako zerbitzuak: garraio publikoa, aparkalekuak, espazio libre eta berdeen zuzkidura, ondare natural eta kulturala.

## Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Populazioa</b>	<i>Bizt. kop.</i>	6.077	6.272	6.532	7.029	7.185	7.417
<b>Populazioaren dentsitatea</b>	<i>Bizt/km2</i>	510,24	526,62	548,45	590,18	603,27	622,75
<b>Etxebizitza kopurua</b>	<i>Kop.</i>		2.746	2.913	3.115	3.342	3.366
<b>Lurzoru artifizializatua</b>	%	21,59	21,59	21,59	21,59	21,98	22,17
<b>Bizitegi-azalera hirigarria</b>	%	14,34	14,34	14,43	14,43	19,72	19,72
<b>Lurzoruaren erabileraren intentsitatea</b>	<i>biztanle/ha lurzoru artifizializatua</i>	22,65	22,87	23,87	25,78	26,77	27,42
<b>Etxebizitza dentsitatea lorzoru erresidentzian</b>	<i>Etxe./ha</i>	56,78	62,95	67,55	67,55	64,5	




## Zein da udalerrriaren ibilbidea?

Astigarragak historikoki **bidegurutze** izaera duela esan daiteke, Donostiatik Hernanirako bideak eta Oiartzun-Astigarraga bidearen artean. Urumea ibaia eta Santiagomendi mendiaren artean dago kokatuta Astigarragako udalerrria, eta herrigunea **bi elementuen artean dagoen eremu lauan** dago.

Udalerriko hiri-gunea eta **lur hirigarria udalerrriaren %19,72-a** da (2022), gutxi gora-behera 2km luze eta 500m zabal dituen eremuan dago kokatua batez ere, forma nahiko lineala sortuz, aldaparik gabea. Bertan kokatzen dira industria-guneak (Urumea ibaiaren ertzean) eta herrigunea. Guztira, Astigarraga **1.119 ha-ko azalera** duen udalerrria da, zeinak, azken urteetan **biztanleriaren gorakada** nabarmena jasan duen.

Azken 20 urtetan ia bikoiztera heldu da biztanle kopurua Astigarragan, **2001. urtean 3.791** biztanle izatetik **2022an 7.417** izatera pasa da. Honek, biztanleriaren dentsitatearen igoera ere ekarri du, 2022 urtean **622,75 biztanle/km<sup>2</sup>**-koa izanik, inguruko udalerrietan eta Gipuzkoan (362,22 biztanle/km<sup>2</sup>) baina altuagoa izanik.


Bestalde, udalerriko **lurzoru artifizializatua** eta **lurzoruaren erabileraren** intentsitateak ere goranzko joera izan dute azken urteetan. **Bizitegi-azalera hirigarriak** ere oso nabarmen egin du gora, batez ere 2020. urteaz geroztik, eta Gipuzkoako datuaren gaineratik kokatzen da gaur egun (%11,02koa 2022. urtean).



Irudia 13. Biztanleriaren gorakada azken urteetan  
Iturria: Garapen

Biztanleriaren gorakada hau, gehienbat, udalerrriaren mendebaldean kokatzen den **erribera ondoko auzo berriaren** eraikuntzari zor zaio. Azken urteetan, etxebizitza ugari eraiki dira bertan, eta ondorioz, biztanle berriak iritsi dira udalerrira. Orokorrean, inguruko herrietatik eta Donostiatik etorritako biztanle gazteak izan dira, eta, ondorioz, udalerrriaren **jaiotze-tasa nabarmenki altua** izatea ekarri du. Gipuzkoako bataz-besteko datuei erreparatuta, jaiotze tasan beherakada jarraikor bat egon da, 2010. urtean 10,28 izatetik, 2022an 6,28 izatera pasa delarik. Astigarragan berriz, **12,41-ean mantentzen da jaiotze-tasa** 2022 urtean.

Ondorengo taulan 2022. Urtean Astigarragako eta Beterri-Buruntza Udalen **populazio-piramidea** aztertu daiteke, ezkerrean gizonak ageri dira, eta eskuinean emakumeak. Argi ikusten da, biztanleen gehiengoa 30-55 urteko adin tartean kokatzen dela, eta batez ere, **30-40 urteko adin tartean, eskualde mailan baina presentzia handiagoa** duela, seguru aski auzo berrira etorritako biztanleak izanik.



Grafikoa 1 Populazio piramidea Iturria: Garapen

**Etxebizitza kopuruari** dagokionez, gorakada nabarmena ikusten da ere azken urteetan, 2022. urtean **3.366 etxebizitza** kontabilizatu ziren. Estatistiken arabera, familia-etxebizitza bakoitzean, batzbestez, **2,6 (2019) pertsona** bizi dira eta **30 urte** inguruko (2020) adina dute, Beterrri-Buruntza Udalen batzbestekoaren azpitik (37,5).

**Landa-inguruneari** dagokionez, arestian aipatutako ikerketaren arabera, **Astigarragako 131 baserrietatik %44** inguruk dute nekazaritza edo abeltzaintza jarduera, %30 etxebizitza soilak dira, eta %18 inguru sagardotegiak. **Baserri zaharren** kopurua altua da (%74) baina orokorrean, okupaturik dauden baserrien egoera egokia da. Guztira **15 dira hutsik dauden baserriak**, hau da, modu jarraian inor bizi ez direnak. Orokorrean, baserriek duten kokapen peri-urbanoak eta biztanleriaren adinak, landa-eremuko biztanleak **herri-gunetik kanpo geratzearen arriskua** ekar dezakete.

Gaur egun, udalerriaren **HAPO planaren** berrikuspenean murgilduta dago udala, datozen urteetako **hirigintzarako lan-**

**ildoak** markatuko dituen. Bertan, besteak beste, landa-eremua gehiago babeseko hautua adierazten da.

Garraioaren azpiegiturei dagokionez, hainbat proiektu daude martxan gaur egun, aipagarriena, epe ertainera (2026-2027 urterako) **aldiriko tren geltokia eraikitzeke lanean** ari da Udala, ADIF eta ETS-rekin (Euskal Trenbide Sarea) Bidebitarte poligonoaren parean eraikiko dena. Honen helburua garraio publikoaren zerbitzua hobetzea izango da, Astigarraga aldiriko trenaren ardatz guztiko herriei zuzenean lotzeko aukera zabalduz.

Azkenik, azken urteetan "*Jolastuko al gara*" haurren **jolas-parkeen inguruko partaidetza prozesu** batean murgilduta egon da Udala, herriko jolas-guneak identifikatu, aztertu eta eraberritu beharreko eremuetan irizpideak ezartzeko helburuarekin. Prozesu honen emaitza gisa, hiru gune berrituko dira datozen urteetan: Murgia, Sagardo plaza eta ibai-parkea.

Azken honetan, **ibai-parkean**, jolas toki berri bat egiteko asmoa dago, parte-hartzailean jasotako beharrak kontuan hartuta. Andre Gobadarien parkean erabilera berrietarako eremuak ezartzeko beharrezkoak diren **elementuen horniketaz** gain (jolas-elementuak, ariketa elementuak eta iturria), hainbat **eskuhartze aurreikusten dira** ere: trebatze gunea, tirolina, elkargunea, ariketa gunea, kalistenia gunea, makina gunea, ur-eremua, bilgune eta ikuskizun gunea eta hondartza.

**12** EKOIZPEN ETA  
KONTSUMO  
ARDURATSUAK



## 12. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

Erreferentziako helmugak: 12.2, 12.3., 12.4., 12.5., 12.6., 12.7., 12.8.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

Helburu honek egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatu nahi du, baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra lortzeko.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Hondakinen sorrera eta kudeaketa jasangarria, berrerabilpena eta birziklapena
- Elikagaien xahuketa
- Kontsumo arduratsua eta baliabide naturalen erabilera
- Udalak egiten dituen erosketetan eta kontratazioetan ingurumen irizpideak

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Hiri-hondakinen gaikako bilketaren tasa</b>	%	80,79	75,63	75,15	71,7	67,43	73,05
<b>Hiri-hondakinen gaikako eguneko sorrera</b>	kg/bizt /egun	0,69	0,73	0,78	0,73	0,62	0,76
<b>Hiri-hondakinen gaikako urteko sorrera</b>	kg/bizt /urte	253,5	265,8	283,4	267,8	228	276,6
Organikoa	kg/bizt /urte	108,9	106,4	109,1	102	93,4	104,53
Paper eta kartoia	kg/bizt /urte	97,3	95	104,4	95,7	91,8	88,84
Ontzi arinak	kg/bizt /urte	38,4	42,7	46,1	46,8	48,1	97,84
Beira	kg/bizt /urte	42,2	40,1	42,6	38,7	35,9	37,25
<b>Errefusaren bilketa</b>	kg/bizt /urte		123,9	134	140	134,3	117,62
<b>Auto- eta auzo-konpostaren parte-hartzea</b>	erabiltzaile kopurua		1896	1896	158	285	
<b>Industria-hondakinen sorrera</b>	kg/bizt /urte	192,9	185	180,5	161,7	161,5	148,8
<b>Industria-hondakinen gaikako bilketaren tasa</b>	%	78,15	78,45	77,7	78,77	85,05	89,54

## Zein da udalerrriaren ibilbidea?

Hondakinen bilketa eta gaikako bilketa **Garbitania** enpresa publikoaren bitartez egiten da, eta Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalak hartzen ditu bere baitan.

Udalerriko **hiri hondakinak gaikako edukiontzien** bidez jasotzen dira, txartela bidezko irekierarekin: etxeko hondakin organikoak, beira, ontzi-arinak, papera eta kartoia, arropa eta zapaten hondakinak eta errefusa. **Hondakin organikoaren bilketa edukiontzien** bidez zein **auzo-konposta** bidez burutzen da, 2021 urtean 285 erabiltzaile zituelarik, eta epe motzean kopurua 20%an igotzea du helburu Udalak. Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko **Udal Ordenantza** onartu zen, **2021 urteko** ekainean onartutakoa. Bestelako hondakinak (altzariak, etxetresna elektrikoak, sukaldeko olioak, pinturak, lanparak pilak, aerosolak...) Garbigunera, garbigune ibiltarietara edo puntu-garbietara eramaten dira, hauek **San Marko Mankomunitateak** kudeatzen dituelarik.

Astigarragako Udalerrriaren ibilbidea eredugarria izan da azken urteetan, hiri-hondakinen **gaikako bilketaren tasa %70** inguru mantendu delarik azken urteetan, Gipuzkoako bataz-bestekoaren oso gaineratik (%55,32), eta Udalaren **helburua tasa %75etik gora mantentzea** da datozen urteetan.

Honen harira, 2023 urtean Udalak **Zero Waste Cities and Towns Europar ziurtagiria** lortu berri du, hondakinen kudeaketan daukan ibilbidea sarituz. Ziurtagiri hori Europako ziurtagiri

estandarra da, hirugarren batek ebaluatua, eta ebaluazioa puntuazio-sistema baten inguruan garatzen da. Hondakinen



kudeaketaren emaitzen arabera, **Astigarragak 5 izarretatik 2 lortu** ditu.

*Irudia 14. Zero Waste Ziurtagiria Iturria: Zero Waste Europe web-orria*

**Jardueraren jarraipena eta urteko hobekuntzak** egitea izango dira lortutako puntuazioa hobetzeko hurrengo urratsak, Europako beste herrialde batzuetako esperientziak erabiliz eta ekimen eta neurri berrien proposamena eginez. Udalak helburu gisa hirugarren izarra lortzea ezarri du.

**Industria eremuko hondakinak** aldiz, urtetik urtera gutxituz doaz, eta gainera sailkatze indizea gero eta hobea izaten ari da. Gaur egun, jasotzen den errefusa Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentrora bideratzen da, Zubietan. 2021. urtetik aurrera Astigarragako Udalak (Garbitaniaren bidez) kudeatzen ditu zuzenean udalerriko **industria poligonoetako enpresa eta lantegietako hiri hondakin asimilagarriak biltzeko zerbitzua**. Zehazki, Troia, Txalaka, Bidebitarte, Zamoka eta Ubarburu poligonetan. Zerbitzu honen bidez,

lantegiei **etxeko hondakintzat hartzen diren hondakinak**, hala nola: egurra, papera-kartoia, ontzi arinak, biohondakina, filma, porexpana, flejeak, inerteak eta errefusa **atez-ate jasotzen zaizkie**.

Ekoizpen prozesuarekin zer ikusi zuzena duten hondakinak ez dira jasotzen ordea, hauek kudeatzaile baimenduen bidez kudeatu behar baititu enpresa bakoitzak. 2022 urteko datuei erreparatuta, **industria eremuan bildutako hondakin guztien %89,73 gaikako** bilketa izan zen.

Hondakinen arloko erronka nagusia, udalerriko **"Hondakinen Kudeaketa Plana"** garatzea da, zeinak datozen urteetako lan-ildo nagusiak ezarriko dituen. Gainera, etxebizitzetan hondakinak murrizteko **"sortzearen araberako ordainketa"** sistemaren baten ezarketa aztertzea.

Honez gain, **elikagaien xahuketa murrizteko** esfortzuak egiten ari da Udala. Besteak beste, herriko eskolekin Hozkailu Solidarioa martxan jartzeko proiektua lantzen ari da. Bertan udala, eskola eta herriko *katering* enpresak parte-hartuko dute, elikagaien xahuketa murrizteko helburuarekin.

**Kontsumo jasangarriari** dagokionez, Udalak lhobeko erosketa publiko berdeko programan parte hartzen du, eta udalaren egunerokoan produktu eta zerbitzuen kontratazioan aplikatzen du.

**Sektore pribatuari** dagokionez, gertuko produktuak, km0, bertako ekoizleak etab. sustatzea eta tokiko ekonomia jasangarria eta iraunkorra sustatzea jotzen da erronka nagusitzat.

# 13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA



## 13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Erreferentziarako helmugak: 13.1., 13.2., 13.3.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH klima aldaketa eta bere ondorioak ezagutu, aurreikusi eta hauen aurreko neurriak hartzean datza, bai berotegi-efektuko gasen isurketak murriztuz, baita lurraldea klima-aldaketara egokituz ere.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Berotegi Efectuko Gasen isuriaren kalkulua eta murrizketa
- Klima aldaketaren ondorioak udalerrian duten eraginaren azterketa, eta herritarren sentsibilizazioa
- Udalerriarren egokitzapena klima aldaketaren aurrean

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Udalerriko BEG isuri totala (industria eta lehen sektorea kanpo)	t CO <sub>2</sub> e			36853	29738		
Udalerriko BEG isuria, biztanle eta urte bakoitzeko (industria eta lehen sektorea kanpo)	t CO <sub>2</sub> e/bizt /urte	6,6	6,5	5,96	4,46		
Udalaren BEG isuri totala	t CO <sub>2</sub> e			89	89,8		
Udalaren BEG isuria, biztanle eta urte bakoitzeko	t CO <sub>2</sub> e/bizt /urte			0,01	0,013		

### Zein da udalerriarren ibilbidea?


Astigarragak **Klima eta Energia Plan (KEP) berria** osatu du 2022 urtean zehar, udalerriak datozen urteetan klima-aldaketa arindu eta batez ere, egokitzeko, ekintza sorta jasotzen duen plana. Bertan, Udalak berak eta udalerriak dituen Berotegi Efectuko Gasen (BEG) emisioak eta energia kontsumoak aztertu, eta udalerriak klima-aldaketaren aurrean espero dituen inpaktuen analisisa egiten da.

KEParen arabera, Astigarragaren BEG isuriak guztira 2020. urtean **30.865 tCO<sub>2</sub>e-**



koa izan ziren, ondorengo irudian ikus daitekeen banaketarekin.

Berotegi efektuko gasen banaketa sektorearen arabera (2020)



Irudia 15 Astigarragaren BEG isuriaren banaketa sektoreka (Klima eta energia Plana, 2020)

EAEko gainontzeko udalerrri gehienetan gertatzen den moduan, **garraioa da isuri gehien** eragiten dituen sektorea, **%74-a** suposatzen duelarik. Ondoren **energiaren sektoreak** jarraitzen dio (**%23**), argindarra eta gas naturalaren kontsumoaren ondorioa direlarik. **Lehen sektoreak (%3)** eragin txikia du, eta azkenik **hondakinak eragindako isuriak %0,5a** soilik suposatzen dute, hein handi batean udalerrriaren hondakinen-kudeaketa eta tratamenduaren sistema eredarriaren ondorioz.

Azken urteetako eboluzioari dagokionez, 2014 urtetik 2017 igoera atzematen bazen ere, 2018. urtetik aurrera **beherakada** nabarmena eman zen, alde batetik, Covid-19aren pandemiaren egoerarengatik, eta bestetik, errefusaren tratamendua zabortegian egin beharrean Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroan egitera pasatzeagatik.

Udalaren karbono aztarnari dagokionez, Astigarragako udalak **89,8 tCO<sub>2</sub>e** isuri zituen 2020 urtean, udalerrriko isuri guztien %0,3 suposatzen duelarik. Isuri hauen %78-a udal-eraikinei dagokie, eta gainontzekoa udal flotari. Aipatu beharra da, 4/2019 Legearen eskakizunei jarraiki, Astigarragako udalak **energia**

**berriztagarrietatik eratorritako energia elektrikoa erosten** duela 2020ko urritik aurrera eta beraz, udaleko eraikin publiko, ibilgailu elektriko eta argiterian kontsumitzen den energia elektrikoaren isuriak zero moduan kontabilizatzen dira. Beraz, isuriak eraikinetako gas naturalaren kontsumoari lotuta daude bereziki.


Udal Karbono Aztarna biztanleko aztertzen badugu, **0,013 tCO<sub>2</sub>e biztanleko da 2020an**. Datua EAE gainontzeko udalen batezbestekoa baino txikiagoa (EAE 2018an 0,19 tCO<sub>2</sub>e biztanleko).

Klima-aldaketaren inpaktuei **egokitzeari dagokionez**, Astigarragak 2022 urtera arte ez du zehazki klima-aldaketaren inguruko lanketa estrategikorik burutu, baina bai egin dituela dagoeneko jasaten dituen inpaktuetara egokitzeko eskuhartzeak. Klima eta Energia Planean, udalerrriaren kalteberatasun eta arrisku diagnostikoa burutu zen, esperotako inpaktu nagusiak aurreikusitako eta horietara egokitzeko lan-ildoak eta ekintzak definituz.

Astigarragaren kasuan, arrisku maila handien azaltzen duen inpaktu katea **ibai uholdeek hiri-ingurunean sortzen** dutena da, EAEko udalerrri gehien (%70) gainetik kokatzen da arrisku indize hau. Astigarragako udalerrria Urumea ibaiak eta Galtzaur errekek zeharkatzen dute, zeinak uholde-arrisku handi duten eta **uholde-arrisku adierazgarriko eremuak (UAHE)** gisa identifikatuta dauden Astigarratik igarotzen diren tarteetan.

Zentzu honetan, azken urteetan **eskuhartzeak** egin dira Urumearen ibai tarte honetan, URA Agentziarekin batera, **hobekuntza hidraulikoa sustatzeko eta ibai-uholde arriskua txikitzeko**, ibaiaren joera naturala berreskuratuz, eta herrigunea ur-goraldietatik babestuz. Era berean, **espezie inbaditzaileak kendu**, eta **tokiko landaredia** birlanatu da eremuan.

Esku-hartze honekin bilatzen dena da klima-aldaketak sortzen dituen inpaktuetara egokitzeaz gain, eremu hori **aisialdirako eta naturarekin kontaktua errazteko** bideratzea. 2017. urtean gauzatu zen lehen zatia, eta 2023. urtean ibai parkea handitzeko proiektua idatzi eta prestatu du Udalak, eta 2024-ean zehar **ibai parkea handitzeko proiektua egina** egotea aurreikusten da.



Irudia 16 Uholde arriskua Astigarragan Iturria: URA

Bestalde, **temperatura altuek eta lehorreek lehenengo sektorean inpaktuak** eragitea espero da, estres faktore gisa, animalia eta landareen hilkortasuna eta zenbait gaixotasun agertzeko probabilitatea handiagotuz.

Gainera, **muturreko temperatzen eta bero-boladen intentsitatea handitzearen** eraginak ondorioak eragingo ditu **personen osasunean**, herritarren bizikaltatean eta osasunaren gaineko inpaktu ekonomikoa eraginez.

Ondorio gisa, Astigarragako udala lanean dabil bere udalerrirako espero diren inpaktuetara egokitu, eta **klima-aldaketa eragiten duten BEG isuriak murrizteko** onartu berri den Klima eta Energia Planaren baitan.

**14** ITSASPEKO  
BIZITZA



## 14. ITSASPEKO BIZITZA

### Erreferentziazko helmugak: 14.1

#### Zer jorratzen da helburu honetan?

Funtsean, lehorrean egindako jardueren ondoriozko itsasoko kontaminazioa murriztea bilatzen da.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Ur-saneamenduaren kudeaketa
- Urumea ibaiaren ekosistemaren kudeaketa

#### Zein da udalerrriaren ibilbidea?

Nahiz eta Astigarragako udalerrriak **ez duen kosta eremurik**, bere gertutasuna dela eta, udalerrriaren ur-kudeaketa eta ekosistemek eragina zuzena dute itsas-ekosistemetan.

Alde batetik, ur-saneamenduaren kudeaketa eraginkorrak harreman zuzena du arketen bidez itsasora iristen diren urekin. Udalak arketen mantenu eta

kudeaketa eraginkorra burutzen du, eta uraren saneamenduaren etengabeko hobekuntza gauzatzen da (6. GJH-an jorratzen da hau).

Bestetik, Urumea ibaiaren ekosistemen kudeaketak ere eragin zuzena dauka ondoren itsasora iristen diren uretan, eta beraz, Udalaren eskumeneko esku-hartzeak izango garrantzitsuak dira zentzu honetan (13. GJH-an jorratzen da hau).

# 15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



## 15. LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Erreferentziazko helmugak: 15.1, 15.2., 15.3., 15.5, 15.8, 15.9, 15.a.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

Ekosistemen kontserbazioa, erabilera jasangarria eta horiek lehengoratzea du helburu.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Kutsatutako lur zoruak
- Eremu ez artifizializatua
- Babes bereziko eremuak
- Espazio naturalen kudeaketa eta kontserbazioa

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Lurzoru ez-artifizializatua	%	78,41	78,41	78,41	78,41	78,02	77,83
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen proportzioa	%	8,11	9,6	9,85	9,98	10,4	
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen berreskurapena	m <sup>2</sup>	0	10433	10433	10433	10433	
Baso azalera guztira	%		41,78	42,37	42,04	42,04	42,04
Babes bereziko udal azalera	%	0,75	0,75	0,75	0,75	0,55	0,55


### Zein da udalerrriaren ibilbidea?

Udalerrian **kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen proportzioa %10,4**-koa da (2021). Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak 4/ 2015 Legearen arabera katalogatzen dira, **lurzoruarentzat kutsatzaileak** izan daitezkeen **jarduera edo instalazioak** kokatutako lursailetan. Nahiz eta azken urteetan goranzko joera izan duen, Astigarragako datua Gipuzkoako batez-bestekoaren azpitik kokatzen da oraindik (%15,6-koa 2018.urtean). Bestalde, lurzoru hauek berreskuratzeko ahalegin asko egiten ari dira EAE osoan, konkretuki Astigarragan

**10433 m<sup>2</sup>-ko azalera berreskuratu da** azken urteetan.

Udalerriko **eremu ez artifizializatua ia %78**-koa da, gehiena **basoa eta nekazaritza-abeltzaintza** erabilerako lurzoruari dagokiona. **Basoari** dagokionez, **baso azalera guztia %42,04**-koa da (2022), gehiengoa **hostozabalen** basoa izanik. Alde batetik, **interes handiko habitatak** kokatzen dira bertan, besteak beste, harizti azidofilo eta harizti-baso misto atlantikoa (lurrazalaren %27 ingurukoa), baina bestetik, **eukalipto edota**

**harizti amerikarraz** osatutako basoak ere badaude. Gaur egun, basoari zegokion lurraldearen zati handi bat **abelzaintza eta nekazaritzarako** labore-lur atlantikoz ordezkatu dira.



Irudia 17. Astigarragako azpiegitura berdea Iturria: HAPOa, 2023

Bestalde, datuen arabera, udalerriaren azalera guztiaren **%0,55-a soilik dago babes bereziko eremu gisa** sailkatuta, Gipuzkoako batez-bestekoaren oso azpitik (2018. urtean, %23-koa). Hala ere, **EAEko espezie mehatxatuen katalogoan** agertzen diren hainbat **fauna espeziaren interes bereziko eremuak** baditu (eskulapioen sugea, suge berde-horia, muxar grisa, okil txikia, lepituzlia, zuhaitz-belatza, zapelatz liztorjalea eta antzandobi kaskagorria). **Florari** dagokionez, bakarra dago, gorostia.

Espezie inbaditzaileei dagokionez, *Cortaderiaselloana* landarea topatu daiteke udalerrian.

Udalerriko **espazio naturalen kudeaketa eta kontserbazioa**, beraz, ezinbestekoa da espezie hauen iraupenerako.

Urumea bailarako inguruko udalerrietan bezala, ibaiaren arroan azpiegiturak, etxebizitzak eta industriak kokatzen dira historikoki, eta honek, ibaiertzeko landaredi potentziala nabarmenki murriztu edo mehatxatu izan du, **bertako fauna eta flora kaltetuz**, eta ibaiaren-arroari espazioa kenduz, uholde arriskua areagotuz.

Udalerrian ez dago EAE sarea edo Natura 2000 sarea izendatutako natura eremu babesturik, baina **Aiako Harriak Parke Naturalak** udalerriaren hegoaldearekin egiten du muga, babestu beharreko eremu periferikoaren zati bat udalbarnean geratuz. Gainera, udalerriaren zati handi bat, hegoaldean, **EAEko korridore ekologikoen** sarea dago barneratuta, Aralar-Aiako Harria eta Aiako Harria-Jaizkibelen artekoak. HAPOan ere Santiagomendi eta Landarbaso sektoreen arteko beste konektagarritasun-fluxu batzuk ahalbidetzeko proposamen baten beharra azpimarratzen da.

Azkenik, udalerriaren ipar-ekialdean 600ha-ko hedadura duen **Lau Haizeta Parkea** aisialdi-eremua kokatzen da, Astigarraga, Donostia eta Errenteriako udalerrien parte dena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren plan berezia duena.

**16** **BAKEA, JUSTIZIA  
ETA INSTITUZIO  
SENDOAK**





## 16. BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

Erreferentziako helmugak: 16.1, 16.6.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

GJH honetan bizikidetza, partaidetza eta gardentasunari lotutako alderdiak hobetzea da helburua.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Bizikidetza
- Partaidetza, gardentasuna eta kontu ematea

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Herritarren parte-hartzeko prozesuak	Kop.			2	2	2	2	4
Betetze-mailaren eta emaitzen ebaluazioa argitara eman dituzten udal planak eta programak	%							
Aurrekontu parte-hartzaileetan herritarren eskura jarri den kopurua	€				210.000	110.000	120.000	240.00

### Zein da udalerraren ibilbidea?

Udalak herritarrei begirako **parte-hartze prozesu ugari** jarri ditu martxan azken urteetan, batzuk arrakastatsuagoak eta besteak gutxiago izan direlarik. Hain zuzen, Udalaren gobernantzaren ardatzetako bat da, herritarren iritzia entzun eta udal-plangintzan txertatzea, hori dela eta, "**Parte-hartze, Informazio eta Gardentasun Arautegi**" propioa landu zuen 2016 urtean. Bertan, Astigarragako herrian bizi diren pertsona egoiliarrek udal gobernu eta administrazio eginkizunetan parte hartzeko eta egiazko informazioa

zuzenean jasotzeko tresnak eta prozedurak arautzen dira. Horrela, Udalaren osoko bilkuretan, batzorde informatiboetan, herri-ekimenetan, kontratazio mahaietan, herri- auzo galdeketetan eta aurrekontu partehartzaileetan parte hartzeko prozedurak azaltzen dira. 2019-2024 denbora tartean, urtero gutxi gora-behera bi parte-hartze prozesu burutu dira.

- **2020-2021**: Astigarragako Animalien araudia berrikusteko prozesua.

- **2021**: Kiroldegia handitzeko proposamenari ekarpenak.
- **2021-2022**: “Jolastuko al gara?” haurparkeen inguruko prozesua.
- **2021-2022**: Sagardoetxearen inguruko etorkizuna erabakitzekeo prozesua.
- **2022**: “*Gabonetako argiak bai ala ez?*” prozesua.
- **2022-2023**: Santio Jaien kartela aukeratzeko prozesua.
- **2023-2024**: Dugun Astigarragarantz Herri-gogoetak (Berdintasuna, Irisgarritasuna, Euskara, eta Toki Garapen Jasangarria).

Horrez gain, badaude **partaidetzarako beste mekanismo** batzuk; esate baterako, jaien antolaketarako *Jai Batzordea* eraten da, eta herriko eragileekin urteroko bilerez gain, intereseke gaien baitan bilerak ere antolatzen dira.

**Harrerari** dagokionez, herrian erroldatu berri diren norbanakoei eta familiei ongietorria emateko asmoz **Udalak ongietorri opari** bat eman ohi die azken urteotan: Sagardo Etxeko esperientzia (ordubeteko bisita eta dastaketa) doan. Astigarraren izaeraren eta kulturaren parte den sagarrari eta sagardoari lehen gerturatze bat izateko eta etorri berriak elkar ezagutzeko helburuarekin.

Bestalde, herriaren **jatorria eta memoria** ezin dira alboratu. Horretatik, Udalak azken urteotan bi helburu nagusi izan ditu: batetik, **iraganean gertatutako egoera lazgarriak gogoraztea eta biktimen eta hain inguruko aitortza eta erreparazioan** bidea egitea; bestetik, aurreko astigartarren ekarpenak gogora ekartzea eta transmitzea. Bereziki bi egun esanguratsu ditu Udalak: **azaroaren 10a**, memoriaren eguna, herriko biktimei

aitortza egiteko ekitaldia egiten da; eta **abenduak 11**, giza eskubideen nazioarteko eguna. Gainera, 2019. urtean **Gernikako Arbolaren oinordeko bat landatu** zen Murgia parkean memoriaren eta bakearen gune sinboliko izateko.

Bestalde, 2017. urtean Maddalen Laburu historialariak **gerra zibila eta frankismo garaiko (1936-1945) Astigarrako biktimei buruzko ikerketa-lana** gauzatu zuen, Udalak argitaratutako memoria berreskuratzeko beka deialdi baten markoan. Ikerketa-lan hori abiapuntu gisa hartuta, 2023. urtean **“Orri zuriak betetzen” dokumentala ekoitzi du Udalak**. Eneritz Aulestia eta Unai Alberdik zuzendutako, eta Maddalen Laburu berak ekoizitako dokumental honek herritarren artean harrera bikaina izan du eta gerra zibileko eta frankismo garaiko Astigarragako biktima izan ziren astigartarrak aitortzea, errekonozitzea eta gazteenek gertatu zena ezagutzea izan du helburu. 2022. urteko otsaila eta maiatza bitartean **Biktimen Bulegoa** zabaldu zuen Udalak, Astigarragan frankismoaren aurkako kereilak edo salaketak jasotzeko eta biktimei edo horien senide guztiei laguntza juridikoa emateko. Bost biktimen inguruko testigantzak jaso ziren, euren senitartekoek helarazitakoak.

Azkenik, gaur egun, 2024. urteko **sagardotegi denboraldiari begira, elkarbizitza sustatzeko kanpaina** bat diseinatzen ari da Udala, herriko eragileekin batera.

Udal-barnean, biztanleriaren hazkundera dela eta, suertatzen diren behar guztiei erantzuna emateko **baliabide** fisiko zein pertsonal **nahikoak izan eta koordinatzea erronkatzat** jotzen da, eta horretan ari da lanean.

**17** HELBURUAK  
LORTZEKO  
ALIANZA



## 17. HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK

Erreferentziazko helmugak: 17.2., 17.14., 17.18.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

Helburu honetan beste eragile publiko eta pribatuekin saretu eta lankidetzan jardutea eta garapen bidean dauden herrialdeekin elkartasun jarduera sustatzea jorratzen da.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:

- Gobernantza: inter instituzionala, eragile ekonomiko, sozial, kultural, inguruneekin...
- Gizarte kooperazioa eta boluntariotza

### Zein da udalerriaren ibilbidea?

Astigarragako udala hainbat **sare eta aliantzetan** kokatzen da, eta bestelako administrazioekin eta herriko zein eskualde edo lurralde eragileekin elkarlanean aritzen da, aliantza, hitzarmen edo proiektu amankomunen bidez.

Hala ere, **erronka gisatzat** hartzen da **governantzan lan** egitea, eta eragile zein maila desberdinetako erakundeekin lan egitea.

Astigarragako udalerriak azken urteotan izan dituen aldaketak direla eta (demografiaren hazkundeari oso lotuta) eskuartean dituen erronkei erantzun ahal izateko, **governantzan lan** egitea, eta eragile zein maila desberdinetako agenteekin lan egitea ezinbestekoa izango da. Alde batetik, esku hartu nahi diren hainbat alorretan eskumenak beste erakunde batzuei dagozkielako, esate baterako, osasuna, edo garraio publikoa (Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin), eta bestetik, eragin nahi diren alorrak duten konplexutasunagatik, **funtsezkoa zaio**

**lankidetzan jardutea** beste instituzio eta eragile ekonomiko, sozial eta ingurumenekoekin:

- **Governantza inter-instituzionala:** GFA; Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Hezkuntza, ETS, Haurreskola Patzuergoa, Euskal Trenbide Sarea Innobasque,...
- **Beste aldetik, udalaz gaindiko hainbat erakundetako kide da:** Beterri – Buruntza Mankomunitatea, Garbitania, Añarbe Urak, San Markos Mankomunitatea, Behemendi, Sagardun Patzuergoa eta UEMA mankomunitatea.
- **Udalerri mailako gobernantza:** Herriko kultur- eta kirol-elkarte eta eragileak, berdintasuneko eragileak, merkatariak, ingurune eta arlo ekonomikoko eragileak, guraso eta bizilagun elkarteak...

Gainera, udaleko Gizarte Zerbitzuetatik **gizarte kooperazio eta boluntariotzako** programa, eta garapen bidean dauden herrialdeekin elkarlana kudeatzen dute.

# 18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA



## 18. HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA

Erreferentziazko helmugak: 18.1., 18.2., 18.3., 18.4., 18.5., 18.7., 18.8., 18.9., 18.10., 18.141., 18.15., 18.16., 18.17., 18.18.

### Zer jorratzen da helburu honetan?

Funtsean, euskararen ezagutza, erabilera eta transmisioa sustatzea eta kultura pertsona guztien eskura jartzea sustatzen da.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira:


- Euskararen egoera eta euskararen erabilera sustatzeko planak
- Zerbitzu eta baliabideak
- Kultur ekintzak eta jarduerak

### Zer esaten digute datuek Astigarragaz?

ADIERAZLEA	U	2016	2018	2019	2020	2021	2022
Euskararen ezagutza	%	64,74				64,97	
Euskaldun alfabetatuak	%	56,05				53,78	
Euskaldun erdi-alfabetatuak	%	5,75				6,11	
Euskaldun alfabetatu gabeak	%	2,94				5,08	
Ia-euskaldunak	%	15,96				18,44	
Ia-euskaldun alfabetatuak	%	11,11				11,22	
Ia-euskaldun alfabetatu gabeak	%	2,68				4,07	
Ia-euskaldun hartzaileak	%	2,18				3,15	
Erdaldunak	%	19,30				16,59	
2 urtetik gorako populazio euskalduna	Kop.					4.453	
D Ereduan ikasten duten ikasle kopurua	Kop.	607	628	661	731	745	792


## Zein da udalerraren ibilbidea?

Astigarraga, **udalerrri euskalduna** da, datuek hala adierazten dute, 2021-2022 urteetan pertsona **euskaldunak eta ia-euskaldunen** portzentaia **%74,25-ekoa** da. Ezagutza mailaren kalkulua egiteko, euskaldunen portzentaia (%65) eta ia-euskaldunen portzentaiaren erdia (%9,25) hartzen da kontutan.



Grafikoa 2 Euskararen inguruko ezagutza Astigarragan. Iturria: UEMA, 2021

Erabilpenari dagokionez, ondorengo grafikan ikusi daiteke **euskararen erabilera altuena hurrek (2-14 urte) eta gazteek (15-24 urte)** dutela, eta txikiena ordea, heldu nagusiek (25-64 urte). Herrian dagoen hezkuntza eskaintzaren %100-a D eredia da.



Grafikoa 3 Euskararen erabilera adinaren arabera. Iturria: Euskara Plana 2024-2029

2022. urteko abendutik aurrera, Hernanirekin batera, **Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen** (UEMA) kide da. Herrian gora egin badu ere euskararen

ezagutzak, aldea handituz ari da ezagutzaren eta erabilaren artean. Alde hori murrizteko eta udalen zein udalerrien euskalduntzean sakontzeko, UEMA-ren esperientzia eta zerbitzuez baliatzen ari da udala. Euskararen biziberritze planak diseinatzea eta herritarren kontzientziazioan eragitea izan dira lehen erronkak.




Gaur egun, Udala, herri-gogoetak prozesuaren barruan, **euskara plan estrategiko** berria eratu

du, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko AROA marko estrategikoa oinarri hartuta. **Euskara Sustatzeko Ekintza Plana** oinarri hartuta, euskararen biziberritze prozesua bideratu eta euskararen erabilera sustatzeko 2024-2029 plan estrategikoa egikaritu nahi da. Bertan ondorengo ondorioak ateratzen dira:

- Ezagutzan, **gaitasunean gorakada** izan da
- **Lehen hizkuntzatzat** duen herritar kopurua **jaitsi** egin da eta **etxeko erabilera euskara soilik** erabiltzen duen pertsona kopurua ere.
- **Kaleko erabilerrari** dagokionez, **%31,8-koa** da, hau da, kalean behaketa bidez atzemandako elkarrizketen **%31,8-a** euskara hutsean izan da. Gipuzkoako datuaren oso antzekoa da (%30,6). Nahiz eta erabilera hori areagotzea, zalantzarik gabe, datozen urteetako erronka nagusienetako bat izango den.

- Euskararen erabilera **adin tarteari** erreparatuz gero, aldea nabaritzen da. Haur eta gazteak dira (2-24 urte bitartekoak) euskararen erabilera altuena dutenak.



Irudia 18 Euskararen erabilera bilakaera Iturria: Euskara Plana 2024-2029

Testuinguru hori aintzat hartuta, datozen urtetako **erronka nagusienetako bat euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko** berariazko estrategiak garatzea izango da; euskararen babesguneak indartuz eta berriak sortuz, euskarazko zaintza zerbitzuak eta euskararen komunitatea indartzeko ekimenak burutuaz, etab.

Horretaz gainera, Euskararen ezagutza areagotzeko, euskararen aldeko jarrera areagotu eta hitzunen ahaldunderako eta hitzunen ohitura eta portaeretan eragiteko hainbat ekintza aurreikusten dira.

Erronka horiek guztiak lortzeko euskararen erabilera sustatzeko 2024-2029 plan estrategikoan 6 ardatz estrategikoren baitan ia 100 ekimen jasotzen dira. Udaleko jardunari dagokionez, **euskara sailetik** euskara ikasteko eta erabiltzeko ekimenak gauzatzen dira: kultur arloko jarduerak, eskolaz kanpokoak eta kirol arlokoak euskaraz eskaintzea, euskara ikasteko dirulaguntzak ematea, herrian euskalgintzan diharduten taldeekin

elkarlana bultzatzea... Gainera, udal kontratu, esleipen, subentzio eta abarretan hizkuntz irizpideak txertatu, **euskararen udal-ordenantza betearaztea** eta egoera berrietara egokitu, udaletxean euskararen erabilera normalizatzeko plana burutu, eta hezkuntza hobetzeko herriko eskola publikoarekin eta musika eskolarekin harremana kudeatu eta dirulaguntzak bideratzea dira sailaren bete-beharrak.

**Kulturari** dagokionez, udaleku Kultur Sailetik kultur **eskaintza programatu eta antolatzen** da. Herriko jaien programazioa, herriko talde eta eragileekin lan egitea eta hitzarmenak zein diru-laguntzak kudeatzea, eta kultur-ekipamenduen kudeaketa egitea dira esku-hartze nagusiak.

Gainera, herrian badaude hainbat **kultur-elkarte eta eragile**, ekarpen handia egiten diotenak herriko izaera eta bizigarritasunari, besteak beste:

- A.E.K.
- Aiztondo abesbatza
- Astigar dantza taldea
- Astigarte taldea
- Gazte asanblada
- Gure Izarra elkarte
- Romaneasca
- Xaguxar taldea
- Zipotza elkarte
- Goldea herri kirol batzordea
- Danak Bat Ergobiako kultur elkarte
- Harituz elkarte
- Guraso elkarte
- Txirriskla txistulari elkarte
- Sagararte



# IDENTIFIKA- TUTAKO ERRONKAK

**Zein dira hurrengo urteetara begira  
Astigarragak dituen erronka  
nagusiak?**

## 5. IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK

Astigarragako herriko diagnostikoa burutu ostean, alde batetik, datu eta adierazleetan oinarrituta, eta bestetik, udaletxeko teknikari, ordezkari politiko, herritar eta eragileekin egindako **parte-hartze prozesua** kontutan izanik, udalerriak 2030 urtera begira dituen **erronka nagusiak identifikatu** dira.

Erronka horietako asko **konplexuak** dira, eta nahiko **orokortuak**, Astigarragan ez ezik, **egungo gizartearen beharrekin lerrokatzen** dira. Gainera, batzuetan, erronka hauek, **udal eskumenetatik kanpo** geratzen dira (esate baterako, etxebizitzarako aukera, garraio publikoaren eskasia, klima-aldaketaren mehatxua edo landa-bizitzaren gainbehera). Kasu horietan, koordinazio eta **lanketa instituzionala** berrantolatzea, **eragileen arteko sinergiak** bultzatzea eta **governantzan eredu integratu** batean lan egitea ezinbestekoa izango da. Azkenik, erronka konplexu hauetako asko **ez dira berriak**, izan ere, udalerriko aurreko **Iraunkortasunerako Ekintza Planean (2013-2020)**, eta **Klima eta Energia Planean (2023-2030)** dagoeneko identifikatuta eta jasota zeuden.



Illo horretan, Astigarragako Udalak datozen lau urteetako **Legegintzaldi Plan (2023-2027)** integratu bat landu du, herrian aspalditik identifikatuta dauden erronkei erantzuna emateko asmoz. Bestalde, 2023. urtean zehar **A\* Nahi dugun Astigarragarantz** herri-gogoeta prozesuak jarri ditu martxan, herritarren beharrak entzun eta erantzuna emango dieten politika publikoak bideratzeko asmoz. Bertatik eratorri dira **Berdintasuna, Euskara, Irigarritasuna** eta **Tokiko Garapen Jasangarriko Planak**. Herri-gogoeta horietan herritarrek, eragileek, teknikariek eta ordezkari

politikoek hartu dute parte, eta Udalak dagoeneko landu eta lehenesten zituen esparruak **herritarren kezka nagusi ere badirela berresteko** balio izan dute.

Plan honetan, Tokiko Garapen Jasangarriko prozesutik eratorritako erronkei erantzuna emateko lan-lerroak jaso dira, nahiz eta, **planteatzen diren ekintzetako batzuk Udaleko beste planetan ere jasotzen diren** (esate baterako, Legegintzaldi Plana, Klima eta Energia Plana, Mugikortasun Plana, etab.).

Zehazki, identifikatu diren **erronkak eta lan-ildoak** ondorengoak dira:

**1. Herritar guztien ongizatea eta aukera berdintasunak bermatzea.** Horretarako, bereziki, **zaugarritasun egoeran** egon daitezkeen herritarrak identifikatu eta atzean ez uzteko politikak diseinatu nahi dira. Alde batetik, egungo **zaintza eredu eraldatzeko** beharra azaleratu da, inguruan edo beste eskualde batzuetan martxan dauden zaintza eredu berritzaileak aztertu eta kontutan hartzea da asmoa. Bestalde, azken urteetan Astigarragak izandako hazkundeak, etxebizitzarako sarbidearen arazoa areagotu du. Hori dela eta, herritarrei **etxebizitza duin baterako eskubidea** ahalbidetzeko lanean jarraitzeko konpromezua hartu du Udalak. Gainera, emakume eta gizonen arteko **genero arrakala murriztu** eta berdintasuna lortzeko zeharkako politikak lantzen jarraituko du. Azkenik, **hizkuntza eskubideak bermatu** eta herriaren errealitate berrira egokitutako hizkuntza-politikak ere martxan jarriko dira.

**2. Udalerraren errealitatearekin bat egiten duten zerbitzu, programazio eta ekipamenduak bermatzea.** Azken urteetan Astigarragak jasan duen biztanleriaren gorakadarekin lotuta, egungo zerbitzu, programazio eta ekipamenduak egokitzeko beharra ikusten da.

Horretarako, herritar desberdinen **beharretara egokitutako azpiegiturak eta zerbitzuak** eskaini nahi dira; hezkuntza, osasuna, irisgarritasuna, aisialdia, kirol zein kultura zerbitzuen eskaintzari dagokionez. Gainera, herrian **mugikortasun jasangarria, inklusioa eta eraginkorragoa** ahalbidetzeko azpiegitura eta zerbitzuak izateko lanean jarraitzea da asmoa.

**3. Udalerriko garapen ekonomikoa indartu, sektore desberdinen ekarpena balioan jarri eta kalitatezko enplegua sustatzea.** Alde batetik, herriko **industria-gune, enpresa, langabetu eta ekintzaileen beharrak** ezagutu, eta behar horiek asetzerantz bideratutako bide-laguntza eta zerbitzuak eskaini nahi dira, Beterrri Buruntza Mankomunitatearekin lankidetzan, herrian bertan **kalitatezko enplegu duina** sustatuz. Gainera, herriko industria-guneko enpresekin harremanean sakondu nahi da, **lankidetzako publiko-pribatu** batean oinarritutako kudeaketa eredu parte-hartzaileago bat eraikitzeko. Bestalde, herriko eragileekin batera, herri-guneko tokiko merkataritzaren behar kadari aurre egin eta **merkatal-gune bizi eta aktiboa** bihurtzeko helburuarekin ekimenak diseinatuko dira. Lehenengo sektoreari eta baserri munduari Erronka hauetatik, ondorengo **lerro-estrategikoak** eratorri dira:

dagokionez, **bere iraupena, profesionalizazioa eta jarraipena** sustatzeko lanean jarraituko da, sektoreko eragileekin lankidetzan. Azkenik, eskualdeko **turismo plana** garatu eta turismo eskaintzaren desestazionalizazioan lanean jarraituko da.

**4. Herri ingurunea zaindu eta klima krisialdiari erantzutea.** Hiri-guneaz gain, Astigarragako **natur-gune eta espazio berdeak zaindu** eta bertako ekosistemen kudeaketa jasangarrian lanean jarraitzea garrantzitsua da, ingurumen ikuspuntutik eta baita gizarte-ikuspuntutik ere, herriaren osasunari egiten dioten ekarpena kontutan hartuz. Horrez gain, **klima-krisialdi egoerari** erantzun eta bere inpaktuetara egokitzeko politikak sustatzen jarraituko da; trantsizio energetikoa eta hondakinen kudeaketa jasangarria sustatuz.

**5. Astigarraga herri bizi, aktibo eta kohesionatu bat izan dadin sustatzea.** Erronka hori lortzeko, **herri-izaera, euskara, eta nortasuna** bultzatu, herritarren **partaidetzarako** bideak ahalbidetu eta herritar guztientzako bizigarria den udalerrri eredu eraiki nahi da.

**LE1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA.**

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA.**

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ.**

**LE4. HERRI-INGURUNEA ZAINDU ETA KLIMA-KRISIALDIARI ERANTZUNGO DIOTEN POLITIKAK BERMATZEA.**

**LE5. ASTIGARRAGA HERRI BIZI, AKTIBO ETA KOHESIONATUA IZAN DADIN SUSTATZEA.**

# EKINTZA- PLANA




**Zein dira martxan jarriko diren lerro  
estrategiko eta ekintzak?**

## 6. TOKIKO GARAPEN JASANGARRIKO EKINTZA-PLANA






Jarraian, Astigarragako Tokiko Garapen Jasangarriko **ekintza-planaren eskema** jasotzen da, lerro-estrategiko, programa eta ekintza mailan antolatua eta nagusiki zein GJH-ri ekarpena egiten dion adierazita:

### LE1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA.

#### 1.1. Zaintza eredu berritzaileak sortzea.

1.1.1.	Astigarragako zaintza ereduaren ikerketa soziodemografikoa burutu eta eredu berritzaile eta burujabeen bideragarritasuna baloratu	
1.1.2.	Pertsona nagusien bidelagun izateko sarea eraiki	
1.1.3.	Herriko zaurgarritasun egoeran dauden umeak aisialdian laguntzeko lan-lerro bat eraiki	

#### 1.2. Herritarrek herrian bertan etxebizitza duina izateko aukera bermatzea.

1.2.1.	Udalerriko Etxebizitza Mahaia eratu.	
1.2.2.	Astigarraga <i>hiri-tentsionatu</i> gisa izendatzea.	
1.2.3.	Alokairuko diru-laguntza sistema diseinatu eta martxan jartzea.	
1.2.4.	Udalerriko etxebizitza hutsen inguruko azterketa garatu	
1.2.5.	Alokairu sozialak eraikitzeko lurzoru publikoa eskuratu	

#### 1.3. Berdintasuna.







1.3.1.	IV. Berdintasun Plana garatzea	
--------	--------------------------------	---

#### 1.4. Euskara.






1.4.1.	Euskara Plana garatzea	
--------	------------------------	---

## LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA.



### 2.1. Herriko oinarrizko azpiegiturak herritarren beharretara egokitzea




2.1.1.	Herri eskola handitzeko proiektua garatu, eta DBH eraikina eraikitzeke lanak martxan jartzea (Hezkuntza Sailarekin elkarlanean).	
2.1.2.	Herrian ludoteka bat eraikitzeke proiektua landu eta martxan jarri.	
2.1.3.	Euskaltegiaren egoitza berria eraiki Nabarra-Oñatzen.	
2.1.4.	Osasun-zentro berria eraiki (Osakidetzarekin lankidetzan).	
2.1.5.	Jolastokiak berritu eta berriak gauzatu	
2.1.6.	Espazio publikoa bizigarriagoa egiteke eskuhartze arinak burutu.	

### 2.2. Herritarren profil desberdinen beharrei erantzungo dion kirol eta kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzea.

2.2.1.	Kiroldegia handitzeko proiektua idatzi eta burutu	
2.2.2.	Egungo kultur eta kirol zerbitzuek (ikastaroak, ordutegiak etab.) biztanleen beharretara egokitu	
2.2.3.	Udal zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatzeko prezio sistema egokitu	
2.2.4.	Erribera kultur-gunean erabilera autonomoa sustatu	
2.2.5.	Kultur agenda partehartzailea eragileekin landu	









### 2.3. Mugikortasun jasangarria, inklusioa eta eraginkorra sustatzea

2.3.1.	Aldiriko tren geltokia eraiki	
2.3.2.	Taxi zerbitzuaren eraginkortasuna hobetu	




2.3.3.	Autobus zerbitzu publikoa herritarren beharretara egokitu	
2.3.4.	Herri barneko eta beste herriein lotutako bide-gorri sarea zabaldu	
2.3.5.	Donostiako Dbizi bizikleta alokairu sistema publikoa Astigarragara hedatu	




### LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ.

#### 3.1. Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzailtza zerbitzu eta baliabideak martxan jarritz.

3.1.1.	Eskualdeko Enplegu Planaren eraketan parte-hartu	
3.1.2.	Eskualdeko enplegu zerbitzuen definizioan, artikulazioan eta gobernantzan parte-hartu	
3.1.3.	Eskualdeko enplegu-bitartekaritza, enplegu orientzio zerbitzua eta langabetuentzako prestakuntza abian jarri	
3.1.4.	Eskualdeko ekintzailtza zerbitzuen eraketan, artikulazioan eta gobernantzan parte-hartu	
3.1.5.	Eskualdeko ekintzaileen saretzea sustatu	
3.1.6.	Eskualdeko ekintzaileen sendotzera bideratutako zerbitzuen eraketan parte-hartu	
3.1.7.	Sektore espezifikoetarako ekintzailtza ibilbideak diseinatu eskualde mailan	
3.1.8.	Giza talde zaugarrientzako enplegu aukerak aztertu eta berariazko ekimenak abian jarri	

#### 3.2. Herri-gunea tokiko merkataritza gunea bizia bihurtzea.

3.2.1.	Etorkizun hurbileko herriko kontsumitzaileen beharrak ezagutzeko ikerketa bat burutzea	
3.2.2.	Herrian eta bertako produktuak kontsumitzearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat zabaltea	
3.2.3.	Merkatariak herritarren beharrei erantzuna eman eta profesionalizatzeke aholkularitza eta formazioa ematea	





3.2.4.	Herriarekin konprometitutako "Komertzio Lagunkoi" sare bat osatzea (umeei eta adineko pertsonen erreferentzia puntu gisa)	
3.2.5.	Herrian kontsumitzea sustatzea: sustapen gurutzatua bultzatzea tokiko merkatarien artean	
3.2.6.	Herriko merkataritza gune nagusia izandakoan hirigintzako esku-hartzen bidez (HAPO) bizigarritasuna sustatzea.	

### 3.3. Lehenengo sektorearen iraupena, profesionalizazioa eta landa-eremuaren jarraipena bermatzea.




3.3.1.	Santiagomendiko hiritartzea gauzatu	
3.3.2.	Baserritarren Mahaiari jarraipena eman	
3.3.3.	Udalerriko Elikadura Mahaia sortu proiektuak sustatzeko organo bezala	
3.3.4.	Umako azona-gunea eraiki	
3.3.5.	Nekazaritza ekintzailtza sustatzeko ekimen pilotuetan parte hartu	
3.3.6.	Udalerrian lehenengo sektoreko ekoizpena handitzeko moduak sustatzeko lurren azterketa publiko zein pribatua burutu, eta lur-poltsa bat eratzeko bitartekaritza gauzatu.	
3.3.7.	Baserrien ondorengotzari begira eredu berritzaileak aztertu eta proiektu pilotuak martxan jarri	
3.3.8.	Elikagaien eskaeraren beharrak aztertu, eta horren arabera ekoizpen gaitasunak aztertu.	
3.3.9.	Merkaturatze bideak zabaltzea; ekoizle, merkatarien, jatetxe, enpresa eta sagardotegien arteko elkarlana sustatuz	
3.3.10.	Sektorearen profesionalizazioa sustatzeko bideak ahalbidetu	
3.3.11.	Baserritarren bizimodua duintzeko beharrak identifikatu eta hauei erantzuna eman	
3.3.12.	Tokiko ekoizpena eta ingurumenaren zaintzarekin lotutako hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainak burutu	
3.3.13.	Baserritu munduak egiten dituen ekarpenak errekonozitzeko ekintzak gauzatu	
3.3.14.	Udal zerbitzuen elikadura sistema burujabe eta jasangarria garatzeko proiektuaren bideragarritasuna aztertu	



### 3.4. Industria poligonoetako enpresen akonpainamendua egitea.






3.4.1.	Zarkumendegiko industrialdea hiritartzeko lanak amaitu	
3.4.2.	Industria poligonoetako enpresen arteko elkar ezagutza sustatu	
3.4.3.	Enpresa elkarte eta Udalaren arteko interlokuzioa erraztu eta lankidetzak publiko-pribatu sustatu	
3.4.4.	BBU mankomunitateren eskutik berrikuntza eta iraunkortasun baliabideak bideratu	

### 3.5. Turismo ereduaren inguruko lanketa burutzea.

3.5.1.	Eskualdeko Turismo Plana garatu	
3.5.2.	Txotx garaiko desestazionalizazioa landu	
3.5.3.	Turismo sektoreko eragileak profesionalizatzeko baliabideak erraztu	

## LE4. HERRI-INGURUNEA ZAINDU ETA KLIMA-KRISIALDIARI ERANTZUNGO DIOTEN POLITIKAK BERMATZEA.

### 4.1. Herria klima-aldaketaren inpaktuera egokitzeko ekintzak burutu eta herritarrak sentsibilizatzea.

4.1.1.	Urumea ibaiko eskuhartzeak jarraitu, eta herria klima-aldaketaren inpaktuera egokitzeko bestelako ekintzak burutu	
4.1.2.	Santiagomendiko eta Anuska auzoko hiritartzea gauzatzea eta Sagardotegi zeharreko saneamendua burutzea	
4.1.3.	Herriko hiri-ingurunea berdatu eta naturan oinarritutako soluzioak txertatzea	
4.1.4.	Eraikin berri eta eraberrituetan teilatu berdeak sustatu	
4.1.5.	Herriko babesleku klimatikoaren sarea identifikatu eta martxan jarri	

#### 4.2. Energia berriztagarrien erabilera sustatu eta burujabetzako alternatibak eraikitzea.

4.2.1.	Udal instalazioetan eguzki plakak jarri.	
4.2.2.	Udalerriko Tokiko Energia Komunitatea sortzeko pausoak eman.	
4.2.3.	Baratze fotovoltaikoa eraiki.	
4.2.4.	Herritarrei eta jarduera ekonomikoei zuzendutako Energia Bulegoa sortu eta herritarrak sentsibilizatzea.	
4.2.5.	Herrian ibilgailu elektrikoentzat karga puntuen ezarpena aztertu.	



#### 4.3. Hiri-hondakinen kudeaketa jasangarrian aurrerapausoak ematen jarraitzea.

4.3.1.	Hiri-hondakinen sorrera murriztu eta kudeaketa hobetu, eta Zero Waste ziurtagirian hirugarren izarra lortzea	
4.3.2.	Udalerraren hondakinen inguruko sentsibilizazioa indartu eta herritarrei informazioa helarazi	
4.3.3.	Auzo eta auto konpostako erabiltzaile kopurua handitzeko estrategia abiatu	

### LE5. ASTIGARRAGA HERRI BIZI, AKTIBO ETA KOHESIONATUA IZAN DADIN SUSTATZEA.

#### 5.1. Herritarren partaidetza sustatu, eta herri izaera eta nortasuna bultzatzea.

5.1.1.	Partaidetza lantzeko espazio eta egitura berriak eraiki	
5.1.2.	Indarrean dauden partaidetza espazioak indartu	
5.1.3.	Adinekoen espazioa sortzeko prozesu parte-hartzailea garatu, adineko pertsonekin eta adinekoen elkarte eta eragileekin	
5.1.4..	Kultur Etxe zaharra gazteentzat izateko proiektua lantzeko parte hartze prozesua garatu, gazteekin eta eragileekin.	
5.1.5.	Herriko Harrera Plana eratzea	

5.1.6.	Herri kurrikuluma garatzea herriko ikastetxeekin	
5.1.7.	Ikasketa amaierako lanak Astigarragaren inguruan eta euskaraz garatzeko diru-laguntza	

# PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Nola egingo da plan honen  
jarraipena, kudeaketa eta  
ebaluazioa?

## 7. PLANAREN EBALUAZIO ETA JARRAIPEN SISTEMA

Plana elementu bizia eta baliagarria izan dadin, ezinbestekoa da **ebaluazioa eta jarraipena egitea**, planen eta politika publikoen kudeaketa eraginkorra eta administrazioan gardentasuna sustatuz. Gainera, jorratu diren adierazle desberdinen bilakaera ezagutzea ezinbestekoa izango da, planteatzen diren ekintzen eraginkortasuna neurtu ahal izateko.


Horretarako, planaren **jarraipenerako lantaldea edo mahaia** sortuko da, udal-technikari eta ordezkari politikoez osatua, planaren eraketak Talde Gidaria izan dena kontutan hartuz:

- Tokiko Garapen Saila
- Ingurumen Saila
- Ingurumen Zinegotzia
- Alkatea

Honakoak dira planaren jarraipenerako ezartzen diren **pausoak**:

- Urtero **planaren ebaluazioa** egingo da, ekintza bakoitzaren ezarpen edo exekuzio maila neurtzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, eguneratu egingo dira (ekintzak birformulatu edo ekintza berriak sartu).
- Era berean, planean zehaztutako **adierazleen kalkulua** egingo da, gauzatzen ari diren ekintzekin lortzen ari diren emaitzak neurtu ahal izateko.
- Gainera, hurrengo urtean martxan jarri daitezkeen **jarduerak programatuko** dira, Udalaren aurrekontuak kontutan izanda.

Proposatzen den jarraipenaren sistema Udalsarea 2030-en baitan eskuragarri dauden tresna eta metodologiak hartzen ditu kontutan, zehazki **e-mugi aplikatiboa**, baliabide amankomunak aprobetxatuz eta datuak alderagarri bihurtuz.



Esan bezala, jarraipen sistema horrek **udal-planen kudeaketa aktiboa** sustatzen du, **governantza-eredu berri bat eraikitzea ahalbidetuz**, eta hainbat arlotan aliantzak eta sinergiak sustatuz. Alde batetik, udal-sailen arteko **koordinazioa eta talde-lana**

sustatzen da, eta, bestetik, **Udalaren eta herritarren arteko zubiak** sortzen laguntzen du, eta politika publikoen kudeaketa parte-hartzailerako bide bat errazten du.

**ERANSKINAK**

## EKINTZA-PLANAREN KARAKTERIZAZIORAKO FITXAK

L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA			
PROGRAMA	1.1.	Zaintza eredu berritzaileak sortzea	
EKINTZA	1.1.1.	Astigarragako zaintza ereduaren ikerketa	soziodemografikoa burutu eta eredu berritzaile eta burujabeen bideragarritasuna baloratu
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburua udalerriko egungo zaintza ereduaren inguruko azterketa soziodemografikoa burutzea da, horretarako, pertsona dependienteen beharrak aztertuz eta udalak herritarren eskura jartzen dituen zerbitzu eta aukera desberdinekin alderatuz. Gainera, beste herri edo lurraldeetan gauzatzen martxan dauden zaintza eredu berritzaile eta burujabeak aztertuko dira, eta hauek herrian inplementatzeko duten bideragarritasuna aztertu.</p>			
<b>Kostua</b>	5.000€-15.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Gizarte Zerbitzuak	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	11 ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA/ BIENESTAR E INCLUSIÓN SOCIAL	<b>GJH</b>	03. OSASUNA ETA ONGIZATEA/ 03. SALUD Y BIENESTAR



**L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA**

<b>PROGRAMA</b>	<b>1.1.</b>	<b>Zaintza eredu berritzaileak sortzea</b>	
<b>EKINTZA 1.1.2. Pertsona nagusien bidelagun izateko sarea eraiki</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburua udalerriko adineko pertsoneri zaintza eta konpainia emateko bidelagunen boluntario sarea eraikitzea da. Zentzu honetan, Udalak sarea eraikitzekeo baliabideak eskuragarri jarri eta sarea beraren sustapena burutuko du, eta herriko eragile eta herritarren beharrak bideratuz.</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Gizarte Zerbitzuak	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	11 ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA/ BIENESTAR E INCLUSIÓN SOCIAL	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

**L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAUGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA**

<b>PROGRAMA</b>	1.1.	Zaintza eredu berritzaileak sortzea	
<b>EKINTZA</b>	1.1.3.	Herriko zaugarritasun egoeran dauden umeak aisialdian laguntzeko lan-lerro bat eraiki	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Zaugarritasun egoeran egon daitezkeen haur eta umeen egoera gertutik ezagutzen dutenak herriko eragile eta elkarteak dira (adibidez, Galtzaur Elkartea). Ume hauek, askotan, aisialdirako aukera mugatuak dituzte. Hori dela eta, ekintza honen helburua Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailetik eta herriko eragileekin elkarlanean, aisialdian laguntzeko lan-lerro bat eraikitzea da.</p>			
<b>Kostua</b>	5.000€-15.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Gizarte Zerbitzuak	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	11 ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA/ BIENESTAR E INCLUSIÓN SOCIAL	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

## L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA

<b>PROGRAMA</b>	1.2.	Herritarrek herrian bertan etxebizitza duina izateko aukera bermatzea	
<b>EKINTZA 1.2.1. Udalerriko Etxebizitza Mahaia eratu</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Azken urteetan udalerrian eraikitako etxebizitza berriak, orokorrean, etxebizitzaren prezioaren igoera ekarri du, eta gaur egun, herritar askoren ardurak da herrian bertan bizitzeko aukera izatea. Hori dela eta, ekintza honen helburua udalerriko Etxebizitza Mahaia eratzea da, udaleko eta beste administrazioetako teknikariak, ordezkari politikoak eta herriko eragileak elkartuko dituen.</p> <p>Etxebizitza Mahaia honetan jorratuko dira datozen urteetako etxebizitzaren inguruko arlo nagusiak (adibidez, etorkizuneko etxebizitza promozio berrietan babestutako etxebizitzaren gutxiengo portzentaia ezartzea).</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Alkatetza	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	12 ETXEBIZITZA/ VIVIENDA	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

## L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA

PROGRAMA

1.2.

Herritarrek herrian bertan etxebizitza duina izateko aukera bermatzea

### EKINTZA 1.2.2. Astigarraga hiri-tentsionatu gisa izendatzea

#### Deskribapena:

Legegintzaldi Planean aurreikusia.

12/2023 Etxebizitza Legeak esaten duenaren arabera, Astigarragako udala hiri-tentsionatu gisa izendatzeko pausoak ematea bilatzen du ekintza honek.

Tentsionatutako zonaldea izendatzeko bi kasu jasotzen dira, eta nahikoa da horietako bat betetzea. Alde batetik, aitortpena egin aurreko bost urteetan erosketa- edo alokairu-prezioak Euskadiko KPlaren hazkunde metatua baino gutxienez hiru puntu gehiagoko ehuneko metatua igotzea. Bigarrenik, hipotekaren edo alokairuaren kostuaren batez besteko karga, aurrekontu pertsonalean edo bizikidetzta-unitatearenean, gehi oinarritzko gastu eta hornidurak (elektrizitatearen, gasaren, gasolioaren edo bestelakoen hornidura energetikoa, ur korrontea, telekomunikazio-zerbitzuak eta komunitatearentzako ekarpenak), familien batez besteko diru-sarreraren edo batez besteko errentaren %30 baino handiagoa izatea.

Eremu tentsionatu bat izendatzeak kontratua amaitzen zaien errentariei urtean aparteko luzapen bat egiteko aukera ematen die, indarrean dagoen kontratuaren baldintza eta baldintza berberetan, gehinez hiru urtez. Errentarii berrientzat, alokairuaren prezioa aurreko kontratuaren errentara mugatzen da, eta gehieneko igoera gehigarri batzuk ahalbidetzen ditu legeak ezarritako kasuetan. Azken bost urteetan alokatuta egon ez diren etxebizitza baten errentarientzat, prezioak ezin izango du gainditu erreferentziako prezioen indizeen sistemaren gehieneko muga aplikagarria. Azkenik, etxebizitza edukitzaile handi batena bada, prezioak ezin izango du gainditu erreferentziako prezioen indizeen sisteman aplika daitekeen gehieneko muga.

<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Alkatetza	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta

<b>Gaia</b>	12 ETXEBIZITZA/ VIVIENDA	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES
-------------	-----------------------------	------------	--

**L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA**

<b>PROGRAMA</b>	1.2.	Herritarrek herrian bertan etxebizitza duina izateko aukera bermatzea	
<b>EKINTZA</b>	1.2.3.	Alokairuko diru-laguntza sistema diseinatu eta martxan jartzea	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean aurreikusia.</p> <p>Etxebizitzen prezioaren igoeraren aurrean, beste udalerrri askok egiten duten moduan, Udalak alokairurako diru-laguntza sistema diseinatu eta martxan jartzea da ekintza honen helburua.</p>			
<b>Kostua</b>	5.000€-15.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Gizarte Zerbitzuak	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	12 ETXEBIZITZA/ VIVIENDA	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

**L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA**

<b>PROGRAMA</b>	1.2.	Herritarrek herrian bertan etxebizitza duina izateko aukera bermatzea	
<b>EKINTZA 1.2.4. Udalerriko etxebizitza hutsen inguruko azterketa garatu</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Herrian bertan alokairua sustatu eta etxebizaren arazoari aurre egiteko, gaur egun udalerrian dauden etxebizitza hutsen inguruko azterketa bat garatuko da, bakoitzaren egoera aztertuz. Behin egoeraren diagnostikoa ezagututa, lan lerro konkretuak planteatuko dira.</p>			
<b>Kostua</b>	5.000€-15.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Gizarte Zerbitzuak	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	12 ETXEBIZITZA/ VIVIENDA	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

**L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA**

<b>PROGRAMA</b>	1.2.	Herritarrek herrian bertan etxebizitza duina izateko aukera bermatzea	
<b>EKINTZA 1.2.5. Alokairu sozialak eraikitzeke lurzoru publikoa eskuratu</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Hurrengo urteetan Udalak alokairu sozialeko etxebizitza municipalak eraiki ahal izateko, lurzoru publikoaren erosketa burutzea du helburu ekintza honek.</p>			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>		<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Luzea/Largo	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	12 ETXEBIZITZA/ VIVIENDA	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES



**L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA**

<b>PROGRAMA</b>	<b>1.3.</b>	<b>Berdintasuna</b>	
<b>EKINTZA 1.3.1. IV. Berdintasun Plana garatzea</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
Ikusi IV. Berdintasun Plana			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Berdintasuna	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	24 BERDINTASUNA/ IGUALDAD	<b>GJH</b>	05. GENERO BERDINTASUNA/ 05. IGUALDAD DE GÉNERO

**L1. HERRITAR GUZTIENTZAT AUKERA BERDINTASUNAK BERMATZEA ETA ZAURGARRITASUN EGOERAN EGON DAITEZKEENAK ATZEAN EZ UZTEA**

<b>PROGRAMA</b>	<b>1.4.</b>	<b>Euskara</b>	
<b>EKINTZA 1.4.1. Euskara Plana garatzea</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
Ikusi Euskararen Normalizazioko Plana			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Euskara	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	13 EUSKARA/ EUSKERA	<b>GJH</b>	18. HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA/ 18. DIVERSIDAD CULTURAL Y LINGÜÍSTICA

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.1.	Herriko oinarrizko azpiegiturak herritarren beharretara egokitzea	
<b>EKINTZA</b>	2.1.1.	Herri eskola handitzeko proiektua garatu, eta DBH erakina eraikitzekolanak martxan jartzea (Hezkuntza Sailarekin elkarlanean)	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean aurreikusia.</p> <p>Alde batetik, Herri Eskola handitzeko proiektua Hezkuntza Sailari 2021eko abenduan entregatu zion Udalak. Obrak 2023ko uztailan hasiko dira eta 2024ko abenduan amaitzea aurreikusi du Jaurlaritzak.</p> <p>Bestetik, DBH ikastetxea eraitzeko lurra Udalak Jaurlaritzari 2021eko uztailan laga zion, eta gaur egun, Jaurlaritzak proiektua idazteko lanak egiten ari da. Ikastetxea 2027 urterako amaituta egotea espero da.</p>			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Eusko Jaurlaritzak	<b>Beste arduradunak</b>	Udala
<b>Epea</b>	Luzea/Largo	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	14 HEZKUNTZA/ EDUCACIÓN	<b>GJH</b>	04. KALITATEZKO HEZKUNTZA/ 04. EDUCACIÓN DE CALIDAD

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.1.	Herriko oinarrizko azpiegiturak herritarren beharretara egokitzea	
<b>EKINTZA</b>	2.1.2.	Herrian ludoteka bat eraikitzeko proiektua landu eta martxan jarri	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean aurreikusia.</p> <p>Azken urteetan herriko haur eta ume kopurua nabaremen igo da, eta ekintza honen helburua herrian ludoteka bat eraikitzeko proiektua landu eta martxan jartzea da. Modu honetan, ume zein familiek aisialdirako eta ongizaterako espazio publiko ireki bat bermatuz.</p>			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Kultura eta Hezkuntza	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	11 ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA/ BIENESTAR E INCLUSIÓN SOCIAL	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.1.	Herriko oinarrizko azpiegiturak herritarren beharretara egokitzea	
<b>EKINTZA 2.1.3. Euskaltegiaren egoitza berria eraiki Nabarra-Oñatzen</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean aurreikusia.</p> <p>Ekintza honen helburua Euskaltegiaren egoitza berria Nabarra-Oñatz lokalean kokatzea izango da. Lokal honetan obrak burutu eta bertan, Euskaltegiak gain hainbat udal ekipamendu kokatzea espero da.</p>			
<b>Kostua</b>	15.000€-30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Kultura eta Hezkuntza	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	13 EUSKARA/ EUSKERA	<b>GJH</b>	18. HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA/ 18. DIVERSIDAD CULTURAL Y LINGÜÍSTICA

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	<b>2.1.</b>	<b>Herriko oinarrizko azpiegiturak herritarren beharretara egokitzea</b>	
<b>EKINTZA 2.1.4. Osasun-zentro berria eraiki (Osakidetzarekin lankidetzan)</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean aurreikusia.</p> <p>Biztanleriaren igoera dela eta, egungo osasun-zentroa txiki geratzen hasia da. Hori dela eta, Udalak, Osakidetzarekin lankidetzan, herrian osasun-zentro berria eraikitzeke proiektua martxan jarri du. Anbulatorio berria Bidebitarteko kantxen aurrealdean eraikitzea aurreikusten da, bi solairuko eraikina, 1000 m<sup>2</sup> ingurukoa. Espazio berri honek kontsulta gehiago jartzeko aukera emango du, besteak beste: 6 familia mediku, 2 pediatra, 6 erizain (2 pediatriakoak) eta emakumeen arreta kontsulta.</p>			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Osakidetza	<b>Beste arduradunak</b>	Udala
<b>Epea</b>	Luzea/Largo	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	10 OSASUNA/ SALUD	<b>GJH</b>	03. OSASUNA ETA ONGIZATEA/ 03. SALUD Y BIENESTAR

## LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA

PROGRAMA

2.1.

Herriko oinarrizko azpiegiturak herritarren beharretara egokitzea

### EKINTZA 2.1.5. Jolastokiak berritu eta berriak gauzatu

#### Deskribapena:

Legegintzaldi Planean aurreikusia.

2020-2021. urtean herriko haur eta gaztetxoekin batera, herriko jolastokien inguruko partehartze prozesu bat burutu zen, non, hurrengo urteetako beharrak identifikatu ziren. Prozesu hori aintzat hartuz, honako esku-hartzeak aurreikusten dira herriko jolastokietan:

Ibai parkeko jolastokiaren proiektua idatzita dago eta gauzatzeko lehiaketa martxan dago. 2024an amaituta egotea aurreikusten da.

Sagardo plazako jolastokiaren proiektua idatzita dago eta gauzatzeko lehiaketa martxan dago. 2024an amaituta egotea aurreikusten da.

Murgia auzoko jolastokiaren lanak martxan daude eta 2024an amaituta egotea aurreikusten da.

Perurenako jolastokia eta aparkalekua egokitzeko proiektua idatzita dago eta aurreikusten da 2024an gauzatzea.

Ibai-parkean txakur parke handi bat egokitzeaz gain, Arrobitxuloko txakur parkea berreskuratuko da. Txakur parke hau, txakurrek eta haurrek elkarrekin partekatu ahalko dute. Izaskun kalearen atzealdean beste txakur parke bat zabaltzea ere aztertuko da.

<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Hirigintza	<b>Beste arduradunak</b>	Kultura, festak eta gazteria
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	11 ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA/ BIENESTAR E INCLUSIÓN SOCIAL	<b>GJH</b>	11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK/ 11. CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.1.	Herriko oinarrizko azpiegiturak herritarren beharretara egokitzea	
<b>EKINTZA</b>	2.1.6.	<b>Espazio publikoa bizigarriagoa egiteko esku-hartze arinak burutu</b>	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Astigarragako herritarrek adierazi dute beharrezkoa ikusten dutela kalean, aisialdirako espazio publiko ireki bizigarriak izateko aukerak, non adin desberdinetako pertsonak elkartu daitezkeen. Ekintza honen helburua hiri ingurunean aisialdirako espazioak sustatzea izango da, esku-hartze arinen bidez (adibide gisa, Hernaniko Urbieta kalean burututakoa).</p>			
<b>Kostua</b>	15.000€-30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Hirigintza	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	01 LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA/ TERRITORIO Y PLANEAMIENTO	<b>GJH</b>	11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK/ 11. CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES



**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.2.	Herritarren profil desberdinen beharrei erantzungo dion kirol eta kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzea
-----------------	------	---

**EKINTZA 2.2.1. Kiroldedia handitzeko proiektua idatzi eta burutu**

**Deskribapena:**

Legegintzaldi Planean aurreikusia.

Herritar eta erabiltzaileekin parte-hartze prozesua gauzatuta, kiroldegia handitzeko proiektua idatzi da. Jarduera fisikoa egiteko azpiegitura eta instalazio egokiak edukitzeko, herriaren biztanle kopuruarentzat aproposak izango direnak: Erabilera anitzeko espazio berria, fitness aretoa, padel pista, rokodromo berria, sarrera irisgarria, eskola eta kiroldegiaren arteko plaza.

<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Obrak eta zerbitzuak	<b>Beste arduradunak</b>	Kirola
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	10 OSASUNA/ SALUD	<b>GJH</b>	03. OSASUNA ETA ONGIZATEA/ 03. SALUD Y BIENESTAR

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.2.	Herritarren profil desberdinen beharrei erantzungo dion kirol eta kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzea	
<b>EKINTZA</b>	2.2.2.	Egungo kultur eta kirol zerbitzuek (ikastaroak, ordutegiak etab.) biztanleen beharretara egokitu.	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Azken urteetan Astigarragako biztanleria aldatzen joan denez, eta beraz, herritarren interesak eta beharrak ere aldatzen joan dira. Horregatik, ekintza honen helburua kirol eta kultur udal zerbitzu eta jarduerak herritarren beharretara egokitzea da (jarduera mota, ordutegi eta instalazioei dagokionez).</p>			
<b>Kostua</b>	<5.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Kultura, festak eta gazteria	<b>Beste arduradunak</b>	Kirola
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	20 HERRITARREN PARTE - HARTZEA/ PARTICIPACIÓN CIUDADANA	<b>GJH</b>	16. BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK/ 16. PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.2.	Herritarren profil desberdinen beharrei erantzungo dion kirol eta kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzea	
<b>EKINTZA</b>	2.2.3.	Udal zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatzeko prezio sistema egokitu	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Ekintza honen helburua egungo ordenantza fiskalak egokitzea da, hobaren bidez, zaugarritasun egoeran dauden pertsoneri laguntzeko helburuz. Gaur egun zerbitzu batzuetan aurreikusita dagoeneko, baina oraindik zerbitzu batzuk faltako lirateke: Mundarro, Kiroldegia, Musika eskola...</p>			
<b>Kostua</b>	15.000€-30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Kultura, festak eta gazteria	<b>Beste arduradunak</b>	Kirola
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	11 ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA/ BIENESTAR E INCLUSIÓN SOCIAL	<b>GJH</b>	10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA/ 10. REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.2.	Herritarren profil desberdinen beharrei erantzungo dion kirol eta kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzea
-----------------	------	---

**EKINTZA 2.2.4. Erribera kultur-gunean erabilera autonomoa sustatu**

**Deskribapena:**

Erribera kultur-gune berrian hainbat zerbitzu eta jarduera eskaintzen dira gaur egun, horien artean, urte osoko ikastaro aukera zabala, eta gainera batzar aretoa, dantza aretoa, plastika gela, bilera gelak... aloka daitezke. Ekintza honen helburua, kultur-guneko erabiltzaile direnentzat eraikinera eta gela konkretuetara sartzeko erabilera autonomo sistema bat martxan jartzea da (txartel sistema baten bidez, adibidez), modu honetan, erabiltzaileek nahi dutenean erabili ahal izateko.

<b>Kostua</b>	15.000€-30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Kultura, festak eta gazteria	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	23 KULTURA/ CULTURA	<b>GJH</b>	18. HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA/ 18. DIVERSIDAD CULTURAL Y LINGÜÍSTICA

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.2.	Herritarren profil desberdinen beharrei erantzungo dion kirol eta kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzea
-----------------	------	---

**EKINTZA 2.2.5. Kultur agenda partehartzailea eragileekin landu**

**Deskribapena:**

Gaur egun herriko talde eta eragileek antolatzen dituzten ekintzak kultur-programaren zati hadi bat dira, eta batzuetan, Udalak eta eragileek proposatzen dituzten ekintzek denboran kointziditu egiten dute. Hori dela eta, ekintza honen helburua Kultur Saila eta herriko kultur-eragileen arteko koordinazioa hobetzea da, kultur-agenda osoa modu integratu eta koordinatu eskainiz.

Gainera, Udalaren aurrekontu bat herritar kultur-eragileei eman eta beraiek kudeatzeko aukera ere aztertuko da.

<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Kultura, festak eta gazteria	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	24 KULTURA/ CULTURA	<b>GJH</b>	18. HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA/ 18. DIVERSIDAD CULTURAL Y LINGÜÍSTICA

## LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA

<b>PROGRAMA</b>	2.3.	Mugikortasun jasangarria, inklusiboa eta eraginkorra sustatzea	
<b>EKINTZA 2.3.1. Aldiriko tren geltokia eraiki</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean eta Mugikortasun Planean aurreikusia.</p> <p>ADIF eta Euskal Trenbide Sarearekin elkarlanean, RENFEren aldiriko trenaren geltokia berri bat eraikitzeko proiektua martxan du Udalak. Geltoki hau Bidebitarte poligonoaren parean kokatzea espero da, ibaiaren beste aldera, eta 2017 urterako bukatzea aurreikusten da.</p>			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	ADIF	<b>Beste arduradunak</b>	Alkatetza
<b>Epea</b>	Luzea/Largo	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA/ MOVILIDAD Y TRANSPORTE	<b>GJH</b>	11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK/ 11. CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES

## LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA

<b>PROGRAMA</b>	2.3.	Mugikortasun jasangarria, inklusiboa eta eraginkorra sustatzea	
<b>EKINTZA 2.3.2. Taxi zerbitzuaren eraginkortasuna hobetu</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean aurreikusia.</p> <p>Gaur egun taxi lizentzia bakarra dauka Astigarragak, eta herriko taxi zerbitzuak herritarren beharrei guztiz erantzuten ez diela atzeman da, batez ere Txotx Garaieko hilabeteetan. Hori dela eta, ekintza honen helburua bigarren taxi lizentzia bat bideratzea da, eta gainera, Astigarraga Donostialdeko araubide bereziko eremu gisa izendatzeko tramiteak gauzatzea.</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	?	<b>Beste arduradunak</b>	Alkatetza
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA/ MOVILIDAD Y TRANSPORTE	<b>GJH</b>	11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK/ 11. CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	<b>2.3.</b>	<b>Mugikortasun jasangarria, inklusiboa eta eraginkorra sustatzea</b>	
<b>EKINTZA 2.3.3. Autobus zerbitzu publikoa herritarren beharretara egokitu</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean eta Mugikortasun Planean aurreikusia.</p> <p>Gaur egu, Lurrarebus sistemaren baitako autobus publikoen zerbitzuak ez ditu herritarren beharrak asebetetzen. Hori dela eta, eta herritarren eskaerei erantzunez, ekintza honen helburua, alde batetik, BU12 eta BU13 lerroen maiztasuna areagotzea izango da; eta bestetik, herria ospitalearekin eta unibertsitatearekin zuzenean lotuko dituen autobus zerbitzua lortzea.</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	GFA	<b>Beste arduradunak</b>	Alkatetza
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA/ MOVILIDAD Y TRANSPORTE	<b>GJH</b>	11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK/ 11. CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES



**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	<b>2.3.</b>	<b>Mugikortasun jasangarria, inklusiboa eta eraginkorra sustatzea</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>2.3.4.</b>	<b>Herri barneko eta beste herriekin lotutako bide-gorri sarea zabaldu</b>	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean eta Mugikortasun Planean aurreikusia.</p> <p>Ekitnza honen helburua Astigarragako ziklagarritasuna hobetu, eta herritarrak bizikletaz mugitu ahal izateko azpiegiturak bermatzea da. Horretarako, egungo bideak egokitu eta berriak eraikiko dira. Esate baterako, DBHko ikastetxe berrira joateko bidegorria eraikitzea, eta Txalakako bidegorriari ibilbide alternatibo egokiagoa emango zaio.</p>			
<b>Kostua</b>	15.000€-30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Hirigintza	<b>Beste arduradunak</b>	Ingurumena
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA/ MOVILIDAD Y TRANSPORTE	<b>GJH</b>	03. OSASUNA ETA ONGIZATEA/ 03. SALUD Y BIENESTAR

**LE2. UDALERRIAREN ERREALITATEAREKIN BAT EGITEN DUTEN ZERBITZU, PROGRAMAZIO ETA EKIPAMENDUAK BERMATZEA**

<b>PROGRAMA</b>	2.3.	Mugikortasun jasangarria, inklusiboa eta eraginkorra sustatzea	
<b>EKINTZA</b>	2.3.5.	Donostiako Dbizi bizikleta alokairu sistema publikoa Astigarragara hedatu	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean eta Mugikortasun Planean aurreikusia.</p> <p>Ekintza honen helburua Donostiako bizikleta alokairu publiko sistemarekin (dBizi) osagarria izango den bizikleta elektrikoen sistema abian jartzea da.</p>			
<b>Kostua</b>	<5.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumena	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA/ MOVILIDAD Y TRANSPORTE	<b>GJH</b>	03. OSASUNA ETA ONGIZATEA/ 03. SALUD Y BIENESTAR

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzailatza zerbitzu eta baliabideak martxan jarri
-----------------	------	---

**EKINTZA 3.1.1. Eskualdeko Enplegu Planaren eraketan parte-hartu**

**Deskribapena:**

Udaleko Tokiko Garapen sailetik, eskualde mailako Enplegu Planaren eraketan parte-hartzea da, BBU Mankomunitatearekin elkarlanean, eta, erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzaren baten testuinguruan. Plan honen helburu nagusia izango da eskualdeko langabetuen eta enpresen beharrezkoak aintzat hartuta, kalitatezko enplegu duinak sustatzeko lan ildoak jasoko dituen tresna garatzea.

\*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).

<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea Lanbide, udaletako enplegu teknikariak
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzailatza zerbitzu eta baliabideak martxan jarritz	
<b>EKINTZA</b>	3.1.2.	Eskualdeko enplegu zerbitzuen definizioan, artikulazioan eta gobernantzan parte-hartu	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Eskualdeko lan merkatuak dituen beharrak asebetetzeko enplegu zerbitzuaren definizio eta antolaketan parte hartu, eta, zerbitzu horiek gauzatzeko eragile publiko pribatuen arteko lankidetzak egitura eta eremuak diseinatzen parte hartu. Beterri-Buruntza eskualdea osatzen dute Udaletako enplegu teknikariak, BBU Mankomunitatea eta enpleguaren esparruan lanean diharduten beste eragile pribatu eta publikoak (Lanbide, GFA, 3. sektoreko entitateak, enpresak).</p> <p>*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea Lanbide, udaletako enplegu teknikariak, 3. sektoreko entitateak
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzailatza zerbitzu eta baliabideak martxan jarri	
<b>EKINTZA</b>	3.1.3.	Eskualdeko enplegu-bitartekaritza, enplegu orientazio zerbitzua eta langabetuentzako prestakuntza abian jarri	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Eskualdeko egitura ekonomikoak dituen ekoizpen beharrak eta langabeen profilak doituko dituen bitartekaritza zerbitzua, eta identifikatutako beharrak enplegu aukeretan bihurtzeko baliabideak eta ibilbideak sortzen lagundu.( orientazio zerbitzua, prestakuntza...).</p> <p>*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea Lanbide, udaletako enplegu teknikariak, 3. sektoreko entitateak
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzaitza zerbitzu eta baliabideak martxan jarritz		
<b>EKINTZA</b>	3.1.4.	<b>Eskualdeko artikulazioan eta</b>	<b>ekintzaitza zerbitzuen eraketan,</b>	<b>governantzan parte-hartu</b>
<b>Deskribapena:</b>				
<p>Eskualdeko ekintzaitza zerbitzuak ekintzaileei eskaini behar dizkien zerbitzuak (aholkularitza eta bidelaguntza...), baliabideak (prestakuntza, finantza produktu bigunetarako sarbidea...), prozedurak (informazio kudeaketa, homologazioak..) definitzen eta prozesu hori guztia kudeatzeko lan mahian parte hartzea izango da helburua.</p> <p>*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).</p>				
<b>Kostua</b>	SIN COSTE			
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea Lanbide, udaletako enplegu teknikariak, GFA, finantza entitateak, 3. sektoreko entitateak	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta	
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzaitza zerbitzu eta baliabideak martxan jarritz
-----------------	------	---

**EKINTZA 3.1.5. Eskualdeko ekintzaileen saretzea sustatu**

**Deskribapena:**

Ekintzaileen arteko saretzea, elkarlana, elkarlaguntza sustatu eta garatzea du helburu.

\*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).

<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea ekintzaileak, udaletako enplegu teknikariak
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzaitza zerbitzu eta baliabideak martxan jarri	
<b>EKINTZA</b>	3.1.6.	Eskualdeko ekintzaileen zerbitzuen eraketan parte-hartu	sendotzera bideratutako
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Astigarragan sortutako enpresa berriei eta ekintzaileei jarraipena egin eta bidelaguntzea da asmoa, beraien biziraupena sendotzeko aholkularitza (estrategia, digitalizazioa, bezeroen fidelizazioa, kostuen kontrola etab), prestakuntza eta akonpainamendua eskainiaz.</p> <p>*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea, udaletako enplegu teknikariak, ekintzaileak, kanpo aholkularitzak
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO



**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzaitza zerbitzu eta baliabideak martxan jarri	
<b>EKINTZA</b>	3.1.7.	<b>Sektore espezifikoetarako diseinatu eskualde mailan</b>	<b>ekintzaitza ibilbideak</b>
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Berariazko ekintzaitza ibilbideak eta baliabideak diseinatu (aholkularitza, prestakuntza, eta saretze espezifikoa) abian jarri nahi diren jarduera ekonomiko eta konplexutasunaren araberakoak: merkataritza eta pertsonen bideratutako zerbitzu estabalezimendu txikiak, etab.</p> <p>*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea, udaletako enplegu teknikariak, ekintzaileak, kanpo aholkularitzak
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.1.	Kalitatezko enplegua sustatzea, eskualdeko enplegu eta ekintzailatza zerbitzu eta baliabideak martxan jarri	
<b>EKINTZA</b>	3.1.8.	Giza talde zaurgarrientzako enplegu aukerak aztertu eta berariazko ekimenak abian jarri	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Lan merkatuak egiturazko arazo batzuk ditu: genero, adin arrakala, (helduak eta gazteak) langabeziaren kronifikazioaren arriskua, bereziki trebakuntza maila baxuko pertsonetan. Arazo horiei aurre egin eta giza talde horientzako laneratze programa espezifikoak artikulatu eta gauzatzea izango da helburua: lan prestakuntza ibilbide espezifikoak, inklusio tresnak etab... Giza talde horiekin lanean diharduten eragile publiko-pribatuekin lankidetzan.</p> <p>*Ekintza hau Udalak urtero Mankomunitatari egiten dion ekarpenaren aurrekontuaren baitan dago kokatuta (129.000 eurokoa).</p>			
<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	BBU Mankomunitatea Lanbide, udaletako enplegu teknikariak, GFA, 3. sektoreko entitateak
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	16 LAN MERKATUA/ MERCADO DE TRABAJO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	<b>3.2.</b>	<b>Herri-gunea tokiko merkataritza gune bizia bihurtzea</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>3.2.1.</b>	<b>Etorkizun hurbileko herriko kontsumitzaileen beharrak ezagutzeko ikerketa bat burutzea</b>	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>2015an, Merkataritza Biziberritzeko Plan berezia egin zenetik (MIPB/PERCO) ez da Astigarraren erosketa ohiturari buruzko ikerketarik burutu. Azterketa honekin lortu nahi dena da, egungo, eta, bereziki, etorkizun hurbileko Astigarragako biztanlegoaren erosketa ohitura eta beharrak aztertzea, Astigarragako merkatal eskaintza egokitzeko bidelaguntza eta baliabide egokiak diseinatu eta garatzeko.</p>			
<b>Kostua</b>	5.000€-15.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	17 GARAPEN EKONOMIKOA/ DESARROLLO ECONÓMICO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.2.	Herri-gunea tokiko merkataritza gunea bizia bihurtzea	
<b>EKINTZA</b>	3.2.2.	Herrian eta bertako produktuak kontsumitzearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat zabaltea	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Erosketak herrian egitearen garrantziaz eta bertako edo Km0-ko produktuak /ekoizpena kontsumitzearen inguruan herritarrak sentsibilizatzeko, eta kontzientzia areagotzeko komunikazio kanpaina burutzea.</p>			
<b>Kostua</b>	5.000€-15.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	Ingurumen Saila
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	17 GARAPEN EKONOMIKOA/ DESARROLLO ECONÓMICO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	<b>3.2.</b>	<b>Herri-gunea tokiko merkataritza gune bizia bihurtzea</b>	
<b>EKINTZA</b>	<b>3.2.3</b>	<b>Merkatariak herritarren beharrei erantzuna eman eta profesionalizatzeko aholkularitza eta formazioa ematea</b>	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Tokiko merkataritzak dituen erronkei erantzun ahal izateko merkatarari eta negozio arduradunek eguneratu, prestatu eta profesionalizatu behar dira. Horretarako, beharrezkoak dira prestakuntza baliabideak, bidelaguntza, sentsibilizazio ekimenak, "Jardunbide onen" edota "Esperientzia arrakastatsuen" zabaltzea eta ezagutza horren transferentzia gauzatzea; adibidez, IKTen edo sare sozialaren ingurukoak.</p>			
<b>Kostua</b>	15.000€-30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Astiko	<b>Beste arduradunak</b>	Toki Garapen Saila
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	17 GARAPEN EKONOMIKOA/ DESARROLLO ECONÓMICO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.2.	Herri-gunea tokiko merkataritza gunea bizia bihurtzea	
<b>EKINTZA</b>	3.2.4.	Herriarekin konprometitutako "Komertzio Lagunkoi" sare bat osatzea (umeei eta adineko pertsonen erreferentzia puntu gisa)	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Herritar segmentu desberdinen (umeak, adinekoak...) beharrekin konektatu eta asebetetzeko, zerbitzu gehigarriak eskaintzea beste eragileekin lankidetzan (Udala). Modu horretan herritarrekin konfiantzazko harremanak eraiki eta herritarren ongizatea areagotuko dituzte.</p> <p>Adineko pertsonak bezero leialak izan ohi dira, ondo ezagutzen dituzte erosten dituzten produktuak, egunero erosten dute, eta arreta pertsonalizatua eskatzen dute; hori dela eta, konfiantzazko harremana sortzen dute dendariarekin. "Establezimendu lagunkoia" programa hezkuntza-kanpaina bat da eta, aholkuen bidez, kostu txikiko edo kosturik gabeko jardunbideak proposatzen ditu enpresei adineko bezeroak erakartzen laguntzeko. Ekimen honen helburua establezimenduak lagunkoiagoak izan daitezen lortzea da, eta toki horiek adinekoen beharretara egokitzeko prozesuan aurrera egitea, adinekoek bizi diren ingurunean ahalik eta modurik autonomoenean bizitzen jarrai dezaten eta ongizate hobea izan dezaten.</p>			
<b>Kostua</b>	<5.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Astiko	<b>Beste arduradunak</b>	Toki Garapen Saila
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	17 GARAPEN EKONOMIKOA/ DESARROLLO ECONÓMICO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.2.	Herri-gunea tokiko merkataritza gunea bizia bihurtzea	
<b>EKINTZA</b>	3.2.5.	Herrian kontsumitzea sustatzea: sustapen gurutzatua bultzatzea tokiko merkatarien artean	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Tokiko kontsumoa sustatzeko establezimenduen arteko sinergiak bilatu eta diruaren zirkularizazioa ahalbidetuko duten ekimenak abian jartzea.</p>			
<b>Kostua</b>	5.000€-15.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Astiko	<b>Beste arduradunak</b>	Toki Garapen Saila
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	17 GARAPEN EKONOMIKOA/ DESARROLLO ECONÓMICO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.2.	Herri-gunea tokiko merkataritza gune bizia bihurtzea	
<b>EKINTZA</b>	3.2.6.	<b>Herriko merkataritza gune nagusia izandakoan hirigintzako eskuahartzen bidez (HAPO) bizigarritasuna sustatzea.</b>	
<b>Deskribapena:</b>			
<p>2030 Euskal Merkataritza Estrategiaren eta Eusko Jaularitzak luzatutako akordio markoaren baitan lankidetzan hitzarmen bat adostea, ahalbidetuko duena herriko merkatal gune nagusia izandakoan, merkataritza eskuhartze integralagoak gauzatzea. Esate baterako, eskuhartze urbanistikoak, jarduera ekonomikoak erakartzeko dirulaguntza espezifikoak, aholkularitza espezifikoak (irigarritasuna hobetzeko, efizientzi energetiko hobetzeko, digitalizatzeko, prestakuntzarako etab.).</p>			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Toki Garapen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	Hirigintza, Partehartzea, Eusko Jaularitzako Merkataritza Saila, Astiko, Kanpo Hornitzaileak...
<b>Epea</b>	Ertaina/Medio	<b>Lehentasuna</b>	Ertaina/Media
<b>Gaia</b>	17 GARAPEN EKONOMIKOA/ DESARROLLO ECONÓMICO	<b>GJH</b>	08. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA/ 08. TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO



**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	<b>3.3.</b>	Lehenengo sektorearen iraupena, profesionalizazioa eta landa-eremuaren jarraipena bermatzea	
<b>EKINTZA 3.3.1. Santiagomendiko hiritartzea gauzatu</b>			
<b>Deskribapena:</b>			
<p>Legegintzaldi Planean aurreikusia.</p> <p>Santiagomendiko auzunearen hiritartze lanaren bigarren fasea ( auzunea eta bihurguneak) gauzatzea.</p>			
<b>Kostua</b>	>30.000€		
<b>Arduradun nagusia</b>	Obrak eta zerbitzuak	<b>Beste arduradunak</b>	
<b>Epea</b>	Luzea/Largo	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	01 LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA/ TERRITORIO Y PLANEAMIENTO	<b>GJH</b>	11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK/ 11. CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	<b>3.3.</b>	Lehenengo sektorearen iraupena, profesionalizazioa eta landa-eremuaren jarraipena bermatzea
-----------------	-------------	---

**EKINTZA 3.3.2. Baserritarren Mahaiari jarraipena eman**

**Deskribapena:**

Legegintzaldi Planean aurreikusia.

Udalerriko landa eremuko eta lehenengo sektoreko beharrak jaso eta behar horiei irtenbidea proposatzeko elkargunea da. Udalaz gain, herriko baserritarrek, goldea eta Baratz elkarteak, eta beste eragile batzuk hartzen dute parte. Gune horri jarraipena ematea litzateke helburua

<b>Kostua</b>	SIN COSTE		
<b>Arduradun nagusia</b>	Ingurumen Saila	<b>Beste arduradunak</b>	Toki Garapen Saila
<b>Epea</b>	Laburra/Corto	<b>Lehentasuna</b>	Altua/Alta
<b>Gaia</b>	17 GARAPEN EKONOMIKOA/ DESARROLLO ECONÓMICO	<b>GJH</b>	02. GOSERIK EZ/ 02. HAMBRE CERO

**LE3. HERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA INDARTZEA, SEKTORE EZBERDINEN EKARPENA BALIOAN JARRI ETA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ**

<b>PROGRAMA</b>	3.3.	Lehenengo sektorearen iraupena, profesionalizazioa eta landa-eremuaren jarraipena bermatzea	
